



"Handitu  
egin da gerra  
zibilarekiko  
jakin-mina"

Iñaki Goigana  
Historialaria | 8



Hil honetan bi  
makroepaiketa  
hasiko dira

Arrasate, Oñati eta  
Bergarako elkarteak  
dira tartean | 2

Asteon hasi dira Antzuolako  
gaztetxe urteurren ekitaldiak | 11



Lehertzeaz da egun dotoreenaren  
festa, Arrasaten: Maritxu Kajoi | 13



Galarrako koban burdin meatze bat  
egon zela ondorioztatu dute | 13



Xabier Zubizarreta, Kondekua parkean, Herriraren eta Ekain Zubizarreta semearen aldeko pankarta atzean duela . | JAGOBA DOMINGO

## "Askatu dutenean ez diot ezer esan, demaseko besarkada eman diot"

Atzo, eguna, epailearen aurrean deklaratu eta atzo bertan aske utzi zituztenen artean dago Ekain Zubizarreta arrasatearra. Bizi izandakoa gogorra izan dela aitortu arren, ondo dagoela adierazi dio GOIENARI. Haren aita Xabier Zubizarretak, bestalde, gertatutakoa "atropello totala" izan dela salatu gura izan du. | 4

### SINADURAK

- 6 | Bigarren planotik harago | 6  
OIHAN VITORIA
- 6 | Ea, ba, beste hoge! | 6  
MIREN ARREGI
- 27 | Garai berrien esperantzak | 27  
SEBAS ARANTZABAL
- 40 | Soraluzeko zubia | 40  
MIKEL IRIZAR

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 |  
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 |  
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 |  
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 36 |  
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

UDAKO ARGAZKIEN IX. GOIENA LEHIAKETA

## Irabazleen izenak

Egubakoitzean, urriaren 11ko *Goiena* paperean emango ditugu

Argazki guztiak fotoblog honetan: [blogak.goiena.net/argazkiak](http://blogak.goiena.net/argazkiak)

Baita hemen ere: [f udakoargazkiak](https://www.facebook.com/udakoargazkiak) [t udakoargazkiak](https://www.tumblr.com/udakoargazkiak)

ANTOLATZAILEA: **goiena** KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK: **Kb photoestudio** [www.kbphotoestudio.com](http://www.kbphotoestudio.com)

**GURE AMETSA** JATETXEA

**ARRASATE BIDAIAK**

Arrasateko hipermerkatua **EROSKI** zurekin

**karibu** munduko zaporeak [karibumundukosaporeak.com](http://karibumundukosaporeak.com)

# Hilabeteotako bi makroepaiketen atarian, "libre" aldarrikatuz

- ▶ la 80 lagun epaituko dituzte Auzitegi Nazionalan
- ▶ Hainbat ondasunen etorkizuna ere erabakiko da

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Arrasaten, Irati taberna, Arrano elkarte eta beste hiru lokal; Bergaran, Arrano taberna, Artatse elkarte eta beste lokal bat; Arrano taberna eta elkarte eta hirugarren lokal bat, Oñatin: horiek dira 35/02 sumarioaren epaiketaren emaitzaren arabera era bateko edo besteko etorkizuna izango duten ondasunak -Debagoienan; Euskal Herri osoan 110 elkarteren ondasunak dira denera-. Urriaren 17an hasiko da epaiketa Espainiako Auzitegi Nazionalan; Herri Batasuna, Euskal Herritarrok eta Batasuneko ordezkari izandako 36 lagun epaituko dituzte aipatutako auzian -Bixente Enekotegi eskoriatzarra tartean-, eta haien inguruko erabakiari lotuta dago -edo litekeena da egotea- aipatutako ondasun zerrandaren geroa.

Ezker abertzaleko 36 lagun horiek epaituko dituzte ETako arduradun izatea, ETako kide izatea edo ETarekin kolaboratzea egotzita. Eta ze parte dute auzian aipatutako elkarteek? Epaietan elkarte horietako batzuen defentsa eramango duen Unai Iturriotz abokatu arrasatearrak azalpena: "Akusazioan ez dago elkarteetako aipamen indibidualizatu eta

zuzen bakar bat ere, baina zigorra planteatzerakoan fiskalak planteatzen du zigor osagarri bat, zigor printzipalak -inputatuentzako kartzela zigorrak- izango lukeen beste ondorio bat; eta hori da komisoa. Horrek zer esan nahi duen? Delitu batekin zerikusia

duten ondasunak -delitu hori prestatzeko erabili direnak, delitua gauzatzerakoan tresna bezala erabili direnak edo delitu horren ondorio direnak- Estatuaren esku geratzen direla".

Iturriotzek dio fiskalak planteatzen duela finantziario bat

## 35/02 auziko epaiketa, bi aste barru

Hilaren 17an hasiko da Espainiako Auzitegi Nazionalan 35/02 sumarioaren epaiketa. Baltasar Garzon epailearen aginduz 2002 urtean abiarazitako auzian Herri Batasuna, Euskal Herritarrok eta Batasuneko ordezkari izandako 36 lagun epaituko dituzte, ETako arduradun izatea, ETako kide izatea edo ETarekin kolaboratzea egotzita. Debagoieneko hiru elkarteren -taberna barne- etorkizuna inputatuekiko ebazpenaren arabera izan daiteke.

## ANTOLATUTAKOAK

### ARRASATE

Urriaren 11n, arratsalde-gauetz.

Irati Libre Eguna, Irati inguruan

Urriaren 17an, 19:30etan.

Manifestazioa, Seberotik.

### OÑATI

Urriaren 14an, 19:00etan.

Elkarretaratzea, plazan.

Urriaren 17an, 19:00etan.

Elkarretaratzea, plazan.

### BERGARA

Urriaren 17an, 19:00etan.

Herri harresia-ren irudikapena, plazan.

### BILBO

Urriaren 26an.

Manifestazio nazionala.

## ESANAK

"Kuotekin egin genuen aurrera; 1.000 pezeta ordaintzen ziren"

KEPA ORMAETXEA | IRATI

"Kezka batzuk badituztenen elkarte izan daiteke gurea"

MAITE GURIDI | ARTATSE

"Sententzia juridiko soil bat espero izatea lar espero izatea da"

UNAI ITURRIOTZ | ABOKATUA

egon dela ETaren, aurrez aipatutako alderdien eta elkartearen artean. Alabaina, elkarteetako kide bat ere ez dago inputatuta, eta "kuri osoa da", bere hitzetan, "elkarrean ondasunak afektatuak suertatzea elkarteotako kide ez diren beste pertsona batzuek ustez esan edo ustez egin dutenagatik, haien uestezko jardura bategatik". Eta gehitzen du: "Gure planteamendua argia da: elkarte elkarte da, bere izaera juridiko propioa dauka eta ez dauka ez ETarekiko ez Herri Batasuna, Euskal Herritarrok edo Batasunarekiko menpekotasunik. Elkarteak hartzen ditu berari dagozkion erabakiak". "Ondasun horiek guztiak elkartearen izenean daude, ez dira ETarenak", dio, ezker abertzaleko alderdi horien izenean ere ez daudela azpimarratuz: "Ondasun horiek elkarte bazkideen ekarpenekin erosi zituzten eta euren jarduerarekin aurrera eramana". Iturriotzek dio euren planteatzen dutela kasu honetan ezin dela komisoa gauzatu.

## Bazkideen ekarpenez

1980an inauguratu zituzten, adibidez, Arrasateko Irati taberna eta Arrano elkarte. Sortzailetako bik, Kepa Ormaetxeak eta Mariasun Pagoagak gogoan dute nola 400 bazkide lortu zituzten: "Kuotekin bitartez egin genuen aurrera; 1.000 pezeta ordaintzen genituen bakoitzak hilean". Eta hitzok berresten ditu Bergarako Artatse elkartearen presidente den



Kepa Ormaetxea eta Mariasun Pagoaga, Arrasate

Maite Guridik, zera gehituz: "Edozein elkartetan bezala". Eta kuxetan kredituak ere eskatu zituztela dio, eta horiek ordaintzen joan direla poliki-poliki. Zentzu horretan, elkarte beste ezerekin lotzen duen ezer ez dagoela dio Guridik: "Ez paperik ez ezer".

Artatseko presidentearen arabera euren elkartearen jarduerak beste edozein kultura elkarte-elkarte gastronomikorenak modukoak dira. Eta politikari dagokionez, zer? "Egia da elkarte hau izan daitekeela halako kezka batzuk badituen jendearen elkarte; ezin da esan bataren aldekoa edo bestearen kontrako denik, baina badaude gure bazkideen artean, orokorrean, Euskal Herriaren edo langileriaren aldeko kezka sozial edo politikoa".

Arrasatearrek badiote, baita ere, herriko hainbat talde eta ekimenek jardun izan dutela euren lokaletan, ateak irekita eduki izan dituztela, eta askotariko gauzak antolatu izan direla haietan. Baina orain beldur dira ateak behin betiko itxiko ote dizkieten -Ormaetxeak, Pagoagak eta Guridik hainbat egunetan joan beharko dute Madrila, epaiketara-.

Kantauri itsasoko arrasteko legatza (1,2 Kg - 1,9 Kg)

5,95 €/Kg

Eskaintza baliagarria 2013ko urriaren 5era arte

**EROSKI** zurekin

Eskaintza baliagarriak: Arrasateko Eroski Hipermerkatuan. Musakola z/g. 20500. ARRASATE.

EROSKIren kosmetika berria, salgai

**2. ALEA**

**-50%**

belle produktu guztietan konbinatu nahi duzun bezala!

**EZ DU** parabenorik

Eskaintza baliagarria: 2013ko urriaren 16ra arte

**belle**

Aurrezteroz eta gehiago Eroskiren markekin

Deskontua preziorik baxuena duen produktuari egongo zaio.



ateko Arrano elkartearen ate aurrean. | JULEN IRIONDO

egin beharko lizkiekete elkarteei –ondasunen bahitura eta kontuen blokeoa, adibidez–.

#### Gazteen kontrakoa ere bai

Egoera honetan, Libre plataformak –zehazki Oñatikoak– gogor salatu du Estatuaren jarrera, "berriro ere errepresioaren aldeko apustua" egin izana. "Normalizazio politikoa oso urrun" dagoela dio Libre, "beraien lan politikoagatik kriminalizatuak eta epaituak diren pertsona asko" daudela oraindik. "Herri erantzun sendo bat ematea inoiz baino garrantzitsuagoa" dela diote, eta egingo diren protesta eta aldarrikapen ekintzetan parte hartzea dei egin dute. Bergaran, Oñatin eta Arrasaten izango dira halakoak datozen egun eta asteetan.

Hain justu ere, Arrasaten, Irati Libre Eguna egingo dute datorren egubakoitzean, hilaren 11n. Umeendako ekintzak, jan-edana eta musika, kantua eta bertsoak izango dira. Irati Libre Eguna izango da aldarrikatuko dutelako Irati tabernaren –eta beste lokalen– kontrako neurririk ez dezaten ebatzi 35/02 sumarioko epaiketan, eta baita bertako langile den Irati Muxikaren askatasuna ere. Aramaion bizi den gazte amezketarra Segiko kide izatea egotzita epaituko dute, urrian –14an– hasiko den beste makroepaiketan. 2009ko operazio baten ondorioz atxilotutako 40 euskal herritar gazte epaituko dituzte epaiketa horretan.

Balitzko epaien gainean mintzo da Unai Iturriotz abokatua ere: "Aukera horietako bat da inputatutako pertsonak kartzelara bidaltzea leporatzen zaizkien delituen egiletzat jota, eta elkarrekin ondasunei dagokienez komiso bitartez Estatuaren esku gera-

tea"; izan ere, Iturriotzek dio auzi honek "konnotazio politikoa erabatekoa" duela. "Beraz, sententzia juridiko soil bat espero izatea gehiegi espero izatea da". Oostera, epaileak ebatziko balu komisarako arrazoirik ez dagoe-la, badaezpadako neurriak altxa

#### IRATI MUXIKA | SEGIREN KONTRAKO AUZIAN AUZIPETUA

### "Herritarrak aktibatuz bakarrik lortuko dugu epaiketa hauek geldiaraztea"

Irati Muxika (Amezketeta, 1985) 2009an atxilotu zuten. Bi urte egin zituen preso, bermea ordainduta baldintzapean aske geratu aurretik. Urriaren 14an Espainiako Auzitegi Nazionalan hasiko den epaiketan sei urteko kartzela zigor eskaria dute, berak bezala beste 39 lagunek. Euren kontrako frogak "autoinkulpazioak" direla dio Aramaion bizi den gazteak; epailearen aurrean torturak salatu zituztela, baina kasu gehienak artxibatu egin dituztela.

#### Nolako epaia izatea espero duzu?

Juridikoki egin daitekeen defentsa ez dut oso baliagarri ikusten, aurrez erabakitako epai bat izango delako: batzuk bai, beste batzuk ez akaso. Gure kontrako frogak komisarian jaso zituzten, torturapean. Eta egindako jarraipenetatik eta miaketetatik: ez dakit zeinekin bildu zarela, etxean ez dakit ze txosten zenuela... Baina gu torturatu gintuzten poliziak baldin badira gure kontrako frogak eman behar dituztenak, niri horrek ez dit balio.

#### Eta gaur egun epaiketok egiteari zer deritzozu?

Auzitegi Nazionalak inoiz ez du izan zilegitasunik euskaldunak epaitzeko. Baina Aieteko konferentziaren bigarren urtemuga betetzera doanean, ETaren erabakia eta bi urtera horrelako epaiketei hasiera ematea da oztopatzea. Espainiarrek esaten digute hor daudela eta betiko bidean jarraituko dutela: errepresioa, kartzela, atxilotetak, epaiketak... Agerikoa da borondaterik eza.

#### Nola ikusten duzu jendartea epaiketan aurrean?

Auzipetuok herritarren eta ingurukoengan dugu jarrita konfiantza osoa. Epaiketa Madrilan izango da, baina fokua Euskal Herrian egongo dela badakigu. Herritarrak aktibatuz bakarrik lortuko dugu epaiketa hauek gelditzea eta aurrerapausoak ematea konponbidean. Irati Libre dinamika martxan dago eta atxikimenduak biltzen ari gara, eta Aramaion ere egin zen batzar bat. Hori da bidea Estatu baldintzatzeko, urratsak eman ditzan.




J.I.

**SIMS**  
**SERVIMASA**  
Sukaldeko altzariak eta osagarriak



**BERGARA**  
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa  
Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49  
E-posta: [bergara@servimasa.com](mailto:bergara@servimasa.com)  
**LEZO**  
103 industria poligonoa  
Tel: 943 52 05 00 Faxe: 943 515757  
[www.servimasa.com](http://www.servimasa.com)



**Birziklitzeko erraztasunak ematen dizkizugu.**



**Zatoz eta informa zaitez!**



Ekain Zubizarreta | Atxilotu eta aske utzi duten arrasatearra

# "Kanpoan jendea gure alde mobilizatzen zegoela jakiteak asko lagundu digu"

- Atzo arratsaldean (eguna) laga zuten aske
- Egotzitakoarekin zerikusirik ez duela deklaratu du

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Kalean geratu berri, pozik agertu da Ekain Zubizarreta. Bizi izandakoa esperientzia gogorra izan dela adierazi dio arrasatearrek GOIENARI eta, zer egingo duen jakin ez arren, esan du ziurrenik Arrasatera etorriko dela lehenik, senideak agurtzera, eta gero Andoainera joango dela.

**Zela zaude?**

Pozik. Ondo nago.

**Zela bizi izan dituzu egun hauek?** Nahiko gogorra izan da. Atxilotu gintuzten Andoainen, handik

eraman gintuzten, pentsatzen dut Intxaurrendora, eta handik Madrilerara. Madrilen egon gara hiru egun ziega batean, argia piztuta egun guztian eta jota aspertuta. **Halako egoera batean ezjakintasuna izango da gauza gogorrenetarikoa ez? Ez jakitea zergatik, zer gertatu den...**

Hasieran ez nuen ezer ulertzen. Gero ikusi nuen jende gehiago bazegoela. Madrilerara joan nintzen beste batekin. Eta orduan hasi nintzen kokatzen zer ari zen gertatzen. Gero, burua jartzen duzu txarrean, eta hala egon naiz jakin arte ateratzen nintzela.

**Eloy Velasco epailearen aurrean egin duzu deklaraziorik?**

Bai, ez dudala zerikusirik egozten didaten horrekin.

**Kontua da orain kalean zaudela. Nora zoaz gaur?**

Ba ez daukat ideiarik ere. Pentsatzen dut Arrasatera joango naizela senideak agurtzera, eta gero Andoainera.

**Madrilen egon zareten bitartean jakin izan duzue zerbait kanpoko mobilizazioei buruz?**

Gauza batzuk iritsi zaizkigu abokatuarekin egon garenean, mobilizazioak egon direla, eta desberdinen arteko indar bilketa egon dela... hori jakiteak asko lagundu digu.

**Ze mezu nahiko zenuke helarazi?** Eskertzea piloa mobilizatu den jendeari. Jakin dugula jendea kanpoan zegoela eta horrek asko lagundu digula eta herriak aurrera egin behar duela.



Ekain Zubizarreta Madrilen, aske utzi zutenean; alboan (ezkerrean) du Xabier Zubizarreta aita. | ARGAZKILARIAXXX



Arrasaten asteon egin duten agerraldi jendetsuetako bat. | JOKIN BEREZIARTUA

## Mobilizazioetarako deiak indarrean segitzen du

Atzoko (eguna) azken orduko albisteek poztasun handia ekarri badute ere, errealitatea da Herrira mugimenduari kolpe handia eman diotela asteon, eta haren etorkizuna ez dagoela batere argi. Kontuak blokeatuta, aktibitateak paralizatuta... halaxe segitzen zuen atzo (eguna) albiste hau idazterakoan.

### Bihar manifestazioa, Bilbon

Hori eta oraingo asteko atxilotetak eta gertakariak salatzeak, indarrean segitzen du biharko, zapaturako Bilbon egingo den manifestaziorako deiak. 17:30ean abiatuko da, Casillatik. Leloa, hauxe: *Tantaz tanta euskal presoan eskubideen alde*. Eta deitzaileak ugari. Tartean sindikatu, alderdi politiko eta eragile sozialak, besteak beste. Bertara joateko autobusak antolatu dituzte ibarreko herri guztietan (ezkerreko taulan informazio osoa).

Eta biharko manifestazioaren aurretik ere izango dira bestelako mobilizazioak, baita gure ibarrean ere. Honako mezuarekin, labur esanda: "Asteon gertatutakoa Euskal Herri osoaren kontrako eraso" izan dela, eta komeni dela "erantzun bateratua" ematea.

### "Denok gara Herrira"

Hain zuzen, hori izan da asteon Debagoieneko protesta ekitaldietan zabaldu den mezu nagusia. Eta baita beste honako hau ere: "Herrira ez da aktibista kopuru zehatz bateko mugimendua. Ez dira 18, ez dira 100, ez dira 200. Herrira preso eta iheslarien etxeratzea ahalbideratu nahi duen herri-mugimendua da. Herritarren ahotsa eta ekintza da. Gu denok gara Herrira (...) Gure lan eta eskaerak euskal gehiengo sozial batek babesten ditu eta horren adibide izan zen Bilbon urtarrean burutu zen manifestazio erraldoia, 120.000 pertsona inguru batu ziren orduan".

## AUTOBUSAK

### ARRASATE:

Garibaitik, 16:00etan; txartelak Titukun dendan.

### BERGARA:

Autobus geltokitik, 16:00etan.

### ARETXABALETA:

Azbe ondoko geltokitik, 15:30ean.

### ESKORIATZA:

Autobus geltokitik, 15:30ean.

### ANTZUOLA:

Gaztetxetik, 16:00etan.

### ELGETA:

Plazatik, 16:00etan.

### LEINTZ GATZAGA:

Plazatik, 15:00etan. Aurrez izena eman behar da, Labidea dendan.

### ELGETA:

Plazatik, 16:00etan.

XABIER ZUBIZARRETA | EKAIN ZUBIZARRETAREN AITA

# "Askatu dutenean ez diot ezer esan, demaseko besarkada eman diot"

"Esateko gutxi dago: poza". Horiexek Xabier Zubizarretaren berbak Ekain semea askatu ostean. Gaur, Maritxu Kajoi egunean zerbait egingo dutela ere aurreratu du, barrez. Baina baita ere, salatu gura izan du asteon gertatutakoa "atropello totala" izan dela. Zentzu horretan, egunotarako deitutako mobilizazioek zentzu guztia izaten segitzen dutela adierazi du.

**Ezuste handia, ala?**

Dudarik ez dago. Ezuste handia izan da, abokatuengandik hasita, eta denok ere demaseko sorpresa hartu dugu,

zaila zelako hau gertatzea. Baina bereziki, poza sentitzen dugu. 18 pertsona askatasunean geratzea hau bezalako bahiketa baten ondoren benetan da pozgarria.


**Noiz etorriko zarete?**

Berandu, horra iritsi orduko...

**Kontuan hartuta bihar Maritxu dela, zerbait berezia egin beharko duzue, ala?**

Zerbait egin beharko dugu, bai (barre).

**Hala ere, orain zer? Herrira zer egotzaten geratzen da?**



JAGOBA DOMINGO

Datozen egunotan ikusi beharko dute, abokatuak hitz egin beharko dute honek zer ondorio duen. Izan ere, 18 pertsonen kontra egin dituzten salaketak egin eta kalera ateratzen badira, esan nahi du hor zerbait huts egiten duela eta zuzendu beharra izango duela. Baina hori da estatu espainolak orain arte erakutsi duen logika, Abokatuak aha-

leginduko dira ahal denik eta gehien errekuuperatzen. Ze Herrira oraingoz dago aktibitate guztiak paralizatuak, kontuak blokeatuak, egoitzak itxita... eta guzti hori bere onera eramatea kosta egingo da.

**Biharko eta etzirako deitutak dauden mobilizazioak beharrezkoak dira orain?**

Bai. Egin dutena *atropello* izugarria da. Eta estatu espainol honetan badirudi ohiko bihurtu dela eta inork ez duela ordaintzen halako dispartate bat egitea. Baina gutxienez, gizarteak exijitu behar du errespetua eta begirunea. Nik uste dut zentzu berbera dutela orain arteko deiak mantentzeak.

**Irakurketak jarraitzen du izaten "eraso hau Euskal Herriaren kontrako" izan dela?**

Bai, dudarik ez dago. Egin dutena zen-

tzugabekeria totala da, juridikoki. Ze delitu dute? Zer egin dute? Egiten dieten akusazioa da lainoa bezalako gauza bat. Inolako formarik gabe, inolako daturik gabe, ezer aportatu gabe... Hori da *atropello* totala. Beraz, uste dut astebururako mobilizazioek dutela zentzu guztia.

**Zer esan dizou Ekaini?**

Ez diot ezer esan. Demaseko besarkada eman diot, gero hasi dira denak besarkatzen bera... pozik.

**Berak zer esan dizu?**

(Barreak) *Aitaaaaaaaa* (barreak). Ez dago barbarik. Halako momentutan keinuek askoz gehiago esaten dute esan daitekeenak baino. Esateko gutxi dago: poza.

**Besterik gura duzu gaineratu...**

Eskerrik asko elkartasunarengatik eta egin duzuenarengatik.

## "Euskal esparru komunikatiboa garatzeko asmoarekin", hitzarmena: Euskadi Irratia-Tokikom

Elkarlanean edo hitzarmen horren lehen urrats modura, Euskadi Irratiko arratsaldeetako *Mezularia* saioan, astelehenetan, tokiko informazioa landuko da Tokikomeko hedabideetako kazetariekin. Euskadi Irratiaren izenean Odile Kruzeta EITBko irratietako zuzendari-koordinatzaileak eta Tokikomeko Mikel Irizar presidentek sinatu dute hitzarmena. Irizarren esanetan, "interes komunaren alde lankidetzan aritzeko borondatea" dute bi aldeek, "aldian aldiko formula egokienak bilatuz".



Mikel Irizar eta Odile Kruzeta, eguazteneko prentsaurrekoan. | TOKIKOM

## Gernu eta odol analisiak euskaraz jasotzeko eskatu diote Osakidetzako zuzendaritzari hainbat langilek

"Orain arte gaztelera hutsean datoz proba osagarri guztien txostenak, baita gernu eta odol analisisen emaitzak ere, eta eskatu dugu horiek euskaraz jasotzea", adierazi du Aitor Montes Aramaioko medikuak. Helburua da etorkizuneko bakoitzaren historia klinikoa euskaraz edukitzea. Astelehenean aurkeztu zuten eskaera EAEko hainbat osasun langilek. Debagoiengan, Eskualdeko Ospitalera eraman zuen eskaera Monteseke.



Josu Pereda eta Leire Egaña, Mankomunitateko ordezkariak. | IRATI GOITIA

## Ibaiarekiko eta urarekiko sentsibilizazioa piztu guran

IRATI GOITIA | DEBAGOIENA

Uraren eta Errekaren Astea antolatu du Mankomunitateak urriaren 13tik 19ra, herritarrek kontzientziatzeko helburuarekin, besteak beste. Hainbat ekintza antolatu dituzte aste horren bultzatzen: batzuk, komunak, bailarako herri guztietarako, eta beste batzuk, herri bakoitzean antolatutakoak.

Batera egingo dituzten ekintzen artean azpimarragarrienak bi dira: urriaren 13an ibai garbitzea egingo dute herri guztietan eta urriaren 19an Mekolaldeko eta Epeleko araztegiara bisita egingo da (bi saio: 10:30ean euskaraz eta 12:00etan gaztelerez).

Ohiturretan eragin behar

Deba ibaia arrantzarako edo bainurako erabili ohi zela entzun izan dugu. Orain, baina, hori imajinatzea zaila dela adierazi du Jon Peredak, Mankomunitateko Ingurumen arduradunak, 50 urteotan Deba erreka kutsatuta joan da-eta. Egun, baina, "ilusio" une batean bizi garela esan du Peredak: "Epeleko araztegia martxan jarri zenetik, ibaia askoz garbiago doa". Hala ere, jasagarritasunaren bidean, urratsak eta inbertsioak egiten jarraitzea ezinbestekoa dela gaineratu du; eta baita ere beharrezkoa dela herritarren ohituretan eta jokabideetan eragitea.

## Langabezia handitu egin da, otsailetik lehenengo aldiz

LEIRE KORTABARRIA | DEBAGOIENA  
Sei hilabeteko beheranzko joera aldatu egin da irailean, langabezia handitu egin da-eta. Hain zuzen, 3.707 langaberekin bukatu da hilabetea, abuztuan baino 150 gehiago. Langabezia-maila % 12,44 izan da, abuztuan baino 0,51 puntu handiagoa. Eta, orokorrean, Debagoiengan herri gehienetan handitu da langabezia, Espainiako Enplegu Zerbitzuaren datuen arabera.

### HERRIZ HERRI

HERRIA	LANGABEAK	EHUNEKOA
<b>Antzuola</b>	113	%10,36
<b>Aretxabaleta</b>	339	%10,03
<b>Arrasate</b>	1.552	%14,98
<b>Bergara</b>	909	%12,96
<b>Elgeta</b>	47	%8,67
<b>Eskoriatza</b>	224	%11
<b>Leintz Gatzaga</b>	11	%8,15
<b>Oñati</b>	512	%9,76
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.707</b>	<b>%12,44</b>

ITURRIA: ESPAINIAKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

## Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

### ABOKATUAK

#### BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

#### JUAN ANTONIO SIERRA

BERGARA / Irizar 2  
Tel.: 943 76 03 35

#### BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
Tel.: 943 79 98 86  
Faxa: 943 77 01 08  
blasaga@conet.es

#### RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

#### ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.  
Tel.: 943 71 21 12  
zenbaki@zenbaki.es

### AHOLKULARITZAK

#### AIERDI AHOLKULARITZA

BERGARA / Artekale 1  
Tel.: 943 76 03 50

#### ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3  
Tel./Faxa: 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

#### ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4  
Tel.: 943 71 25 49  
Faxa: 943 71 17 79  
asegi@asegim.com

#### TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36  
Tel.: 943 76 90 83

#### ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.  
Tel.: 943 71 21 12  
Faxa: 943 71 22 68  
zenbaki@zenbaki.es

### ARKITEKTOAK

#### BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea  
Tel.: 943 79 80 33  
www.biark.net

### ARKITEKTO TEKNIKOAK

#### JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4  
Tel.: 943 76 53 53

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.  
Tel.: 943 79 51 25  
Faxa: 943 71 19 85  
uribesalgo@telefonica.net

### PROKURADOREAK

#### JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 esk.  
Tel.: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

## ZABALIK

OIHAN VITORIA  
http://goiena.net/iritzia/



## Bigarren planotik harago

Ikus-entzunezkoetatik natorrelako edo, bada kontu bat azken boladan asaldatzen nauena. Betidanik erreparatu izan diot egunkarietako diseinuari, eta orain argazkiekin nabil tematuta. Gari Garaialde argazkilaritari entzun nion irudiek merezi baino presentzia murriztagoa dutela hedabideetan eta maiz osagarri soilaren papera betetzen dutela. Bat nator horrekin, iruditzen baitzait argazkiei beste trataera bat eman beharko litzaiekeela.

Argazki galeriak eta tankerakoak webguneetan dira ugariak, ziurrenik formatuak berak horretarako erraztasunak ematen dituelako; halere, formula horiek modu batean edo bestean papera eroan daitezkeela iruditzen zait. Eta ez soilik jaietako gehigarrietan. Esaterako, egun berean Herrira-ren aurkako operazioaren harira Euskal Herriko hamaika herritan mobilizazioak egin badira, zergatik ez orri osoa osatu tokian tokiko irudiekin? Irakurleak ez du beste aldarte batean hartuko, bost zutabeko testu bat baino? Gizakiok begietatik edaten dugu, eta argazkiek ez dute bidesaririk ordaindu behar bertatik igarotzeko.

Geroz eta argiago daukat jendeak ez duela egunkariak behar bezala irakurtzeko astirik edo gogorik sarritan. Hain bizi gara gizarte bizkor eta gain informazioaren erritmo etengabea, non Twitter-eko txioak gure informazio beharra asetzeko nahikoak diren. Hala, informazioa kontsumitzeko usadio berrietara jarraiki, irakurleak eskatzen duen bat-bateko ikusgarritasun horri probetxua atera diezaiokegu.

Kazetariok ez diogu tarterik eskaintzen argazki egokia hautatzeari. Albistea bukatu, eta lehen begi kolpean parean jartzen zaigunaren aldeko apustua egiten dugu askotan; bigarren planoko elementu bilakatzen dugu, garrantzirik ez ote duelakoan. Erakar-garritasunari kalte egiten dio horrek; are gehiago, irakurleak titularrari adina garrantzi ematen dionean argazkiari. Ziurrenik ez da hain samurra, baina balio beza gogoetarako, eta, batik bat, jendeak zalantzan jarri dezan, gutxienez, orria pasa edo ez.

## USTEAK USTE

MIREN ARREGI | miarregi@goiena.com

## Ea, ba, beste hoge!

Urtariletik honakoak hilabete biziak izan dira Ganbara Abesbatzako kideentzat, aspaldiko amets bat betetzea lortu baitute. Austriara egindako bidaiatik sari eta guzti bueltatu dira. Ez nuen gutxiago espero. Zenbat eta zenbat ordu kantuari eskainita. Zenbat eta zenbat ahalegin, zenbat kezka eta ilusio. Ondo egindako lanak izaten ei du ordaina eta oraingoan ere hala izan da. Lortutakoa atzean utzita, aurrera begira dago Ganbara. Beti bezain indartsu, ilusioz eta adorez beterik. 2014an, hoge urte beteko ditu. Urte oparoak izan dira oso. Zenbat handitu den taldea. Ume eta gaztetxoak batu zaizkigu, talde berriak sortu. Asko duzue ospatzeko, asko dugu ospatzeko! Zorionak eta ea, ba, beste hoge!

### "Irudiek merezi baino presentzia murriztagoa dute hedabideetan"

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | http://goiena.net/iritzia/



## HANDIK ETA HEMENDIK

### 'Norantza doa gure elikadura? Mundu mailatik gure auzoetara' (laburpena)

Urko Saenz de Buruaga  
argia.com/blogak/urko-saenz-buruaga/

Atzo Adurtzako Aste Agroekologikoaren barnean antolatutako hitzaldien lehen eguna izan zen.

Via Campesina Internacional-eko Paul Nicholson eta Unai Aranguren izan ziren asteari hasiera emateko arduradunak, eta *Norantza doa gure elikadura? Mundu mailatik gure auzoetara* gaia jorratu zuten.

Bi hizlariak laborari berriek sektoreri sartzeko aurkitzen dituzten oztopoak nabarmendu zituzten.

Aurkezpen bideo eta antolatzaileen ohiko sarreraren ostean, Nicholson izan zen hitz egin zuen lehenengoa.

Nekazaritza eta elikagaien politiken porrotaren ondorio den nekazari-exodoaren zergatiak aztertu zituen.

Hiru arrazoi nagusi aipatu zituen:

a) Merkatu askea. Egia esan, gero eta askatasun gutxiago dauka. Desarauketak espakulazioa ekarri zuen, eta honek, prezioetan sekulako eragina dauka.

Hori dela eta, elikagaien salneurriak ez dira uztaren kalitatearen arabera finkatzen, eta gaur egun, ekoizpen-kostuak salneurriaren gaineratik daude.

b) Pribatizazioa. Lurrena, haziena, etab. Honek banku eta enpresa handiek lurretaz jabetzea dakar.

Izan ere, lursailen erosketa baliorik seguruen da, beti gora doalako, inoiz ez behera. Gainera, lurren balioa ez da produkzio-ahalmenaren araberakoa, balio espekulatioaren araberakoa baizik.

Unai Aranguren bere mintzaldian aipatu zuenez, Europatik datozen laguntzak "hektareari ematen zaizkio, eta ez aktiboari".

Horregatik, lurrik daukanak ez ditu saltzen, lantzen ez baditu ere, nekazari berrien sarrera oztopatuz.

d) Eredue zehatz baten inposaketa.

Eredue honek kanpora begiratzera derrigortzen du ekoizlea, eta enpresa agrokimikoen eta saltoki handien mende jartzen du. Erosleei buruz, antzeko zerbait aipa genezake.

Hala ere, kontsumitzen diren elikagai guztien %70a tokiko ekoizpenetik datorrela esan zuen Nicholsonek.

Ekoizpen agroindustrialaren abereen pentsuetara bideratzen da.

Datu honek azaltzen du produktu ekologikoen prezio altuei buruz Aranguren azaldu zuena.

Haren arabera, salneurri altuak justifikatuta daude abeltzaintzan, pentsuen mende dagoelako, baina nekazaritzan ekologikoki ekoiztea industrialki ekoiztea baino askoz merkeagoa da.

Nicholsonen esanetan, "baratze-nekazaritza da mundua elikatzen duena. Gainera, modu jasagarri batean".

Eta CO2 isurketen %55a elikagaien industriatik datozen eta biztanleriaren heren batek gosean pasatzen duen mundu honetan, kontutan hartzekoa da. [...]

goiena  
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Aitor Izagire

Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate  
Erredaktore burua Ubane Madera  
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo  
Argazkilaria Imanol Soriano  
Publizitatea Mireia Larrañaga,  
Amaia Mundifano, Zortza Martin,  
Imanol Elortza

Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa Maria Leturia.

Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,  
Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa


EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA  
ARRASATE 20500:  
Otalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA  
ARETXABALETA 20550:  
E05 Basabe Poligonoa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000  
ISSN: 2174-369X  
Tirada: 20.100 ale  
Difusioa: 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## Elektrizitate enpresen gehiegikeriak

**Josu Garitaonandia**  
(Equo Bergara)  
Bergara

Ohituta gaude elektrizitatearen igoerak jasaten; normalean, abuztuan egiten dute, jendea oporretan distrahituta dagoela aprobetxatuz. Lapurrek gauak erabiltzen dituzten bezala, Gobernuak abuztua erabiltzen du gu txiroago lagatzeko. Azkena, batez besteko 3,2ko igoera eta potentzia-terminoaren igoera desproporzionatua; argindar gutxiago kontsumitzen dutenak gehiago zigortuz. Gero, kanpaina ugari egingo dituzte, energia kontsumoa murriztu behar dela-eta, baina ez dute praktikan jartzen esandakoa.

Gure lehendakaria ere oso kezkatuta azaldu da Espainiako Gobernuak beste igoera bat egiteko duen asmoaz, energia kontsumitzaile handiak kaltetuz, batez ere industria siderurgikoak, lantegi askoren kompetitibitatea galduz eta milaka lanpostu kolokan ipiniz. Nola liteke estatuan dauden bost elektrizitate-enpresa handiek gizartearen etorkizuna baldintzatzea? Irabazi handiak dituzte, elektrizitatea Europako garestienetakoa da, kasualitatea izango da Estatuko presidente ohi batzuek goi postuak edukitzea elektrizitate-enpresa hauetan?

Elektrizitatea, ura bezala, lehengai beharrezkoa da gizartearentzat, ezin da laga elektrizitate-enpresa handien kapritxoetara. Eredu elektriko hau aldatu behar dugu; gure esku dago etxeko argindarra elektrizitate-enpresa handiei eskatu edo kooperatiba energetiko bati; adibidez, Som Energia, Goiener... kooperatiba hauek energia berriztagarriak sortzen dituzten produktoreekin lan egiten dute eta irabaziaz energia berde gehiago sortzeko erabiltzen dituzte; energia berdeak gero eta oztopo burokratiko eta fiskal gehiago ditu, *peaje de respaldo* ipintzeko asmotan dabilta, autokontsumorako elektrizitatea sortzen dutenak kaltetuz. Eman dezagun argindarraren ordez letxugaz ari garela. Ortua ipintzen badugu landatzen ditugun letxugak jateko, supermerkatuan letxuga gutxiago erosten dugu. Gobernua kezkatuta dago supermerkatua gelditzen den egoerarekin, letxugak eramaten dituen kamioiaren kostua bera da letxuga gutxiago eramanaz; beraz, supermerkatuei laguntzeko, zerga berri bat asmatzen du, eta ortu partikularretan letxugak landatzen dituztenak kaltetu.

Informazio gehiagorako, Youtuben ikusi *Oligopoly2* dokumentala.

# GUTUNAK

**Karakterek, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.  
Gutuna helarazteko bideak dira: Otorala Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## Konponbidea lortzeko konpromiso garaia da

**Ibai Redondo**

(Debagoieneko Sorturen koordinatzailea)  
Debagoiena

Lerro hauen bitartez Debagoieneko Sortuk Herriraren aurkako sarekadaren salaketarik irmoena egin nahi du. Atxilotu guztien berehalako eta baldintzarik gabeko askatasuna exijitzen dugu. Era berean, elkartasunik beroena adierazi nahi diegu atxilotu guztiei, bereziki Ekain Zubizarreta arrasatearrari eta bere senideei. Maite zaituztegu!

PPren gobernuak, PSOEren laguntzaz, bake prozesua hankaz gora bota nahi duela erakusten du Herriraren aurkako operazioak eta laster hasiko diren epaiketa politikoei. Francoren diktadurarekin apurto ez zuen trantsizioak estatu atzerakoi eta faxista hau utzi digu oinordetzan. Bi urte betetzera doaz ETA erakundeak borroka armatuaren behin betiko bukaera iragarri zuenetik; era berean, ETAk, presoen zein iheslari politikoen kolektiboek bakearen bidean urrats berriak egingo dituztela iragarri dute. Zentzu honetan, Espainia egiten ari dena ez du inork ulertzen munduan, bakerako zubiak dinamitatu eta elkarrizketari ezetz esaten dio behin eta berriz.

Dena den, bakea lortzeko gakoa ez dago ez Madrilen ezta Parisen ere, Euskal Herrian baizik. Euskal herritarrok erabaki dugu bakea nahi dugula eta ez garela estatuen zain egongo. Herri bezala pentsatu eta erabakiak hartzeko garaia da. Euskal Herrian bakea eta justizia herritar gehien-gehienon aldarrikapena da. Pertsona guztien giza eskubideak eta nazio gisa ditugun eskubideak (hizkuntza, hezkuntza, kultura...) errespetatzea, desmilitarizazioa, presoen eskubideak bermatzea, epaiketa politikoak amaitzea eta erabakitzeko eskubidea errespetatzea dira gatazka politikoa konpontzeko gako nagusiak. Herritarren gehiengoak bat egiten du

aldarrikapen hauekin eta ziur gaude herri bezala jokatuz lortuko dugula.

Zentzu honetan, Jaurlaritzari eta Sabin Etxean dauden EAJren buruzagiei konpromisoa eskatzen diegu. Egoera berezi honek eskatzen duen mailan egon daitezela, Madrilekiko morrontzak apurto eta euskal herritar gehienekin batera konponbidea eta erabakitzeko eskubidearen alde egin dezatela. Aste honetan Herriraren aurkako operazioa babesteko Urkulluk bidalitako Ertzaintzaren eta Guardia Zibilaren arteko argazki lotsagarri eta bortizkeriaz betetako gehiago ez dugu nahi. Gure alboan eta herritarrekin batera nahi dugu EAJ.

EAJren oinarri sozialak egiten duen bezala, gatazka konpontzeko eta independentzia lortzeko bidean elkarlanean aritzeko dei egiten diogu alderdi jeltzaleari. Lehen aukera Herriraren aurkako sarekadari herri bezala erantzutea da. Ostiralean Debagoieneko kaleetan eta larunbatean Bilbon elkar ikusiko dugu. Euskal presoak herrira! Herrira aurrera!

## Erabat txundituta

**Igor Tome**

(Oñatiko Sorturen Kontseiluaren izenean)  
Oñati

Asko izan ginen astelehen goizean gertatutakoarekin erabat txundituta geratu ginenak. Eloy Velasco epailearen aginduz, Herrira mugimenduko 18 kide atxilotu zituen Guardia Zibilak, besteak beste, ETA goratzea, berau finantzatzea eta erakunde armatuko kide izatea leporatuta. Berriro ere bakearen eta giza eskubideen aldeko lanaren kriminalizazio kasu sinestezin bat ikusi ahal izan genuen Euskal Herrian, horretarako inongo oinarririk ez daukan akusazio bat erabiliz.

Presoekiko elkartasun ekimenen aurkako kriminalizazio kanpainak, zoritxarrez, ez dira atzoko kontua gure herrian. Asko izan dira azken urteetan presoen aldeko ekimen desberdinak antolatu edo horietan parte hartzeagatik Madrileran eraman dituzten euskal herritarrek, tankera horretako ekimenekin

amaitu eta beldurra zabaltzeko helburu garbiarekin.

Asteleheneko operazioak, ordea, badauka azpimarratu beharreko mezu beldurgarri bat. Operazioa justifikatzeko erabili zuten diskurtsoan Herrira Gestoras Pro Amnistia eta Askatasunaren jarraipena dela esan zuten. Hau da, helburu jakin batzuk jarraitzen dituzten mugimenduen aurkako kriminalizazio eta jazarpen sistematiko baten aurrean aurkitzen gara. Hau da, mugimenduaren jarduna edo izaerari erreparatu baino gehiago, beronen proiektua eta helburuak dira jomugan jartzen direnak. Garrantzi gutxi eman diote Herriraren izaera zabal eta herrikoari. Diskurtso horrek amaierarik gabeko gurpil bat jartzen du martxan, egun batetik bestera edozein mugimendu apurtzeko aukera emanez. Eta horrek normalizazio politikoa ezinezko bihurtzen du, gizarteko sektore bati etengabe eskubide zibil eta politikoak ukatzea ahalbidetzen duelako.

Herri hau berriro ere espainiar estatuen oldarraldi baten biktima izan da, eta oraingoan 18 izan dira Madrilen amaitu duten euskaldunak. Iritsi da tankera honetako operazioen aurrean gure aurkakotasuna adierazteko ordua. Bloke herritar indartsu bat eraiki behar dugu bakera bidean aurrerapausoak egiten jarraitu ahal izateko eta behin betikoz normalizazio politikoa lortzeko.

Adi mobilizazioei!

## Nahikoa da!

**Mikel Kortabarria**

(Oñatiko Herriraren izenean)  
Oñati

Irailaren 30ean Guardia Zibilak Eloy Velasco epailearen aginduz Herrirako 18 kide atxilotu zituen, Ertzaintzarekin elkarlanean. Azken hauek izan ziren, baina, Hernanin atxilotuak izan zirenei elkartasuna adierazten zeuden ehunka herritarrei jipoiak banatu zizkietenak, beste behin, euren indarkeria erabiliz.

Badira bi urte ETAk armak utzi zituela. Euskal Herrian bakea eta normalizazio politikoa lortzeko bidean aurrerapauso handia izan zelakoan geunden. Azken bi

urteotan, ordea, ikusi dugu Espainiako eta Frantziako estatuen jarrera ez dela ezertan aldatu. Eszenatoki berri bat ireki den honetan, Euskal Herriak ozenki konponbide bat eskatzen duen honetan, bi estatuek behin eta berriz oztopoak jarri besterik ez dute egin.

Euskal preso eta iheslari politikoen egoera ere ez da ezertan aldatu. Etxetik milaka kilometrotara sakabanatuta jarraitzen dute, honek senide eta laguntzat suposatzen duen sufrimendu guztiarekin. Gaixo larriek eta kondenaren 3/4ak beteta dituztenek ere espetxeetan jarraitzen dute, egunez egun estatuen mendekua pairatzen. Ezin ditugu ahaztu Ines del Rio eta 197/2006 doktrina aplikatu zaien preso guztiak ere.

Hori gutxi balitz, atxilotetek ez dute etenik. Gure herriko gazteak, gure adiskideak, konponbidearen bila dabiltzan herritarrek atxilotu eta barrote artean sartzen dituzte. Oraingoan, Herrira herri mugimenduaren aurka jo dute. Noiz arte? Nahikoa da! 18 kide izan dira atxilotuak euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen alde lanean jardutearren. Gu ere horretan gabilta, Euskal Herria isilarazi nahi dute. Elkartasuna ez da delitua. Inongo argudio gabe, izorratzeko gogo hutsez, herri honi eraso egin diote. Euskal Herria isilarazi nahi dute. Presoei bakarrik eta babesik gabe daudela erakutsi nahi diote, baina ez dute lortuko! Ez dute gure elkartasuna eta jarduna etengo. Euskal preso eta iheslari politiko guztien eskubideak errespetatu arte, lanean jarraituko dugu guk. Guztiak etxean izan arte, ez dugu etsiko. Ez gaituzte kikilduko euren eraso oldarkor onartezinek. Lanean jarraituko dugu egiten ari garenean sinesten dugulako. Espetxeak husteko garaia da, ez betetzekoa.

Hala, herritar guztiei egiten diegu dei hurrengo egun eta hilabeteetan egingo diren ekintzetan parte hartzera. Oñatin egubakoitzean elkarretaratzea egingo da Foruen plazan 20:00etan. Eta zapatuan, Herri Egunean, urtero bezala, preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko ekitaldia egingo da 19:00etan eta ondoren manifestazioa. Animatu eta etorri! Herriak erantzun egin behar du injustizia honen aurrean. Itsasoa sortzea zen beraien helburua. Izan gaitezen tanta eta zor dezagun marea urdina. Inor ez dadila etxean gelditu. Guztion artean lortuko dugu! Herrira aurrera!

Bukatzeko, besarkada bana eta gure berotasun guztia atxilotutako 18 kideei eta baita gugandik urrun dauden euskal preso eta iheslari politiko guztiei.

Iñaki Goigana | Historialaria

# "Historialarien eta zaleen artean handitu egin da gerra zibilarekiko jakin-mina azkenaldian"

- ▶ Leintz aldean gerrako lehen hiru hilabeteetan gertatutakoa kontatuko du Goiganak
- ▶ Eskoriatzako batzokiaren 100. urteurrenaren harira antolatutako hitzaldia izango da

ENEKO AZKARATE | ESKORIATZA

Iñaki Goigana historialari lekeitiarrak Sabino Arana Fundazio-ko artxibo historikoan dihardu lanean. Horrek eman dio aukera ondo ezagutzeko eta ulertzeko Espainiako gerran gurean gertatutakoa. Datorren eguaztenean, urriaren 9an, berbaldia eskainiko du Eskoriatzan, hango batzokiaren 100. urteurrena dela-eta. *Gerra zibileko lehen hiru hilabeteak Leintz bailaran* da hitzaldia-zenburua. Horren inguruan egin dugu berba.

**Espainiako gerraren gainean ezjakintasun handia dago oraindik ere?**

Bai; gerraren ezagutzaren gainean hiru belaunaldi zehaztuko nituzke: gerran ibili zirenek, bando batean edo bestean, kontatu zuten ikusi, sentitu edo bizi izan zutena. Haien ostean etorri zirenek, gerra ezagutu zutenen seme-alabek, gerra ahaztu zuten edo ez zioten buelta handirik eman; gurasoen kontua zen eta belaunaldi aldaketa zenez, gurasoen kontuak alboratu zituzten. Eta hirugarren belaunaldia gaur egungoa-edo izango litzateke: gerraren gaineko ezer gutxi dakite, oso urrun ikusten dute hura. Azken multzo honetan badira, halere, jakin-mina daukatenak eta beren hurbilekoei, aitajaun-amandreei, zer gertatu zitzaizen jakiteko gogoa dutenak, herrian zer gertatu zen... Historialari profesionalen eta zaleen artean handitu egin da jakin-min hori azkeneko urteotan.

**Badira, halere, gerra gertutik ezagutu edo sufritu, eta, ahaztu nahian, beren seme-alabei nahita ezer kontatu nahi izan ez dietenak, ezta?**

Bai, egia da. Askorendako, galdu zutenendako batez ere, oso gogorra izan zen gerran parte hartu izana. Eta gerra galdu zutenek ez zieten kontatu gertatutakoa hurrengo belaunaldiei, edo, kontatzekotan, gauzak aldatuta.

**Oraindik gauza batzuek ezkutuan jarraitzen dute.**

Jakin-mina badago, ze erreprezioaren ondorioz hil zirenak eta bide bazterretan edo beste toki ezezagun batzuetan lurreratu zituztenak non dauden jakin gura baitute haien senitarteko edo hurbilekoek. Badira, era berean, guregana datozenak aitajauna kartzelan egon zelako baina ez dakitelako zergatik, etxean ez dietelako kontatu eta arrazoiak bila dabilzalako. Franco hil zenean, egia ezagutzeko behar bat sumatu zen herritarren artean, baina berehala isilarazi zuten. Esaterako, Nafa-



Iñaki Goigana historialaria Eskoriatzan izango da datorren astean, Espainiako gerraren gainean berbetan. | GOIENA

rron, bide bazterretan gorpuak eta jasotzen hasi zirenean, berehala hasi ziren horren kontrako mugimenduak, eta isildu egin zen kontua. Orain berriro ere hasi da jendea galderak egiten. Premia hori sentitzen du jendeak.

**Hitzaldia egingo duzu datorren astean Eskoriatzan. Ze asmo?**

Gerraren zehaztasunetan sartu barik, gurako nuke kontatu gerra zergatik etorri zen, zein zen egoera gerra aurrekoan, 1934ko urriko iraultzak ze onorio izan zituen inguru horretan eta Euskal Herrian, hauteskundeak, Errepublikako giro politikoa... Hori dena kontatu gurako nuke, testuingurua azalduz. Izan ere, horrela hobeto uler daiteke gertatu zena. Leintz aldean, gerra hasi eta frontea jausi zenera arte hiru hilabete pasa ziren eta sasoi hura zelakoa izan zen kontaktzen ahaleginduko naiz. Bando baten zein bestean zeintzuek parte hartu zuten, zergatik... Gerra ez zen sortu ezerezetik, ezta egun batetik bestera ere. Denak ez ziren gorri-gorriak edo besteak erabat faxistak. Azalduko dut zeintzuk ziren eskumakoak, ezkerrekoak abertzaleak...

**Oso epe motzean erori zen frontea hemen.**

Gerra hasi zen uztailean eta irailerako mendean hartu zuten inguru hura frankistek. Urri hasieran, frontea gelditu zen eta Gipuzkoa osoa frankisten mendean erori zen, Eibar ingurua izan ezik. Bizkaia errepublikanoen esku zegoen eta aurre egin zioten frankisten erasoari Durango-eta bonbardatu zuten arte. Debagoieneko herrietan gerra laburra izan zenez gero, Irun eta Donostia aldean gogorragoak izan ziren borroak.

**"Irun aldean gogorragoa izan zen borroka Leintz aldean baino"**

**"Errepublika sasoi bera denbora ezegonkorra izan zen, bakerik bakoa"**

**Zein zen egoera Eskoriatza, Aretxabaleta edo Arrasaten, indar politiko eta sozialei zegokienez?**

Aretxabaletan EAJ zen nagusi, baina karlistak ere baziren eta abade gehienak karlistak ziren. Eskumak indarra zuelako eta botere faktiko zirelako, jeltzaleek gehiago ezin zuten egin. Gero, baina, bestetik, ezkerrekoak geroago eta gehiago eta indartsuago ziren, hainbat fabrika sortu zirelako inguruan. Arrasaten eta Eibarren indar korrelazioa ez zen herri txikien berdina. Herri txi-

**"Kontatuko dut frankistek zergatik hil zituzten hiru abade Arrasaten"**

**"Katolikoek ezin zezaketen ikusi EAJ Errepublikaren alde egiten"**

kiagoetan, karlistek, eskumakoek edo jeltzaleek indar handiagoa zuten herri handi eta industria-lagoetan baino. Aldaketa sasoiak ziren, ezegonkorak, eta dena zegoen bor-bor. Errepublika sasoi bera ere denbora ezegonkorra izan zen, bakerik bakoa. 1934ko iraultza izan berri, jende asko kartzelatan, bi muturretan banatuta jendea, batez ere Espainian...

**Pasarte konkretuen bidez egoera ulertzeko gakoak ematen saiatuko zara?**

Bai; esaterako, zergatik hil zituzten frankistek hiru abade Arrasaten, hain katolikoak baziren ere; zergatik harrapatu, kartzelara eroan eta garbitu zituzten.

**Zergatik?**

Lehenengo eta behin, Arrasaten gertatu zen, ez beste edozein herritan. 1934ko iraultzak Arrasaten izan zuen eragin handia. Asturias aipatzen da sarritan, baina haren pareko eragina izan zuen ia-ia ere hemen, eta inon izan bazen intzidenterik Arrasaten izan zen. Eta abade haiek, eskumaren alde jarri ez zirenez haiek eskatzen zuten moduan, mendekuagatik-edo, hil egin zituzten. Gipuzkoa osoan dozena bat abade fusilatu zituzten. Karlisten edo erreketen ustez, estatu kolpeak uztailean irabazi ez izanaren arrazoi nagusietako bat izan zen hainbat abaderen jarrera.

**EAJk Errepublikaren aldeko hautua egin zuen. Zergatik?**

Batetik, indarrean zegoen erregimena zelako, eta ezeren gainetik alderdi demokrata zelako. Bestetik, garatutako ideologia demokrata-kristauak ez zuelako zerikusirik erreketen edo karlisten ideologiarekin eta arlo politiko eta sozialean, zentrorantz edo apur bat ezkererantz jotzen zuelako, ezkerreko alderdia inoiz izan ez bada ere. Horregatik, argi dago, alderdi katolikoa izan arren, militarrek estatu kolpea eman zutenean, ezin zezakeen haien alde egin. Eta, bestalde, benetako katolikoak zirenak, Karlistak, ezin zezaketen ikusi haien ispilu izan zitezkeenak, EAJkoak, Errepublikaren alde. Are gutxiago apaiz batzuk, nabarmendu zirenak euskalgintzan edo arlo sozialean, sindikatuei laguntzen eta beste, edo politikan. Horiek zerrenda beltzean jarri zituzten eta garbitu egin zituzten.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.





## ETXEBIZITZA



## "Uribarri auzoko etxebizitzek bista paregabeak dituzte"

Sukia eta Gedi enpresa sustatzaileek guztiz bukatuta dagoen Arrasateko Uribarri auzoan etxe modernoak eta kalitatezkoak dituzte salgai. Horietaz berba egiteko, Joaquin Aznar, obra-taldeko buruarekin izan gara.

### Nolako auzoan eraiki dituzue azken etxeak?

Uribarri auzoa ederra da eta guztiz bukatuta gelditu da eraiki dituzten azken etxeekin. Jendea dagoeneko bertan bizi da eta leku atsegina da, jabeek eurek eta jendeak orokorrean diotenez. Gainera, gure eraikinak kokapen pribilegiatua dauka, altueragatik, bistengatik eta eguzkiagatik.

### Zer azpimarratuko zenuke proiektutik?

Orientazio paregabea duela; iparraldeko fatxada eguralditik babestuta gelditzen da eta hegoaldekoan, berriz, eguzkiak jotzen du. Kalitatezko eraikina da eta goi mailako detaileak ditu. Adibidez, teilatu-hegala du eraikin osoa babes-teko, eta fatxada adreiluz, granitoz eta harriz eginda dago eta ez du mantentze-lanik behar.

### Nolako etxebizitzak dituzue salgai?

Bi eta hiru egongelako etxebizitzak ditugu salgai, tamaina eta tipologia askotarikoak, eta, ondorioz, prezioak ere askotarikoak dira, behar eta aurrekontu desberdinetara egokitutakoak. Uribarrin eraiki dugun azken eraikinean terraza handiak eta etxeari lotutako beste espazio bat dituzten beheko solairuak, bista ikusgarriak dituzten atikoak eta solairuetako etxebizitzak ditugu.

### Zein ezaugarri dituzte eraiki dituzten azken etxebizitzak?

Gaur egun modan dauden akaberak dituzte etxebizitzak: eskari handia duten ate zuriak eta alikatatuak, hainbat tonutan, komunetako ertzak altzairu herdoilgaitzez egindakoak dira, sarrerako atea korazatua da eta ez blindatua, eta gainera, intsonorizatuta dago. Leiho handietatik argitasun handia sartzen da, eta mikro-aireztapena

dute; horrek bermatzen du etxea egoki aireztatuta egongo dela uneoro; beraz, osasungarria izango da bertan bizi izatea.

### Bezeroei bestelako eskaintzarik egingo diezue?

Bai, Sukia eta Gedi enpresa sustatzailetik, esfortzu berezia egin dugu bezeroei eskaintza onena egiteko; sukialdea eta armairuak 6.000 euro baino gutxiagotatik eskaintzen ditugu. Eta kontuan hartu behar da kostu erreala handiagoa dela.

### Interesa dutenek nora jo behar dute?

Interesa dutenek informatzeko eta etxebizitza pilotua ikusteko aukera daukate, lasai-lasai eta konpromiso barik. Telefono honetara ere dei dezakete interesatuek: 650 51 98 95. Eta [www.sukia.com](http://www.sukia.com) webgunean informazio guztia daukete bertan eskuragarri.

**UTE URIBARRI** AUZOA **ARRASATE**  
**sukia GEDI**

Azken blokearen salmenta Uribarrin,  
 pertsonalizatzeko aukerarekin!



Informazioa:  
 Tel.: 650 51 98 95  
[www.sukia.com](http://www.sukia.com)

## DUELA 10 URTE

2003-10-03

## Loteria Nazionalaren saria Arrasaten

Loteria Nazionalaren sari nagusia Arrasatera joan zen. 51.788 zenbakiak 1.200.00 euro utzi zituen. Ruiz de Alegria administrazioak 20 dezimo saldu zituen. Hala, saridun bakoitzak 60.000 euro poltsikoratu zituen, sei euroko txartela erostearen truke. Administrazioari arduradunak pozik agertu ziren sariarekin, eta gogora ekarri zuten aurretik 3.000 euroko bi sari eman zituztela Loteria Primitiboarekin.



Ruiz de Azua administraziokoak. | GOIENA

2003-10-03

## Santa Ana ermitako lanak Aramaion

Bi urteko atzerapenaren ostean -lanak egiteko aurreneko proiektua 1999an aurkeztu zuten, baina, hainbat arrazoiengatik, bi urtez atzeratu zen-, Aramaio Santa Ana ermitako lanak hasi zituzten 2003ko urriko lehen egunetan. Hain justu, ermita ondotik pasatzen den Aramaio erreka albo bietako harri-lubetak konpondu zituzten. Ondoren, Gantzaga errekan ere antzerako lanak egin zituzten.

## DUELA 5 URTE

2008-10-03

## Urretxu-Bergara errepidea

Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olanok iragarri zuen Beasain-Durango errepideko Urretxu-Bergara arteko zatia 2009an hasiko zela. Gainera, aurreratu zuen Foru Aldundiak 185 milioi euro bideratuko zituela lan horiek egiteko. Olanok esan zuen GI-632 errepideko lanak bukatzea "kome-nigarria" zela.

## ONATI

## HERRITARRAK

**Jazinto Lizarralde** 30 urtean harakina eta txikitatik mendizale amorratua. Kilimanjaro oinez igo zuen eta urtebetean lau alditan egin zuen Santiago bidea, horiek ere oinez | MIREIA BIKUÑA

# "Goiz baten Aizkorri lau aldiz igotzea normala zen niretzat; ez besteentzat"

**J**azinto Lizarralde oñatiarrak 82 urte bete zituen irailaren 1ean. Egunero joaten da mendira. Erretiroa hartu zuenetik, denbora luzeagoa du mendian ibiltzeko, baina Kale Barrian harategia zuenean ere, eguerdian ez zuen hutsik egiten. Balentria handiak egin izan ditu mendian: Kilimanjaro bera oinez igo zuen. Etxean hartu gintuen martitzenean, eta sasoi oneko dagoe-larakuksi zigun.

## Mendizale amorratua zarela esan genezake?

Bai. 9 urterekin aitak artaldea ekarri zidan, eta, soldadutzara joan arte, ardiekin ibili nintzen. Gazta ere egiten nuen. Orduetik dator kit mendirako zaletasuna. **Harakina izan zara 30 urtean. Lanbide horrek ordutegi trinkoa dauka, eta hori mendizaletasunarekin bateratzea ez zen erraza izango?** Ez, ba. Harategia astelehenetik zapatara arte zabaltzen genuen. Astegunetan denda itxi ondoren joaten nintzen mendira. Askotan, Aizkorrira, ogitartekoarekin. 13:00etan denda itxi eta 17:00etarako berriro bueltan, lanean.

Ez ziren harategia eta mendizaletasuna bakarrik. Seme-alabak ere bai. Zazpi urtean sei seme-alaba izan genituen.

## Balentria handiak egin dituzu mendian. Ingurukoek berdin baloratzen zuten egindakoa?

Mendian asko ibilitakoa naiz, eta oraindik ere banabil. Domeka goiz baten Sindika-Urbi-Aizkorri lautana egitea normala zen niretzat. Ingurukoek beste iritzi bat zuten.

Egun, kirol asko egiten da leku guztietan, baita Oñatin ere. Jendeak beste ikuspuntu bat dauka kirolarekin eta mendiarekin. Baina duela 30 urte, zoratu ta nengoela zioten askok.

## Goiz baten lau alditan igo zenuen Aizkorri?



Jazinto Lizarralde, etxeko sukaldeko lehoian. | MIREIA BIKUÑA

**"Urtebeteko epean Santiago bidea egin nuen lau aldiz oinez"**

**"Aldrebesa da Kilimanjaro: pareta bertikalak ditu, eta izotza"**



Jazinto Lizarralde, Aizkorrin, 1992an. | JAZINTO LIZARRALDE

Bai. Sindikan autoa utzi eta lautana igo nuen. Hirutan egin nuen hori. Behin, bost aldiz igo nuen, baina denbora luzeagoa hartu nuen. Askok ez zuten sinesten zer egiteko gai nintzen, eta bost aldiz igotzeko proposamena egin zidatenenean baldintza bakarra ipini nuen: sei lekukoren laguntza. Bat Aizkorrin egoteko eta beste bostak nirekin igotzeko. Igoera bakoitzean bat. 16 orduan egin genuen.

## 50 urterekin Euskal Herriko bost mendi igo zenituen.

Gorbeia, Barazar, Urkiola, Anboto, Besaide, Udaltx, Erguinetik Lamiategira, Urtiagain, Arantzazu, Aizkorri, Otzaurte, Etxegarate, Txindoki, Larraitx. Etxera autoan ekarri ninduten.

## Gehienbat, inguruko mendietan ibili zara, baina Afrikako espedizio baten parte hartu zenuen. Kilimanjaro zenuten helburu.

Donostiako espedizio bateko kide nintzen. 11 lagun joan ginen. 1.800 metrora zegoen herrian autoa utzi, eta hango kontrol-gunean datuak eman eta ordainketa egin ostean, gorako bidea hartu genuen. Lau egunean igo genuen, hango hiru aterpeetan lo eginda.

## Igoera gogorra izan zen?

Bai. Mendi aldrebesa da. Estatistikek diote igotzen diren hiru pertsonatetik bi ez direla goraino heltzen. Gure espedizioa guztiak heldu ginen goraino. Hori bai, nekatuta eta behar bezala ospatzeko gogo barik.

Bereziki gogorrak egin zitzaizkigun azken 1.200 metroak: bederatzi ordu eta erdi. Paret bertikal itzelak zituen. 5.000 metrotik gora izotza zen nagusi.

Teide eta Bola del Mundo ere igo nituen oinez.

## Kilometro asko egindakoa zara, eta beti osasuntsu?

Bai. Zorionez, ez dut gaixotasun larriarik izan. Mendian ibiltzeko

## NIRE HERRIAN

### HERRIKO INGURUNEA

Oñatiko ingurunea azpimarratuko nuke. Mendira igo barik, herritik gertu ditugun gunek. Adibidez, San Martin. Leku zoragarria da. Akaso, eskura dugunez, ez dugu horrenbeste baloratzen. Baina izango ez bagenu, haren beharra izango genuke. Leku ederra eta lasaia, duda barik.

### KRISIAREN ERAGINA

Krisiak herrian izan duen eragina azpimarratuko nuke. Urte asko dira zurrubilo baten sartuta gaudena, eta, oraingoz, ez diot irtenbiderik ikusten. Gazte asko daude langabezian, eta horrek eragina izango du herriaren etorkizunean. Egoera konpontzea ez da erraza. Ea, bada, guztion artean lortzen dugun.

gogoia eduki behar da. Gogotsu egonda eta prestaketa egokiarekin, mendian ibiltzeko gai da edonor.

## Urrun joan barik, ze mendi azpimarratuko zenituzke?

Oñati inguruan mendi asko daude eta guztiak dira politak. Datu bat emango dizut: domekero mendi ezberdin bat igota, sei hilabeterako plana egin daiteke. 24 domeka, 24 mendi ezberdin.

## Behin erretiroa hartuta, barruan zenuen arantza atera ahal izan zenuen: Santiago bidea.

Nire ametsetako bat zen, baina, harategia eduki genuen bitartean, ezinezkoa izan zitzaidan. Bide osoa egiteko hilabete behar da. Erretiroa hartuta, bete nuen ametsa. Urtebetean lau aldiz egin nuen Santiago bidea: bitan Orreagatik irtenda, beste baten Hendaiatik, eta laugarrena eta azkena, *Ruta de la Plata* deritzona, Cadizetik irtenda.

# HERRIAK

ANTZUOLA

## Gaztetxetik herria piztera

- ▶ Asteon hasi dira 'Urteurrena' ospatzeko ekintzak eta gaur eta bihar jarraituko dute
- ▶ laz sei lantalde antolatu ziren funtzionamendua bermatzeko; orain, berritu egingo dituzte

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Eguaztenean ziren hastekoak Antzuolako Gaztetxean lehen urteurrenako ekitaldiak. Garai bateko kontuak ezagutzeko, erretiratuekin afari-merienda zuten aurreikusita, jubilatuei baina, azken orduko betebeharrak bat sartu zitzaizkien eta bertan behera utzi behar izan zuten ekintza. Gauzak nahi bezala ez ahazteak ez zizkien indarrak kendu eta atzo pintxo-poteoa eta herriko jendearekin ipuin kontaketa musikatua egin zituzten gaztetxean bertan.

*Urteurrena* izena jarri diote eta gaur eta bihar pilatuko dira ekintzarik gehienak: afaria eta bazkaria, jolasak, musika emanaldi ezberdinak... Eta denek

izango dituzte herritarrak eta kalean giroa jartzea oinarri.

Izan ere, Gaztetxea garai batean anbulatorioa zegoen eraikinera lekualdatu ziren iaz eta ordutik eskutik joan dira herritarrak eta gaztea. Jon Lizarazu gaztetxeko kidea da eta eraikin berriak gazteengan eta herrian ilusioa eragin duela aitortzen du: "Gaztetxearen martxari buelta berri bat eman eta jende ezberdin askoren artean herriari beste *txispa* bat ematen saiatu gara". Hortik, agian, urteurrenerako antolatutako programaren leloa: *Urtebete herrixa pizten!*

### Lan egiteko modu berria

Eguno eraikinera joateak beste aldaketa bat ere ekarri zuen: Gaztetxea lantaldetan hasi zen lanean. Sei talde dituzte eguneroko funtzionamendu egokia bermatzeko: mantentze, komunikazio, elkartruke, parte-hartze, diruzaintza eta ikus-entzunezko taldeak. Horietako bakoitzak hainbat lan ditu eta bere arloa lantzen du, "sekula osotasuna ahaztu gabe". Lizarazuk aipatu duenez, lan taldeak ez daude itxita eta hobekuntzak proposatu nahi dituenak zabalik ditu Gaztetxeko ateak arratsaldero bostetatik aurrera. Orain, urtebete honetako balorazio positiboa egin ostean, lantaldeak berriro osatzeko asmoa dute eta apuntatzeko aukera irekita dago: "Ez dago esperientzia edota jakituria berezien beharrik, ikasteko eta aurrera egiteko motibazioa bakarrik behar da".

Bada, lan egiteko modu horri esker, askotariko ekintzak egitea lortu dute eta Gaztetxeko kideak gustura daude eskainitako aniz-



Gaztetxeko kideak eta adin askotariko herritarrak iaz antolatutako txalaparta ikastaroan. | ANTZUOLAKO GAZTETXEA

### ESANAK

**"Lantaldeetan parte hartzeko ez da jakituririk behar, ikasi eta aurrera egiteko motibazioa baizik"**

JON LIZARAZU | GAZTETXEO KIDEA

tasun mailarekin. "Izan ere, kontzertuetatik harago, tailer, antzerki, ipuin eta bertsoak izan dira urte honetan gure egitarauan", adierazi du Lizarazuk. Horren adibidetako batzuk dira joan den astean egindako *Badira*, *Bagara* dokumentalaren aurkezpena, Iraunkortasun Astearen barruan egindako bigarren esku arropen azoka eta joste-tailerra, eta uztaileko jaiak bukatu eta astebetera hainbat herritarrekin batera egin zuten ibai garbiketa.

### Aspaldiko proiektua

Urte batzuk pasa dira Udalak gazteei eurek kudeatzeko gune bat utzi zientetik. Kalebarrengo lokal batean egon ziren denbora batez eta 2009 inguruan gune egokiagoaren beharra sortu zen. Anbulatorioa Torresoroara eramatean, horretarako aukera ikusi eta 2010eko udal aurrekontuetan Gaztetxe berria egokitzeko diru kopuru bat aurreikusi zen. Langile profesionalek egin zituzten lan batzuk, baina gazteek ere lagundu zuten egokitzapenean.

### ASTEBURUKO EGITARUA

#### URRIAK 4

**20:30** Afari parte-hartzaile ibiltaria.

**22:30** Dhuna taldearen kontzertua.

#### URRIAK 5

**11:00** Umeendako jolasak.

**12:00** Salda eta txorizoa.

**13:00** Urteurrenako bazkaria.

**16:00** Autobusa Bilbora.

**Ondoren** Luncha.

**22:00** Erromeria eta DJa.

**FORDen PIVE**

**3** Plana aprobetxatu

**FORD FOCUS**

12.990€-gatik

Ford Focus gama. Batez besteko kontsumo konbinatua: 4,2l-tik 7,2 l-ra / 100 km. CO2 isuria: 109 g-tik 160 g-ra / km

**MUGARRI AUTOAK** Araba Etorbidea, z/g. ARRASATE

ford.es

**EZ GAZ DANOK**

- Murcia 780 km
- Ocaña 448 km
- Puerto 955 km
- Jaen 716 km
- Bapaume 1040 km
- Osny 912 km
- Zuera 320 km
- Villapinte 911 km
- Albacete 792 km
- Sevilla 899 km
- Puerto 955 km
- Almeria 927 km

**LIBRE**  
Epaiketarik ez!

**Ekaitz - Iluntz  
Kimetz - Muxibar  
Osorik - Taupa  
Iturriotz - Basati  
Irati - Amaiur**



laz miraria inoiz baino goiztiarragoa izan zen; Maritxuk kuadrillek jaso ez zuten makala jaso zuen —makala, eskuinaldean. | J.A.

## Lehertzean da urteko egun dotoreenaren festa

Aurten ere, miraria zuzenean streaming bidez: 'www.maritxukajoi.org'

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Soineko, traje, gorbata eta takoi. Eskapulario eta lore. Heldu da urteko egunik dotoreena, txikiteroen —eta arrasatearren— Ama Birjina kutunenaren eguna. Urriko lehen egubakoitza da gaur, Maritxu Kajoi. Arrasateko jairik ezagunena da, kanpoko jende gehien erakartzen duena.

Jendetza batu arren, ez dio jai herrikoa izateari utzi eta horren errudun nagusia da urtero jaia antolatzeaz arduratzen den Maritxu Kajoi Komisiñue: "Nobedadeak nobedade, Maritxuk segurtasuna ematen du urtero antzekoa izaten delako eta Komisiñokoen lanak banatuta daudelako". Eskapularioa "ezinbesteko" elementutzat dute; hurrengo urtean jaia antolatzeko diru-iturri izateaz aparte, jai bereziaren "sinbolo" ere bada: "Eskapulario gabeko Maritxuak txistorra eta talo gabeko Santamasak dira. Gu eskapulario gabe ez goaz dotore, zerbait falta zaigu".

**Askotariko mirariak**

Jaia 1977an lehenengoz ospatu zenetik hainbat izan dira Maritxuren mirariak. Lehena 1981n izan zen: Herriko Plazako iturritik ardoa edateko aukera eman zuen. Hurrengo urtean, 1982an,

### EKINTZA AIPAGARRIENAK

**18:00** Irrien Lagunekin batera *Kanta eta dantza* ikuskizuna Seber Altubean. Euria eginez gero, Biterin.

**18:00** *Niri bost* lehiaketa gaztetxoendako. Galdera eta erantzun laburrez eta probaz osatutako lehiaketa. Kalean, Gaztegunetik abiatuta. Euria eginez gero, Gaztegunean.

**18:30** Kiliki eta erraldoi txiki eta ertainen kalejira.

**19:00** Oria txaranga Herriko Plazan eta inguruetan.

**20:30** Maritxuri lore eskaintza. Aurten ere miraria zuzenean ikusi ahal izango da streaming bidez, [www.maritxukajoi.org](http://www.maritxukajoi.org) helbidean.

**22:30** Dantzaldia Seber Altube plazan Kaixo taldearen eskutik.

**00:30** Dantzaldia Herriko Plazan Luhartz taldearen eskutik.

► Eskapularioa zintzilik irteteko dei egin dute. Arbolapetan, parrokan eta Monte tabernaren atarian egongo dira salgai, bi eurotan.

► Kuadrillak lore eskaintza egitera animatu dituzte: "Ikaragarri eskertzen du", diote Komisiñokoek.

lehenengoz jarri zuten Maritxu inguratzen duen arkuak —mirariaren orduan petardoz lehertzen dena—. 1985ean elurra bota zuen Erdiko kalean; 1988an Maritxuk ehunka kondoi banatu zituen Osakidetzak abiarazitako hiesaren aurkako kanpaina zela-eta; 1990ean eta 1991n, krisi ekonomikoa zela-eta, diru *zaparrada* eragin zuen; 1998an, Baltasar Garzon epailearen aginduz itxitako *Egin* egunkariaren ale bat argitaratu zuen; 2000n, alarde parekidearen aldeko Jaizkibel konpainiakoak ekarri zituen...

Eta iaz, sanjuanetan kuadrillek lortu ez zutena lortu zuen Maritxuk, makala jasotzea. Orain arteko miraririk goiztiarrena izan zen hura. Aurten ere ziur zerbait prestatu duela...

### Saria argazki onenendako

Aurten nobedade nagusia da argazki lehiaketa. Helburu nagusia da Komisiñuen artxiboa osatzea: "Pena ematen zigun jaiak aurrera egin ahala Twitter, Facebook, Tuenti eta bestelakoetan hainbat argazki xelebre ikusi eta guk horiek jasota ez izatea". Argazki sorta ederrenak saria izango du; oraindik ez dute zehaztu, baina, "seguruenik", saria saski bat izango da. Parte hartu gura duenak [maritxuzaliak@gmail.com](mailto:maritxuzaliak@gmail.com) helbidera bidali beharko ditu argazkiak.

### ESANAK

**"Gu eskapulario gabe ez goaz dotore, zerbait falta zaigu"**

MARITXU KAJOI KOMISIÑUA

## Lomce legea izango dute hizpide hilaren 8an Kulturaten

J.B. | ARRASATE

Lomce legearen ondorioak izango ditu berbagai Xabier Mendizabalek, Biheko koordinatzaileak, urriaren 8an Kulturateko areto nagusian (18:00). Hitzaldiaren helburuak dira, Arrasateko Udaleko Hezkuntza Kontseiluak azaldu duenez, hezkuntza komunitatea sentsibilizatzea eta informatzea eta lege horren kontra urriaren 12rako Bilbon antolatzen den manifestaziora deitzea. Manifestazioa 17:30ean abiatuko da. Mendizabalen azalpenak osatzeko bideo bat prestatu dute antolatzaileek.

### Udalbatza, aho batez kontra

*Wert lege* moduan ere ezaguna, Hezkuntza Kontseiluak hainbat ekimen egin izan ditu Arrasaten. Ekainaren 4ko osoko bilkuran, esaterako, Hezkuntza Kontseiluak legearen aurka egindako idatzia aho batez onartu zuen udalbatzak; hainbat ikasle eta irakasle osoko bilkuren aretoa bete zuten. Orduan, *Wert legeari ez, euskal hezkuntza sistema propioari bai* zioen pankarta jarri zuten udaletxean.

# Galarrako koban burdin meatze bat egon zela ondorioztatu dute

Arkeologia ikerketak orain arte emandako aurkikuntzak erakutsi zituzten atzo

JOKIN BEREZIARTUA / I.E. | ARRASATE

Atzo aurkeztu zituzten, Gipuzkoako Diputazioaren egoitzan, azken urtean Arrasateko Meatzereka auzoko Galarra koban aurkitutako piezak. Proiektua kasualitatearen emaitza da; izan ere, 2012ko abenduaren 7an lau gazte koban galdu ostean ezagutu da gunearen garrantzia; lau gazteek giza-jardueraren aztarnak gordetzen dituen lau kilometroko galeria multzo bat aurkitu zuten. Horri esker ondorioztatu dute burdin meatze bat egon zela. Azken urtean Arrasate Zientzia Elkarteko talde bat aritu da Galarran lanean, Itxaso Egizabal arkeologoaren zuzendaritzapean.

Arrasateko burdinaren historian izan zuen garrantzia -Arrasateko altzairuaren marka eza-guna izan zen mundu osoan- erakusten duten zenbait elementu topatu dituzte koban. Pikatxoak erabiliko zituzten lanerako eta horien adibide bat agertu da koban, baita burdina kobatik ateratzeko erabiliko zituzten otarren arrastoak ere. Zenbait pitxar ere aurkitu dituzte eta emakumeek zein haurrek urketari lanak egiten zituztela uste dute. Ehunka oinatz



AZEko eta Udaleko ordezkariak Galarran. Ezkerrean, pitxarretako bat. | JAVIER BENGOA

eta hatz marka daude eta gurutzeak ere aipatu behar dira; bi gurutze latindar mota aurkitu dira: trilobatuak eta sinpleak. Adierazpen horiek oso ohikoak ziren Erdi Aroko kantabriar erlatzean. Galarrako jarduna zehazki zein mendetako den ikertzeko dute oraindik.

### Ondarea babesteko neurria

Inazio Azkarragaurizar alkateak herriaren memorian meatzariak

apur bat ahaztuak daudela adierazi zuen atzo: "Aurkikuntza honek aukera emango digu gure historian gehiago sakontzeko, orduko meatzarien jarduna ezagutzeko eta garai hartako arrasatearren bizimoduaz gehiago jakiteko", gaineratu zuen. Itxitura jarri dute haizuloaren atarian: "Udaletik hartu dugun neurria izan da herriaren ondare hau babestea, aurkikuntzaren eremurako sarrera itxiz".

## Haurrasate ekimeneko lehen bilera egingo dute urriaren 9an

Haurrasate egitasmoaren lehen fasea hilaren 9an jarriko dute martxan. Lehen bilera egingo dute egun horretan; 18:00etan elkartuko dira Monterron parkearen azpiko zelaian. Lehen saio horretan, espazio irekiak eta pertsonen ongizatea izango dituzte hizpide: "Ingurumenarekin harreman osasuntsuak ardatz hartuta, espazio irekiak ongizaterako eremu gisa ulertzen ditugu; berdeguneak, parkeak... aztertuko ditugu". Umeendako zaintza zerbitzua egongo da.

## 'Udazkena sariz betea' kanpaina jarri du abian Ibai-Artek

Ibai-Arte elkarteak beste promozio bat jarri du abian azaroaren 15era arte: *Udazkena sariz betea*. Bezeroen fidelotasuna saritzeko asmoz, elkarteko kide diren saltokietan trukatzeko erosketa-txartelak oparitu ditu. Horretarako, 15 eurotik gorako erosketak Ibai-Arte txartelarekin ordaintzen dituzten bezeroen artean 50 eta 100 euro arteko erosketa-txartelak zozketatuko dituzte. 2.000 euro banatuko dituzte eta sariak azaroaren 16an banatuko dira.



# IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR



Ford Mugarri, Corralesen kontra, irailaren 21ean. | GOIENA

## Partidua irabaztea komeni zaio Ford Mugarri etxean

Maritxu Kajoi dela-eta, etzi, domeka, jokatuko dute partidua arrasatearrek, 12:30ean, Iturripen

UBANE MADERA | ARRASATE

Maritxu Kajoi egunak baldintzatutako hitzordua du Ford Mugarri Eskubaloi Taldeak domekan, Dominicos Zaragoza taldearen kontra. Baina, kasu honetan salbuespeneko egoera horrek etxekoei "mesede" egiten die. Hala adierazi du Andoni Arando ordezkariak: "Zapatu arratsaldean

tokatzen denean okerrago izaten da. Gainera, Zaragozakoendako euren ere zailagoa da. Ez da gauza bera Tolosatik etortzea edo Zaragozatik etortzea".

Partiduaren zailtasunari dagokionez, berriz, Arandok azpimarratu du nahiz eta domekako aurkaria une honetan azkena izan sailkapenean, denboraldia

hasi berri dela, taldeek oraindik ez dutela "elkar ezagutzen", eta gorabehera handiak izaten dituztela partidu batetik bestera: "Edozeinek edozeini irabaz diezaioke. Nahikoa da partidu batean 5-10 minutu txarrak izatea partidua galtzeko; edo egun txarra izatea, partidua galtzeko. Argi dagoena da etxean jokatzeko abantaila ematen duela, orain arte ia etxeko partidu guztiak irabazi egin direlako. Beraz, garrantzitsua da etxeko partiduak irabaztea eta kanpoan zerbait lortzea".

### Zaleei babes eskaria

Ildo beretik, Ford Mugarriren ordezkariak dei egin gura die zaleei domekan Iturripera joan daitezten, eskubaloi taldeari babesa erakustera.

Eta ez domekan bakarrik. Arandok aurreratu dio GOIENARI bihar zortzi (zapatu arratsaldean) Kantabrian dutela hurrengo partidurako hitzordua, Santonaren kontra. Eta hara joateko autobus antolatu behar dutela eskubaloi taldearendako.

Hala, hori aprobetxatuz, zaleei ere egin gura diete gonbitea Santonara eurekin joan daitezten. "Hasiera batean autobus txiki bat eramango dugu, baina zale asko animatuko balira, autobus handiagoa jarriko genuke".

Prezio berezia jarri dute hitzordurako: sarrera eta autobusa, 10 euro. Joan gura duenak Angel Moralejari eman behar dio izena, ahalik eta lasterren (autobus kontuengatik): 606 06 50 12.

## Korrika egiten hasteko taldea gura duenarendako saioak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

*Korrikan hastea nahi duzu eta ez dakizu nondik hasi? Laguntza behar duzu?* Galdera horiekin saiatu da Aukea korrika egin gura dutenak erakartzen; hasiberriak, bereziki.

### Saioak eta taldea

Hain justu ere, korrika egitea gustatuko litzaiokeen jendearendako ikastaro edo saioak antolatu dituzte, baina bakarrik irtetea atsegin ez duten horiendako edo korrika egiten ausartzen ez direnendako.

Hala, ildo horretan, eta zale-tasun edo nahi horren irtenbide moduan, korrikalarien talde bat sortu nahi dute Arrasaten.

Talde horrendako helburu gertukoa ere badute pentsatuta: Santamas krosa.

### Teknika eta entrenamendua

Ikastaroan, korrika egitearen teknikaz gainera, entrenamenduaren intentsitate eta funtsa ere erakutsiko dituzte.

Astean birritan, martitzetan eta eguenetan elkartuko dira, iluntzean, 19:30ean, eta hiru hilabetez.

Prezioa ere zehaztu dute: 30,95 euro hileroko bazkideendako eta 40,95 euro bazkide ez direnendako.

Informazio gehiago behar duenak Musakolako kiroldegira jo dezake: 943 77 16 77.

## Saskibaloi partidu erakargarria da Mondragon Unibertsitateak Eguesen kontra asteburuan duena

Mondragon Unibertsitateak etxean du oraingo asteburuko hitzordua, CB Valle de Egues taldearen kontra, 18:00etan, domekan. Bestela esanda, sailkapenean laugarren doan talderekin du lehia. Horrek esan gura du nahiz eta Mondragon Unibertsitatea sailkapenean lider izan, partidu parekatua izango dela. Izan ere, orokorrean, Lehen Nazional maila nahiko txapelketa lehiakorra da berez, eta horrek ez die atsedenerako tarterik utziko Larreategiren mutilei.

## Bihar, zapatua, Vallecasera joateko bidaia antolatu dute Arrasate Dragoi Txuri Urdinek

08:00etarako egin dute hitzordua, Garibaitik irteteko. Iragarri dute oraindik ere badituztela leku batzuk interesa dutenei begira. Prezioa 70 euro da (behin-behineko prezioa da, pertsona kopuruaren arabera), eta horren barruan sartu dute autobuseko bidaia bera eta partidurako sarrera. Partidua bera 18:00etan hasiko da. Gauzak horrela, asmoa dute egunean bertan etxera bueltatzeko, partiduaren ostean. Joan gura duenak honako helbidean eman behar du izena: [AEDtaldea@hotmail.com](mailto:AEDtaldea@hotmail.com).

# MUNDU OSOA ZURE AUTOAN

[www.citroen.es](http://www.citroen.es)



**CITROËN nahiago du TOTAL**  
Kontsumo mistoa (l/100 km) / CO2 isurtzea (g/km):  
CITROËN GRAND C4 PICASSO: 4,0-6,1/104-142



Stop&Start eHDi motorrak



Abiaduraren erreguladore aktiboa



Ukipenezko tableta integratua



SmartBeam argi adimendunak



360°-ko ikuspen kamara



Aparatzeko laguntza-sistema

## CITROËN GRAND C4 PICASSO BERRIA. TECHNOSPACÉ-A

Espainian fabrikatua



Citroën Grand C4 Picasso berriak C4 Picasso autoaren aukerak zabaltzen ditu: espazioa infinitu bihurtzen duten 7 eserleku eta etorkizunera hurbiltzen gaituen bidaia. Azken teknologiez osatua: haizetako panoramikoa, Stop&Start eHDi motorrak, aparkatzeko laguntza-sistema, ukipen-tableta integratua, nahi gabeko bide aldaketarako alerta sistema eta abiaduraren erreguladore aktiboa, beste ekipamendu batzuen artean. Grand C4 Picasso berria mundu oso bat bertan gordetzeko auto perfektua da. Unibertsoan bidaia zorientatua izan.

CRÉATIVE TECHNOLOGIE



Etor zaitez ikustera:  
Debagoieneko CITROËN Kontzesionario Ofiziala:

**TALLERES CHAPIME**, San Andres 5, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22

## arbolapeta



# beinke

# Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

# Sili Sili

## Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

# Zuzeneko saioak ardatz urriko kultura agendan

Ohiko zinema emanaldiez gain, urrian antzerki, kontzertu eta operak garrantzi berezia izango dute

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Aste honetan hasi dugun hileko kultura agendaren pisu nabarmenena antzerkiak izango du. Izan ere, Kultura Saitetik antzerki eskaintza zabala prestatu dute urrirako, gazte zein helduei zuzendutakoa. Dena den, eta hilero legez, beste ikuskizun batzuetarako lekua ere egongo da: zinema, erakusketak, musika...

Esan bezala, gazte zein helduei zuzendutako antzerkia egongo da, eta, kasu honetan, nagusiak izango dira lehenak. Vaiven taldearen *Terapias* antzezlanaz gozatzeko aukera izango da urriaren 6an. Gaztetxoek, astebete geroago, 17:00etan, antzinako kondairak ezagutuko dituzte *Sutondoan* lanari esker.

## Zinema eta musika

Dena den, eta aurretik aipatu bezala, antzerkiarena ez da urriko kultura eskaintza bakarra izango. Hil osorako hainbat zinema emanaldi antolatuko dituzte.

Oso eskaintza zabala egongo



*Terapias* antzezlaneko une bat. | VAIVEN TALDEA

da. Txikiek lau film izango dituzte eta nagusiek zazpi; tartean, Zinemaldian aurkeztu zen *Ama-aren eskuak* filma.

Musikak ere bere lekutxo izango du: hilaren 19an, *El sueño de una noche de verano* dantzaldia hartuko du Amaiak eta urriaren 26an JC Brooks & Uptown Sound-ek soul doinuak ekarriko ditu antzokiko *hall*-era.

## Opera hil amaieran

Operarik entzutetsuenetako batekin gozatzeko aukera izango dute zaleek urriaren 30ean Amaia antzokian. Ozenki elkarte lirikoaren eskutik, Opera 2001 taldeak *La Traviata* antzeztuko du Pleven-go (Bulgaria) orkestra sinfonikoarekin. Sarrerak Kutxabanken eta antzokiko txartel-leihatilan eros daitezke 30 euroren truke.

## Hilabete honetan abiatuko dituzte Literatura Solasaldiak

I.G. | ARRASATE

Udal Bibliotekak aurtengo ikasturteko Literatura Solasaldiak abiarazi ditu eta zabalik dago izena emateko epea, euskarazkoetan eta gaztelarazkoetan. Bibliotekan daude aztertuko dituzten liburuak.

Antzerkia izango dute oinarri gaztelarazko solasaldiek eta askotariko lanak, berriz, euskarazkoetan; aurtengo berrikuntza da komiki bat ere aukeratu dutela.

### Autoreak bertatik bertara

Garazi Arrula Ruizek koordinatuko ditu eguztetenetan Kulturaren 18:30ean izango diren euskarazko saioak. Brigit Val-

derbekeraren *Muskuluak afaltzeko* da aukeratutako lehen (urriak 30), Jose Carlos Fernandez-en *Munduko bandarik txarrena* komikia bigarren aztertuko dutena eta Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat*, berriz, hirugarrena; Meabe ere solasaldian izango da.

Aitor Mazok gidatuko ditu urriaren 20an hasiko diren martitzenetako gaztelarazko solasaldiak. Mazok Patxo Telleriarekin batera idatzi eta zuzendutako *Torito Bravo* lana da aztertuko dutenetako bat; horrez gainera, William Shakespeare-ren *La Tempestad* eta Dario Foren *Muerte accidental de un anarquista* daude.

## Inoizko matrikulazio handienarekin ekin dio Arrasate Musikalek ikasturte berriari

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasate Musikalek hasi du 2013-2014 ikasturtea. Pozik eta gogotsu ekiteko albiste batekin hasi dute, gainera: matrikulazioa 605 ikasle izatera heldu da. Musika Eskolaren ibilbide osoan izan den kopuru handiena da. Eskaintza 20 espezialitate baino gehiagotan mantentzen da,

eta, orain arte bezala, askotariko musika estiloak ikasteko aukera dago.

40 urteren ostean matrikulazioa 600 ikaslelik gorakoa izatea "benetan pozgarria" dela diote: "Ikasle kopuru honek gure talde guztiak bizirik mantentzen eta urteko erronkak lortzen laguntzen digu".

**ALDEDI**

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

# Autokarabanendako gunea, politikarien soldatak eta karkabak, bilkurako gaiak

Autokarabanendako gunearen erabilera arautzeko ordenantza egin dute

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Iraileko ohiko osoko bilkura izan zen astelehenean, eta, beste gai batzuen artean, Labegaraietako autokarabanendako zerbitzugu-nearen erabilera arautuko duen ordenantza onartu zuen udalbatzak aho batez.

Udalak herriko turismoa sustatzeko ahaleginean egokitutako gune horrek, autokarabanak aparkatzeko gune bat du eta baita ur-hartuneak ere, eta hasiera baten, behintzat, dohainekoa izango da.

Gehienez astean hiru eguneko aparkaldia egin ahal izango dute autokarabanek lekuan-jarrailuak edo jarrailu gabeak- eta aparkaldiko denbora gaindituz gero, horri dagokion zigorraz gain ibilgailua erretiratzea ere ekar dezake. Azken baten, gunearen helburua turistikoa da eta Udalak ez du nahi desegoki erabiltzea.

## Soldatak eta hondakinak

Zerrendako gai guztiak aho batez onartu baziren ere, alkateak politikarien soldaten harira egindako jakinarazpenak eta eskaera eta galderen atalean EAJ alderdiak egindako hondakinen gaineko eskariak eztabaida eragin zuten.

Uztaileko osoko bilkuran politikarien soldatak eragindako eztabaidaren haritik, Jaione Isazelaia alkateak 2004-2014ko epealdiko urtez urteko politikarien gastuen zerrenda banatu zien udalbatzako ordezkari guztiei. Izan ere, EAJ alderdia kexu da "soldatetan hiru liberazio oso" daudela gaur egun, "sekula egon ez dena. Zuek sartu zaretenetik gastuak igo egin dira eta baita soldatak ere. Eta hori guretzat onartezina da krisi garai honetan", esan zuten EAJko zinegotziek. Era berean, udal politikarien gastuen zerrenda alkateak bilkuran bertan eman izanaz ere kexatu ziren.



Labegaraietako autokarabanendako gunea. | GOIENA

Isazelaia alkateak, berriz, informazio hori guztia [www.bergara.net](http://www.bergara.net) webgunean herritar guztiak kontsultatzeko moduan dagoela esateaz bat, erantzun zien "kudeaketa ona egiteko" daudela hiru liberazio oso, eta zera gehitu zuten: "Gastuak igo baino jaitsi egin ditugu eta hori Udalarentzat ona da". Horrekin batera azaldu zuten hiru liberazioetako baten kargu euren alderdia, Bildu egiten dela".

Hondakinei dagokienez, EAJko zinegotziek zenbait eskari egin zizkieten Gobernu Taldeari. "Atez atekoa ezartzea erabaki duzue, eta datuak eskatu nahi ditugu; bideragarritasun ekonomikoa ezagutu nahi dugu", esan zuten Aintzane Oiarbidek.

Uztaileko osoko bilkuran bezala, alde zaharreko karkabak ere ekarri zituen gogora eta

## Gunearen helburua turistikoa da eta Udalak ez du gaizki erabiltzerik nahi

azpimarratu zuten "gune historikoan hondakinak biltzeko kokaleku bezala erabiltzea ez" dutela egoki ikusten, "Ondare Historikoaren aurkako erabakia" delako, "osasun neurriak beteko dituen zalantzak" dituztelako eta zenbait dekreturen aurkakoa" delako. Era berean, abuztuan osasun txostena, udal txostena eta Jaurlaritzaren txostena eta Jaurlaritzaren txostena eskatu zituztela ere gehitu zuten, baina ez dutela halakorik jaso.

Osasunari dagokionez, Isazelaia alkateak arazorik ez dagoela azaldu zuten "Udaleko idazkariak egindako txostenean" jasotzen den moduan, eta txosten hori EAJko ordezkariari helarazi zitzaizela ere gehitu zuten. Horrekin batera, Ondare Historikoari dagokionez, karkabetan jartzea aurreikusita dagoen esekitoki sistema ez doala inongo dekreturen kontra ere gehitu zuten, "udal arkitektoak egindako txostenak jasotzen duen moduan", eta txosten hori Hirigintza batzordean zein EAJko ordezkariari idatziz pasa zitzaizela ere gehitu zuten.

Jaione Isazelaia | Alkatea

## "Herritarrengandik jaso nahi ditugu bideragarriak diren ideia eta proiektuak"

Idea zaparrada lehiaketa abiatu du Udalak; urriaren 21a da proposamenak aurkezteko epea

T.M./M.B. | BERGARA

Jaione Isazelaia alkatea Goiena telebistako *Magazinea* saioan elkarrizketatu zuten eguaztenean. Udalak herria hobetzeko asmoz antolatu duen Idea Zaparrada ekimenaren gainean berba egitera joan zen.

### Zer dela eta ekimen hori?

Jakina da krisi garaian gaudela eta ez dugu baliabide nahikorik gure nahiko gurek guztia egiteko. Eta hori dela eta, bururatu zitzaigun martxan jartzea ideia lehiaketa hau. Helburua da herritarrengandik jasotzea hainbat proiektu edo ideia herrian bideragarriak izan daitezkeenak. Beharbada, ez da diru askorik egongo, baina pentsatzen dugu iragazkioarekin posible dela gauza politikak egitea.

### Teknologia berrikin guztiz lotuta dago.

Bai, erabat, eta aprobetxatu nahiko gurek baita ere herritarrek animatzeko teknologia berriak erabiltzera. Herritarrek etortzen dira, normalean, euren ideia, kezka zein iradokizunekin Udalera, baina gure nahiko genituzke bultzatu beste harreman forma batzuk, presentzialak ez direnak. Gaur egun badakigu zaila izaten dela denbora tarte bat hartzea halako lekuetara hurbiltzeko, eta nahiko gurek herritarrek Udaletik hurbil sentitzea, eta bitarteko teknologikoak nahi ditugu aprobetxatu horretarako.

### Ze-nolako ideia eta proiektuen bila zabilzate?

Edozein arlotakoak izan daitezke: hirigintza, nola sustatu parte-hartzea, nola bultzatu birziklatzea, nola hobetu komunikazioa, jaiak...

### Idea diozuenean, zer bilatzen duzue?

Adibide bat emango dizut. Kaleko iturrietatik ura edaten dugunean busti egiten gara, gehiengotan. Bada, ideia bat izan daiteke hori ez gertatzeko txorrotak



Jaione Isazelaia. | IMANOL GALLEGU

aldatzea. Eta hori oso modu sinplean adieraz daitezke: argazkia ateratu iturriari eta deskribapena egin WhatsApp, Facebook edo Twitter bidez. Horrekin batera, bideo labur bat ere eskatzen dugu, edozein mugikorrekin egiteko modukoa. Esan bezala, azalpena laburra izango da, baina argia izatea ere eskatzen dugu, gero webgunean zintzilikatuko ditugulako.

### Proiektuen kasuan, garatuagoak eskatzen dituzue.

Proiektu baten atzean ideia bat dago, baina landuagoa. Deskribapen sakonagoa eskatzen dugu, planoak, aurrekontua... [www.bergara.net](http://www.bergara.net)-en zintzilikatuta dauden baldintzetan oso ondo azaltzen da guztia.

### Eta nola har daiteke parte?

Udalera hurbilduta edo on-line. Eta izan daiteke *whatsapp* bidez zein *facebook* edo *twitter* bidez: Bergarako Udala jarri batean zein bestean eta bertan mezua laga, urriaren 21a baino lehen.

### Sariak ere egongo dira.

Proiektuen kasuan potoloagoak izango dira. Hau da, proiektuaren %30 eta gehienez 3.000 euro. Eta ideiarik onenak, 300 euro.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09



## BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

*Sukalde eta bainu enzimarak*

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77

## Sugoi

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
943 76 59 54 BERGARA



## 'Asturias eta Euskal Herria' topaketak gaztetxean

O.E. | BERGARA

Egitarau mardula osatu dute asteburu honetan Bergarako gaztetxean. Gaur, egubakoitza, Jonny Gerriewelt eta Vibradores taldeen kontzertua egongo da. Ondarrutik etorriko da Jonny Gerriewelt, eta, denbora batez zuzenkorik jo gabe egon ostean, Bergarako kartzela zaharreko agertokira igoko da gaur gauean. 23:00etan hasiko da kontzertua eta 3 euro da sarrera.

### Asturias - Euskal Herria

Bihar eta etzi, berriz, *Asturias eta Euskal Herria* izeneko topaketak egingo dituzte, Ixuxu taldearekin batera. Bihar, Asturiasko bi talderen rock kontzertua egongo da, 22:30ean. Domekan, *Asturies DIY* ikus-entzunezkoa emango dute, solasaldiarekin batera.

# Kafekonpon, traste zaharrak konpondu eta berrerabiltzeko egitasmoa

Aparailuak konpontzen trebeak diren herritarrekin batera jarriko du martxan Udalak datorren astean

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Kafekonpon egitasmoa jarri du martxan Udalak. Hau da, matxuraturako etxeko aparailuen konponketa egin eta berriro ere erabilgarri izateko moduan jartzea aparailu hori.

### Berrerabili

Udaleko ordezkariak azaldu duten moduan, gaur egungo gizartearen oso zabaldua dago zerbait apurtuz gero berria erosteko ohitura; apurtutakoa konpondu beharrean, berria erostea, alegia. Bada, horri irtenbidea eman guran, eta batez

ere berrerabilpena sustatzeko helburuarekin, Kafekonpon egitasmoa jarri du martxan Bergarako Udalak berak.

Proiektu horren helburua da berrerabilpenaren filosofia zabaltzea, Udaletik jakinarazi dutenez. "Askotan, etxean ditugun tresna txikiak (arropa litzateko plantxa, erlojua, ilea lehortzekoa eta antzerakoak, esaterako) apurtzen zaizkigunean, bota egiten ditugu. Ez dugu denbora luzerik hartzen konpontzeko ahaleginak egiten. Eta egitasmo honekin horixe nahi dugu, traste zahar hori konpon-



Etxeko ordenagailua konpontzen. | DIGITALPCACHUCA.BLOGSPOT.COM

tzea, berriro erabiltzeko", azaldu du Nagore Narbaizak, udal teknikariak.

### Konpontzen trebeak

Horrela, tresnak konpontzen trebeak diren herritarrekin batera jarri du martxan Udalak Kafekonpon egitasmoa. "Asmoa da, hilean behin, herritarrek hondatu zaizkien tresnak eramatea leku konkretu batera eta horiek konpontzen trebeak diren beste herritar batzuen esku uztea, haiek konpon ditzaten", azaldu du Nagore Narbaizak.

San Xosepe elkartearen egingo dute topaketa hori. Hileko bigarren martitzenetan elkartuko dira, hain zuzen, erretiratuen egoitzan, aspaldi ganadu feriak egiten zituzten egun berean, alegia. Hilabete honetan egingo dute lehendabiziko aldiz; datorren astean, urriaren 8an, 16:00etatik 18:00etara.

Egitasmo hori Europako hainbat tokitan egiten dute eta *Cafe Repair* izenarekin ezagutzen da. Bergarara ekarri dute orain, eta Kafekonpon izenarekin jarriko dute martxan hilabete honetan.

## Egun osoko jaia egingo dute Espoloian bihar, zapatua

O.E. | BERGARA

Jaiak ospatuko dituzte, hirugarrenez, Espoloian asteburu honetan. Egun osoko egitaraua prestatu dute biharko.

Goizean, 12:00etan, umeendako jolasak egongo dira eta ondoren, ume handiendako. Txosnaren irekierarekin batera izango da hori. Horrez gain, triki-poteoa, bazkaria, karaokea, mus txapelketa, erromeria eta DJ emanaldia ere antolatu dituzte.

Umeen jolasak bukatzean Espoloitxo jaitsiko da auzora. Bazkaria 14:30ean egingo dute eta txartelak salgai daude auzoko komertzio eta tabernetan: Keros, Anezka, Kane-la, Zuhazti eta Hamaika. Erromeria 21:30ean hasiko da eta DJa, gauerdian.



JOSE LUIS BEITIA

## Duela 25 urte futbolearen lortutako garaipena berriz ospatuko dute gaur

Erregional txapelketa irabazi zuen Bergarak 1987-1988 denboraldian

O.E. | BERGARA

Bergarak irabazi zuen, duela 25 urte, Gipuzkoako Futbol Federazioak lehenengo aldiz antolatu zuen bigarren erregional mailako liga txapelketa. Gaur, egubakoitza, afaltzeko elkartuko dira talde hura osatu zutenak: jokariak, entrenatzaileak, delegatua eta zuzendaritzako kideak. Sagarpen egingo dute afaria.

### Talde orekatua sortu zuten

Iñaki San Jose zen orduan Bergara Kirol Elkarteko presidentea. "Hark erabaki zuen talde bat sortzea txapelketa horretarako, eta egin genuen. Gogoan dut azken momentura arte ibili ginela ezin taldea sortu, baina talde orekatua egin genuen azkenean", gogoratzen du orduko entrenatzaileetako batek, Jose Luis Beitiak. Beste

entrenatzailea Luis Oregi zen eta delegatua, berriz, Pedro Aiastui. 1987-1988 denboraldia zen eta lehen sei partiduetan ez genuen

garaipenik lortu. 12 talde ginen lehian eta azken partidua Donostiako Loiolan jokatu genuen. Bukatzeko bi minuturen faltan

berdindu genuen partidua, eta horrelaxe bihurtu ginen txapel-dun", gogoratzen du Beitiak.

Orditik hona harremana izan dute euren artean eta 25. urteurrenaren harira berriro guztiak elkartzea pentsatu zuten. "Egun, 43-47 urte bitartean dituzte lehenengo jokalarri haiek eta lan eta familia kontuengatik ezin izango dira denak etorri, baina askok eman dute baiezkhoa", dio Beitiak.

## OHARRAK

### PALMERAKOAK

Irteera gogorra egingo du domekan. 09:00etan igerilekuan elkartuko dira eta gero argazkia aterako dute Palmeran.

### KINTADAK

1960an eta 1967an jaiotakoek kintada dute 19an. Lehenengoek Igarza harategian izen-ematea; besteek, Elkar-en.

**UGARTE**  
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

**ARROZTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

**BERGARA**

**TELEIXA**  
**BILTEGIAK**

**Eraikuntza**  
**materialak**

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93

**TOKI-ONA**  
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak  
Txitxizotzak  
Kazolatxoak  
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA  
Tel.: 943 39 53

# Artistaren amildegia azaleratzen duen erakusketa Aroztegin

Umetatik margolaria izan denez, Bingen de Pedro pauso bat harago joan da

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Pintura, eskultura, arkitektura... dimentsio bat, bi, hiru... guztia nahasten da Aroztegi aretoan. Bingen de Pedrok gazte ekin zion bere sormena mihise batean irudikatzeari, eta, ordutik hona, pinturak dituen mugak gainditzen eta haiekin jolas egiten sortzen ditu bere lanak.

Aroztegi aretora 20 lan ekarri ditu, eta, bere burua margolaritzat jotzen duen arren, elementu askok beste arte mota batzuetako elementuak dirudite. "Egia da nire lanak margoak izan arren, haiekin egiten ditudan muntaiei esker eskultura edo arkitektura lanen antza har dezaketela", dio De Pedrok. Kurioso da elementu klasikoaren konbinazioen bitartez Bergarako artista honek ikusleei proposatzen dizkien perspektiba jolasak.

## Bakarkako lehen erakusketa

Ibilbide luzeko margolaria izan arren Aroztegi aretoko hori, bakarka egin duen bere lehen erakusketa da: "Aurretik talde-kako erakusketak baino ez ditut egin". Horregatik, hau mimo bereziarekin egin du: "Aste osoa Aroztegin igaro dut obra bakoi-tzaren tokia aukeratzen", eta emaitza erraz ikus daiteke.

De Pedrok bere egin du erakustokia, bere lanen bolumenen laguntzarekin ibilbide anarkiko eta ausarta proposatzen dio ikusleari: "Labirinto itxura eman nahi izan diot". Esan eta egin, logikotasunik eza nabari da Aroz-



De Pedro bere lan baten aurrean. | AITZIBER ARANBURUZABALA

tegi aretoan. Ibilbidea, lana, ikuspuntua... guztia arau jakin gabe unibertso harmoniatsua baten parte da. Kaosaren edertasuna aurkitu duela dirudi.

## Barne katarsia

Artistak onartzen du horrelako erakusketa batekin bera biluzten dela: "Nudismoa dirudi, nire sena hemen erakusten dut-eta". Hala ere, egindako lanaren emaitzarekin pozik dago, eta, lotsarik gabe, bere lanak herrian eta kanpoan izan duen harrera beroaz oso harro dago.

## Apurtzailea den klasikoa

Teknika, polikromia... bere lanaren elementuak bakarka hartuz gero, klasikotzat har dezakegu De Pedro, baina, lana aurkezteko orduan, bergararrak artista gutxi lortzen duten emaitza lortu du. Bere lana tokiaren testuinguruarekin lotzea lortu du.

Txillidak espazioarekin eta bolumenarekin jolas egiten zuen, eta De Pedrok ere antzerako zerbait egiten du. Bere lanetan egiten duen nahasketekin gertatzen den moduan, De Pedro abangoardista den klasikoa da.

## Komiki tira eta liburuak idatzi ostean, hil honetan aurkeztuko du Jon Suinagak lehenengo eleberria

Jon Suinagak (Bergara, 1967) lehen eleberria aurkeztuko du urriaren 23an Donostiako Koldo Mitxelena. *Allende los mares* dauka izena liburuak eta XV. mendean dago kokatuta. Eleberri historikoa da eta krimen bat dago tartean. Liburuaren azala Rikardo Azkargorta artista bergararrak egin du. Donostiako aurkezpenaren ostean, urriaren 30ean Bergaran aurkeztuko du eta Elkar liburu dendan liburu sinatzen egongo da egilea. Dagoeneko, baina, Interneten eros daiteke 16 euroren truke.

## Jardun elkarteak 8-12 urteko gazteei zuzendutako asteburuko aisialdi eskaintza aurkeztuko du

Ate irekien saio hori bi asteburutan izango da: lehena bihar hasiko da eta hurrengoa, astebete geroago. Zapatuan eta domekan, 17:00etatik-20:00etara, Zubietako eskola zaharreen eskulanak, antzerkia, sukaldaritza eta milaka ekintza desberdin egingo dituzte. Guztiak ere, gazteei aisialdi sano eta euskalduna posible dela erakusteko. Bi aste bukaera horietako saioek urte osoan zehar izango duten eskaintza erakusteko balioko dute. Zu, gazte, animatu eta gerturatu!

## Urritik abendura bitartean ordutegi berria izango du udaletxean dagoen Turismo Bulegoak

Udako turismoaren gorakadaren ostean, Turismo Bulegoak bere ordutegia egokitu du. Urriaren 18-19ko aste bukaera izan ezik, gainontzeko jaiegun guztietan zabalik egongo da, azaroan 1ean, 2an eta 3an soilik zabalduko dute eta abenduan, berriz, 6an, 7an eta 8an. Larunbatetan 10:00etatik 14.30era eta 15:30etik 18:30era egongo da zabalik eta domeketan nahiz jaiegunetan 10:30etik 13:30era. Egutegitik kanpo bisitak hitzartzeko 943779183 telefonoa eta [turismoa@bergara.net](mailto:turismoa@bergara.net) helbidea jarri dituzte.

## Erretiratuentzako informatikako eta osasunaren eta ongizatearen inguruko ikastaroak San Joxepen

Urria eta abendua bitartean San Joxepe elkarteak informatika eta osasun eta ongizatearen inguruko sei ikastaro eskainiko ditu. Ikastaroak goiz eta arratsaldeetan izango dira. Informatikan hastapenetatik hasi eta sare sozialetan murgiltzeko ikastaroak egongo dira. Ongizateko ikastaroak, aldiz, *Adimena martxan jartzea*, *Irribarre batekin esnatzea* eta *Aktiba zaitez* izango dira. Ikastaroak eguaztenean hasi ziren eta guztiak egoitzan bertan izango dira.

## Humberto DJak girotuko du gaztetxoentzako Zabalotegi aretoan urrian egingo den lehen festa

Nerabe eta gazteendako DJ jaialdia antolatu dute Zabalotegi aretoan urriko lehen eta hirugarren zapatuetarako. Biharko saioan Humberto DJak eskainiko du, eta bertan, moda-modako abestiak entzun eta dantzatuko dituzte gaztetxoek. Orain arte bezala, DJ jaialdi horiek 18:30etik 21:30era arte iraungo dute eta guztiak doakoa izango dira. Bergaran bizkor erroto den ekintza da hori, eta 15 egun geroago, Zabalotegik hil honetako bigarren emanaldia hartuko du. Animatu dantza egitera!

## 'Giza irudiaren marrazketa, modelo biziarekin' ikastaroa antolatu du Beartek urri eta azarorako

Ikastaroa bi hilabete hauetan emango da, astelehenero, 19:00ak eta 21:00ak bitartean. Irakaslea Maite Arriaga eibartarra izango da. Ikastaro hori giza irudia marrazteko interesa duten guztiei zuzenduta dago, baita Arte Ederretako ikasleei ere. Tailerlean, giza irudia definitzen eta hiru dimentsioko forma nola sakondu ere azalduko diete ikasleei. Prezioa hilean 35 euro izango da. Modeloari eskoletara doazen ikasleen artean ordainduko diote; guztira, 12 euro ordu bakoitzeko.

## Oihulari klown taldeak 'Klown eta arnas' ikastaro dinamiko antolatu du datorren aste bukaerarako

Ikastaro irekia izango da eta taldearen Aibar baserrian antzezle amateur eta profesionalak batuko dira. Ikasleak, era dinamikoan, *clown* kodean barneratuko dira. 12-13ko aste bukaeran hamazortzi orduko ikastaroa eskainiko dute. Parte hartzaileek, gainera, baserrian igaroko dute asteburua. Izena eman nahi dutenek [oihulariklown@oihulariklown.org](mailto:oihulariklown@oihulariklown.org) helbidea erabil dezakete edo 607204503 eta 943769790 telefono zenbakiak.

## 'Peter Pan' ikusteko autobus zerbitzua

I.G. | BERGARA

Hilaren 26an *Peter Pan* Musikal magikoa Donostiako Kurasaalean antzeztuko dute. Egun berean izango dira bi emanaldiak, 16:30ean eta 19:30ean. Hara joateko, Pikupe Produzioek autobus zerbitzua antolatuko dute.

Irteerak Bergaratik 15:00etan eta 18:00etan eta itzulerak 19:30ean eta 22:30ean izango dira; dena den, bailarako beste herri batzuetan jendea apuntatzen bada, posible da irteerak beste herrietatik ere egitea. Zerbitzua 11 euro da. Izena Pikuperen bulegoetan, 943764227, 618789168, 639471863 zenbakietan eta [pikupe@pikupe.com](mailto:pikupe@pikupe.com) helbidean eman daiteke. Urtarrilaren 3an, *Peter Pan*-ek Baluartera egingo du hegan.

## Angiolilloren bigarren edizioa datorren astean

I.G. | BERGARA

Irailaren 7an Angiolillo egin zizaion omenaldiaren barruan, Aitor Arantzabalek idatzitako *Angiolillo* liburuaren bigarren edizio berritu osoagoa muntatu zuten.

Bigarren edizio horrek 300 ale izango ditu eta aurreko liburuan zuen prezioa mantenduko du, 4 euro. Edizio berri horretan, euskara gehiago zaindu dute eta Koldo Izagirrek Puig Antichen omenez idatzitako hiru poema daude. Atal berri hori ez da liburuaren edizio horrek izango duen berrikuntza bakarra: Fly Shit taldearen hiru abesti ere izango ditu, eta lehen edizioa aurkeztu zenean Arantzabalek kontatutako liburuaren historia eta nondik norakoak ere txertatu zituzte.

Gauzak horrela, eta bigarren edizio horrek duen material estra guztia kontuan izanda, liburu berrituak 20 orrialde gehiago izango ditu.



Liburuaren azala. | LIBURUTEGIA

## Datorren astean salgai

Liburu oraindak zehaztu gabe dauden herriko zenbait taberna eta dendatan salgai egongo da. Bigarren edizio berritu hori erosteko, baina, inprentatik jakin-razi digutenez, astebete itxaron beharko da.



Klaxk taldeko Anton Azpiazu, interpretazio zentroa egongo deneko lokalean. | TXOMIN MADINA

# Kakaotik txokolatea lortu arteko sekretu guztiak interpretazio zentroan

Hasi dituzte lokal berriko lanak Kale Barriko 29. zenbakiko beheko solairuan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Klaxk Oñatiko txokolateroen elkartearen ametsak pauso bat gehiago eman du. Txokolatearen interpretazio zentroa hartuko duen lokalean hasi dituzte lanak egiten: Kale Barriko 29. zenbakiko beheko solairuan egongo da. Egungo Txokolateixaren parean eta garai batean Chocolates Orbea fabrika egon zen leku berean.

Interpretazio zentroa oraingoa baino askoz handiagoa izango da eta txokolatearen prozesu osoa ezagutzeko aukera emango du: kakaotik hasi eta txokolatea egin arteko bidea.

## Tradizio handia

Txokolatearen interpretazio zentroak lau ardatz nagusi izango ditu: kakaoa, txokolatea, Oñati eta kultura. "Kakaoa eta txokolateak ezinbestekoak dira txokolateari buruzko interpretazio zentro baten. Guk Oñati eta kultura gehituko dizkiegu. Oñatik tradizio handia duelako txokolatearekin, eta kulturen ere parte hartze zuzena izan duelako txokolateak", esan digu Klaxk taldeko kide Anton Azpiazu.

Guretik kanpo Oñati *Villa Chocolatera* moduan ezagutzen dutela esan digu Azpiazu: "Lotura estua dute biek, eta lotura hori oso ezaguna da hemendik kanpo. Gainera, oñatiar gehienok izan dugu edo dugu txokolatearekin hartu-eman zuzena izan duen etxekoren bat, ezagunen bat edo lagunaren bat. Oñatik eta txokolateak betidanik izan duten hartu-emana mantendu behar dugu. Txokolatearen usaina berreskuratatu behar dugu".

## Usaindu, ukitu, entzun...

Egungo Txokolateixaren jardura nagusia denda da. Txokolate mota asko erosteko aukera dago han: txokolate zuria, beltza, esneduna, bonboiak, kakaoa eta beste. Bestalde, hala nahi duten guztiei txokolatearen gaineko azalpenak eman izan dizkie Azpiazu. Bada, Txokolateixia txiki-gia zenez, kanpoan dagoen pergolan eman izan die azalpenak ikastetxetako ikasleei, turistei edo herritarrei. "Interpretazio zentroa gertu dagoenean, han bertan emango ditugu azalpenak. Produktuak erosteko aukera egongo da dendan, eta baita txokolatea gertuago ezagutzeko aukera ere bai".

Baina zertan datza kakaotik txokotea egin arteko prozesua? "Kakaoa erakusten dugu lehengo eta txokolatea bukaeran. Tarteko prozesuan txokolatea usaintzen, ukitzen, dastatzen eta entzuten erakutsiko dugu. Txokolatearen sekretu guztiak", dio Azpiazu.

## Kulturari keinua

Txokolatearen interpretazio zentroa elkarlan baten ondorio zuzena da. Oñatiko Udalak ordainduko du lokalaren alokairua, Natra Oñatik ipiniko du txokolatea eta Klaxk elkarteak apaindu eta kudeatuko du gunea. Eta apainketan egingo diote erreferentzia kulturari: ziklismoko eta saskibaloiko kamisetak, Everestera igo zeneko Tximist espedizioaren erretratuak, txokolatea oinarri duten pelikulak, musika...

Egungo Txokolateixan ere apainketak garrantzi handia dauka: herrian antolatzen diren ekintzekin girotu izan du erakusleioa: herriko jaiak, Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia, Aloñako Igoera, duatloia, saskibaloia, Gabonak...

## Langabeak

Duela egun batzuk hasi dituzte interpretazio zentroa izango den lokala egokitze lanak. Han dihardute Debagoieneko Mankomunitatearen Enplegu Planaren bidez kontratatuko langabeak. 20 eta 30 urte arteko gazteak dira eta eraikuntza mantentze-lanen alorreko hainbat lan egingo dituzte sei hilabetean, *Gazteak prest lanerako Debagoiensean* izeneko prestakuntza programan.

# Emakumeen topaketarako gunea laster Andraitzekin

Formaziorako eta gogoetarako lekua ere izango dute Oñatiko Jabekuntza Eskolaren eskutik

M.B. | OÑATI

Andraitz taldeak emakumeen topaketarako, formaziorako eta gogoetarako gunea sortu du: 2013-14 ikasturtean Oñatiko Jabekuntza Eskola ipiniko du martxan. Herriko emakume guztiendako tailerrak, hitzaldiak eta mahai-inguruak antolatuko dituzte urritik ekainera arte. "Emakumeen Jabekuntza Eskolak, elkar eta elkarrengandik ikasteko, emakumeon arteko harremanak saretu eta bultzatzeko, eta ondo pasatzeko topalekua izan nahi du", diote antolatzaileek.

## Izen-ematea zabalik

Jabekuntza eskolak lau ardatz izango ditu: batukada feminista, emakumeen auto-egaztuzarako tailerra, dantza afrikarrak eta *Bizitzaren labirintoak, dolua eta krisi egoera* delako tailerra. Dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea. Lekuak mugatuak direnez, Oñatiko emakumeek

izango dute lehentasuna. Interesatuek Andraitzeko lokalean (San Juan kalea 5, behea) edo [a.jabekuntzaeskola@gmail.com](mailto:a.jabekuntzaeskola@gmail.com) helbidean eman dezakete izena, urriaren 15era arte. Langileek 30 euro ordaindu beharko dituzte; langabe eta ikasleek, 15.

## Zapatuetan

Batukada feminista zapatuetan elkartuko da Eteo zaharrean. Urriaren 19an, azaroaren 16an eta 30ean, abenduaren 21ean, urtarrilaren 18an, otsailaren 15ean, martxoaren 22an, apirilaren 12an, maiatzaren 17an eta 31n eta ekainaren 14an. Bestalde, emakumeen auto-egaztuzarako tailerra kiroldegian egingo dute. Urriaren 26an, azaroaren 23an, abenduaren 14an, urtarrilaren 25ean, otsailaren 22an, martxoaren 15ean, apirilaren 5ean, maiatzaren 10ean eta ekainaren 14an.

Beste bi ekintzak 2014an egingo dituzte.

## Aizkorri-Aratz lerroko ehiza postuen zozketa hasiko dute urriaren 4an Oñati tabernan

Aizkorri-Aratz lerroan dauden ehiza postuak zozketatuko dituzte urriaren 4tik aurrera: Oñati tabernan egingo dute zozketa egunero (astelehenetik egubakoitzera). Izen-ematea 19:30etik 20:00etara bitartean izango da, eta ondoren egingo dute zozketa. Derrigorrezkoa izango da ehizarako txartela aurkeztea. Pertsona bakoitzak txartel bakarra aurkeztu ahal izango du.

## Xaboiak eta ukenduak egiten ikasteko ikastaroa antolatu du Lavandulak azaroaren 23rako eta 24rako

Lavandulak artisau-xaboiak eta artisau-ukenduak egiten ikasteko ikastaroa antolatu du azaroaren 23ko eta 24ko aste bukaerarako. Zubillaga auzoko 38an elkartuko dira. Interesatuek izena eman dezakete [lavandula.xaboiartisanak@hotmail.com](mailto:lavandula.xaboiartisanak@hotmail.com) helbidean edo 679 44 60 85 (Ainhoa) edo 699 11 10 37 (Ainara) telefonoan. 90 euro ordaindu beharko dira ikastaroan parte hartzeko.

## Matrikulazio epea zabalik dauka Txiki Txoko haurtzaindegiak, urriaren 10era arte

Txiki Txoko haurtzaindegiak zabaldu du dagoeneko matrikulazio epea. Urriaren 10era arte eman dezakete izena 2012an eta 2013an jaiotako umeek. Interesatuek haurtzaindegira joan beharko dute astelehenetik egubakoitzera, 07:30etik 17:00etara arte. Matrikula orain egiten duten umeek 2014ko urtarrilean, otsailean edo martxoan hasiko dituzte eskolak.

## Argia kenduko dute San Lorentzoko hainbat bebarrutan urriaren 11n, 00:05etik 07:00etara arte

Urriaren 11n argia kenduko dute San Lorentzoko hainbat bebarrutan gauez, 00:05etik 07:00etara arte. Argia kenduko duten atarrietan oharra ipiniko dute datozen egunetan. Etxebizitza horien garajeetako argia ere moztuko dute. Argi-mozketa San Lorentzoko bigarren transformazio zentroan egingo dituzten berrikuntzengatik izango da.

DATUA

4

ARDATZ

Kakaoa, txokolatea, Oñati eta kultura izango dira lau ardatzak.

ESANAK

"Txokolatearen usaina berreskuratuko dugu"

ANTON AZPIAZU | TXOKOLATEIXIA

# Apaolaza Alarguna kalea Maria Irizar kalea da gaur

Laugarren Egun Morearekin, jaietako bigarren asteburua hasiko da gaur, egubakoitza

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Egun morea da gaur Oñatin. Aldarrikapenarekin hasiko da, beraz, aurtengo jaietako bigarren asteburua.

## Herriko emakumeak

Laugarren aldiz ospatuko da Egun Morea. Duela lau urte, neska talde bat propio elkartu zen egun hori antolatzeko, eta azken hirurak Oñatiko Gazte Feministen Asanbladak antolatu ditu. Jaietan, eduki feministendako espazio bat sortzea da helburua, kontzientzia feministagatik, berarekin eta bere alde jokatzu, kantuan eginez edo ondo pasatuz.

Egun More bakoitzak bere tematika izan du. Aurten, esaterako, herriko emakumeen historia ezagutzea eta hori idatzi ez izanaren arrazoiez kontzientzia hartzea da asmoa. Hori garatzeko, Gerardo Elortza historialariarekin eta herriko bost emakumerekin egon dira Gazte Feministen taldeko kideak. "Haiengandik ikasi dugu garai haietan emakumea izatea zer

zen eta nolakoa zen euren bizi-modua", diote taldeko kideek. Eta hauxe gaineratu dute: "Elkarrizketekin konturatu gara zein gutxi ezagutzen dugun gure herriko emakumeen historia".

Eta horri adibideak jartzeko, herriko kale batzuei izena aldaketako diete gaur, "Oñatiko emakumeen omenez". Esaterako, egun Apaolaza Alarguna deitzen den kalea Maria Irizar izatera pasako da. Kale horretan zeuden, aspaldi, Irizarren berdeguneak. Apaolaza medikuarekin ezkondu zen, eta, alargun gelditzean, Udalarari eman zizkion lurrak. Hori eskertzeko, Apaolaza Alarguna jarri zion izena kaleari Udalak. "Baina lurrak Mariarenak ziren", diote. Eta gehitu dute: "Bestalde, Naparreneko Margarita, Guriako Espe eta Felisatxo moduko emakume esanguratsuak ere omenduko ditugu. Baita baserrietako emakumeak ere".

Eguerdian egingo dute kale berrien inaugurazioa. 14:30ean bazkaria txosnagunean eta arratsaldean, olinpiada moreak eta



Gaztelekuan egindako familien bazkaria. | AITZIBER ARANBURUZABALA



Atsolorra ekitaldia, udaletxean. | MARIAN GONZALEZ.



Arratsaldeko sokamuturra. | MIREIA BIKUÑA



Esencia de Jalisco taldea. | MIREIA BIKUÑA

Transmaribollo kalejira batukadarekin.

## Karrozen biltokia

Bestalde, bertso saioa izango da gaur, 22:30ean, kiroldegian. Maia,

Mendiluze, Estiballes, Arzalluz, Martin eta Rezola arituko dira bertsotan.

Bihar, zapatua, Herri Eguna ospatuko da. Urtero moduan, herriko baserriarren eta gazta

ekoizleen produktuak egongo dira goizeko azokan. Bazkariak eta herri kirolak ere izango dira. Errosoixoa Bixamonean, berriz, agustindarretako aparkalekua izango da karrozen biltokia.

## Sexu erasoaren aurkako protokoloa jaien ostera arte dago indarrean txosnagunean

Eraso matxistarik ez dela onartuko dioten kartelak ere jarri dituzte

O.E. | OÑATI

Oñatiko Gazte Feministen Asanbladarekin batera, herriko beste hainbat talde ere lanean dihardute emakumea defendatzeko eta eraso sexistak salatzeke. Horren adibide dira, esaterako, genero indarkeria kasu bat gertatzen den bakoitzean Foruen plazan egiten diren kale agerraldiak. Duela gutxi, bestalde, *Oñatik ez du indarkeria matxistarik onartzen* irakur daitekeen bi kartel more jarri dituzte herriko bi sarreretan. Jaietako, sexu eraso baten aurrean nola jokatu jasotzen duen protokoloa egin du Txosna Batzordeak.

## Protokoloa

Erasorik ez erantzunik gabe!!! izenburua du joan den egubakoitzetik txosnagunean indarrean dagoen protokoloak. Txosna batzor-



Oñatiko sarreretan dagoen kartela, Ugarkalde auzoan. | O.E.

deak adostu duen protokoloa da eta hamar eragile daude batzorde horretan: Oñatiko Herrira, Oñatiko Gazte Asanblada, Ernai, Oñatiko Emakume Asanblada, Fan Hemendik Batzordea, San Martingo Etxe Okupatuko Asan-

blada, AHT-rik Ez!, Mirentxin, Udana Kotxezaliak eta Narrarte Motorzaliak. Protokolo horrek jasotzen du, besteak beste, zer egin egoera hauetan: eraso barratik identifikatzen denean, erasotua laguntza eske etorri gero eta

eraso bortitz baten aurrean. Bada, jaietako bitartean aplikatuko da txosnagunean.

## Akosatzea ez da ligatzea

Emakumearen aldeko lan horretan, eraso sexistak ez direla gertakari isolatuak eta oraindik gizarte matxista baten parte garelako kontuan izateko mezua zabaldu izan da behin baino gehiagotan. Baita Oñatin ere.

Aldaketak gura izanez gero, kritiko eta autokritiko izatea denon betebeharrak dela argi du Oñatiko Gazte Feministen Asanbladak. Horrela, eta jaietako testuinguruan egonda, akosatzea ez dela ligatzea mezua zabaltzeko oharrak era kaleratu dituzte. Ipurdia ukitzea ez dela ligatzea azaldu dute ohar horietan, lizunkeriak esatea ez dela atsegina eta "utzi" edo "jare bakian ja" eta "ez" esatean, horixe esan gura dela, ez besterik. Horren kontrara zabaltzen duten mezua da: inoiz ez egin egin nahi ez duzun ezer eta zer edo zer egin gura izanez gero, saiatzeko, baina eskatu, entzun eta errespetatu egiteko eta zortea izanez gero, gozatzeko.

## Herriraren aldeko mozioa bozkatuko dute gaur

O.E. | OÑATI

Ezohiko osoko bilkura deitu du gaurko, egubakoitza, Udalak. Bilduren mozioa izango da eztabaidatuko duten gai bakarra: *Herrira mugimenduaren kriminalizazioaren aurrean, Oñatiko Udaltzaren erantzuna*. 19:30ean hasiko da ezohiko bilkura.

Guardia Zibilak astelehenean abiatu zuen operazioa salatzeke, manifestazioa egin zuten Oñatin, bertako Herriak deituta. Gaur iluntzean elkarretaratea egingo dute Foruen plazan eta bihar ere izango dira ekitaldiak. 19:00etan, urtero egin ohi den moduan, euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko ekitaldia egingo dute txosnagunean, eta gero, manifestazioa herriko kaleetan zehar.

# Herriko errekek eta urak ezagutzeko aukera urrian

Natur Eskolak antolatu ditu, Mankomunitatearen Ur eta Errekaren Astearekin

**OIHANA ELORTZA | OÑATI**

Ur eta Errekaren Astea izendatu du Mankomunitateak urriko hirugarrena, eta ekimen horren osagarri izango diren ekitaldiak egingo dituzte Oñatin hilabete honetan. Hala, Mankomunitateak erreka garbitzeko eta araztegia bisitatzeko deiarekin bat egin du Natur Eskolak. Baina ekintza gehiago ere antolatu ditu.

**Garbiketa eta informazioa**

Erreka garbitzera joateko deialdia aprobetxatu gura du Natur Eskolak errekei eta urari buruz berba egiteko, adibidez. Horretarako, erakustaldiak, hitzaldiak eta mendi irteera antolatu ditu. "Santa Anako harreraren jarriko den erakusketa, esaterako, Oñatiko errekei eta iturriei buruzkoa izango da: zenbat erreka ditugun, zeintzuk diren, metal-ura ematen duten iturriak eta uraren bideak zeintzuk diren ikusiko da, esaterako", azaldu du Natur Eskolako Imanol Biainek.

Bigarren erakusketa herriko errekararen bueltan dagoen pasealekuan jarriko dute. Erreken ekosistemak, fauna, landaretza eta gisa horretako informazioa jasotzen duten panel informatiboek osatuko dute erakusketa.

Hainbat hitzaldi ere antolatu dituzte. Lehena Arturo Elosegik egingo du, biologia katedraduna eta EHUKo ekologia irakaslea. Bigarrena Urgarden taldeko Aina Gartzia eta hirugarrena,

**EGITARAUA**

**10ETIK 20RA**

**Erakusketa:** Oñatiko errekek eta iturriak. Santa Ana aretoko sarreran, 18:00etatik 20:00etara.

**10ETIK AURRERA**

**Erakusketa:** Oñatiko erreka bizirik! Herriguneko pasealekuan.

**URRIAK 10**

**Hitzaldia:** Ibaiek eta aldaketa globala. Hizlaria: Arturo Elosegik.

Kultura etxean, 19:00etan.

**URRIAK 11**

**Hitzaldia:** Errekak garbitu; zergatik? Hizlaria: Ainara Gartzia.

Kultura etxean, 19:00etan.

**URRIAK 13**

**Erreka garbiketa:** Ugarkaldetik Kasablankaraino.

Foruen plazan, 09:00etan.

**URRIAK 14**

**Hitzaldia:** El reto de la gestión sostenible del agua en Debagoieta. Victor Peña.

Osoko bilkuren aretoan, 19:00eta.

**URRIAK 19**

**Irteera:** Epeleko araztegi bisita gidatua. 10:30ean euskaraz eta 12:00etan gazteleraz.

**URRIAK 20**

**Mendi irteera:** Ubao eta Antzabarko uren erabilera.

Foruen plazan, 08:30ean.

berri, Uraren Euskal Agentziako obra zuzendaritzako kide Victor Peñak.

**Ugarkaldetik Kasablankara**

Urriaren 13a izango da, berri, erreka garbitzeko eguna. "Gure asmoa da herria zeharkatzen duen errekararen zatia garbitzea, Ugarkaldetik Kasablankara. Dena dela, elkartzen garen jende kopuruaren arabera erabakiko dugu zein zati garbitu. Errekan batutako zikinak, gero, erakusgai

jarriko ditugu Foruen plazan", dio Imanol Biainek.

**Ur-bidea ezagutzeko irteera**

Bestalde, urriaren 20rako mendi ibilaldi erraza antolatu dute, uraren bidea ezagutzeko. "San Martinen izango du hasiera irteera horrek. Auzo horretan sartuko gara Ubao errekan, eta uraren ibilbidea jarraituz, kilometro eta erdian dauden lau errotak ikusiko ditugu: Eroski atzean dagoen Liñantzibar, Murgiako, Santa Krutz eta Tokillo. Laugarrenaren ondoan dago, gainera, makina etxea, eta hura ere bisitatuko dugu. Handik Urzulora joango gara, Gorordo aldera joan eta Pottoka lekua dagoen inguru horretan, Antzubar arroan sartuko gara. Handik hartzen zuten ura lehen. Ibilaldia Azkoagaineiko iturrian bukatuko dugu", zehaztu du Biainek.



Erreka, Otadui zuhaitzian. | NATUR ESKOLA



Midi D'Ossau mendia. | ALOÑA MENDIKO MENDI SAILA

## Midi D'Ossau-ri bira emateko irteera antolatu du Aloña Mendik urrirako

**O.E. | OÑATI**

Aloña Mendiko mendi sailak urrirako antolatu duen irteera Pirinioetara izango da. Urriaren 19an eta 20an egingo dute irteera. Lehendabiziko egunean Midi D'Ossau inguruan ibiliko dira. Portaletetik abiatu, Pombieko aterpetxetik pasatu eta Suzon lepora helduko dira. Handik Biou Artigues-era jaitsiko dira, Liouko lepora igotzeko gero. Amaie-

ran, Portaletara jaitsiko dira. Bigarren egunean, hilaren 20an, Formigal izango da abiapuntua. Garmeteko lepotik Anayateko lakutara joango dira, Vertice de Anayet tontorreraino. Rincondako Canal Roya haranetik Canfranc-era izango da jaitsiera.

Hilaren 9tik 16ra eman behar da izena. Bazkideendako prezioa: 55 euro; bazkide ez direnendako, 65; eta langabeendako, 45.

## 2013/2014 IKASTURTEA

## IKASTAROAK DOHAINIK

## LANGILE ETA LANGABETUENDAKO

PROFESIONALTASUN  
ZIURTAGIRI  
BERRIAK

**LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUA (HOBETUZ)**  
**KATALOGO MODULAR BERRIA**

ZIURTAGIRI PROFESIONALAK	PRESTAKUNTZA MODULOAK	PRESTAKUNTZA UNITATEAK	ORDUAK
(FMEH0109) TXIRBI-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA	MF0090_2 Txirbil-harroketa bidezko makina eta sistemen prestaketa eta mekanizazioa	UF0878 Makinen, ekipoen eta erreminten prestaketa txirbil-harroketa bidezko prozesuetan	80
	UF0879 CNC programen elaborazioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	80	
(FMEC0110) SOLDADURA ELEKTRODO ESTALIEKIN ETA TIG	MF0100_2 Gas babestuan, elektrodo ez suntsitzailearekin soldadurak egitea	UF0882 CNC programen egiaztapena eta optimizazioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	70
		UF0877 Lan arriskuen prebentzioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	30
		UF1640 Planoen interpretazioa soldaduran	60
(FMEC0210) SOLDADURA OXIGAS ETA SOLDADURA MIG/MAG	MF0098_2 Oxigas bidezko soldadurak eta proiektzio termikoak egitea	UF1622 Ebaketa prozesuak eta ertzen prestaketa	70
		UF1626 Karbono altzairuak soldatzea TIG soldadura-rekin	90
		UF1627 Altzairu herdoilgaitzak soldatzea TIG soldadura-rekin	90
		UF1628 Aluminio eta aleazioak soldatzea TIG soldadura-rekin	90
(SSCS0108) ETXEAN DAUDEN PERTSONEN ARRETA SOZIOSANITARIOA eta (SSCS0208) ERAKUNDE SOZIALETAN MENPEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEN ARRETA SOZIOSANTARIOA	MF0251_2 Etxeko laguntza eta elikadura familiarra	UF1672 Oxigas soldadura	70
		UF0125 Menpekotasun egoeran dauden pertsonen kudeaketa, hornikuntza eta sukaldia famili unitatean	60
	MF1019_2 Erakundeetan, laguntza soziala eta arreta komunikazioa	UF0126 Menpekotasun egoeran dauden pertsonen garbitasuna, mantenua eta antolaketa	40
		UF0129 Erakundeetan, menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta soziala	30
		UF0130 Erakundeetan, menpekotasun egoeran dauden pertsonen mantentzea eta eguneroko aktibitateen hobekuntza	50
UF0131 Erakundeetan, menpekotasun egoeran dauden pertsonen komunikazio teknikak	50		

LANGABETUEI ZUZENDUA (LANBIDE)

ZIURTAGIRI PROFESIONALAK: FMEC0110 Soldadura elektrodo estaliekien eta TIG	680	DOAN
--	-----	------

KATALOGO MODULARRETIK KANPO

Altueran lan egitea	20	DOAN
Garabietan lan egitea	20	
Eskorgan lan egitea	20	

IDAZKARITZAKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera: 08:00 - 18:00

ETXEBARRI AUZOA, Z/G / 22 Pk.

20550 ARETXABAETA (GIPUZKOA)

WWW.IARETXABAETA.COM

IA@IARETXABAETA.COM

T. 943 797 900 / 943 797 943

F. 943 770 955

2 0 0 6



Belorrietako espaloiek zulo ugari dituzte eta azaroan konpoduko dituzte. | Z.V.D.M.

## Belorrietako espaloiak hobetzeko lanak, azaroan

Aretxabaletako Udalak 58.691,49 euro bideratuko ditu hobetze lanak egiteko

### ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Osoko bilkura egin zuten astelehenean Aretxabaletan. Besteak beste, Belorrieta inguruko espaloien egoera hobetzeko lanak izan zituzten hizpide. "Azken urteetan herriko lan txikiei ez zaie behar besteko garrantzirik eman eta espalo horien egoera hobetzea funtsezkoa dela uste dugu". Hala azaldu du Ana Bolinaga alkatea. Hirigintza Sailetik aditzera eman dutenez, azaroan egingo dituzte lan horiek eta 58.691,49 euroko aurrekontua dago.

Osoko bilkuraren aurretik, baina, txikiagoa zen proiektura bideratutako diru kopurua. Astelehenean onartu zuten aurrekontua handitzea, EAJren abstentzioarekin. "Espalo horien egoera benetan kaxkarra da eta

badakigu. Baina gure abstentzioa beste bide batetik dator. Hasiera-hasieratik gabiltza esaten aurrekontua berraztertu egin beharko litzatekeela, dirua mugitzen hasi aurretik". Hala azaldu du Mikel Urribetxebarria EAJko zinegotziak.

Herritarrekin batera aurrekontuak lantzerakoan zehaztutako inbertsioa dela esan du Bolinagak. Aurretik bestelako lan batzuei egin behar izan diete aurre, haren esanetan, eta aurreikusita zituzten beste batzuk alboratu. "Dirua badagoela ikusita handitu dugu espaloientzako aurrekontua". Gainera, inguru horietako kexa ugari jaso direla gaineratu du, batez ere, bertatik pasiatzen ibiltzen diren hirugarren adineko pertsonena. "Udal bezala ez genduke erdigunean horre-

lako kalerik onartuko, ezta zuloz betetako autoentzako errepedierik ere, esaterako. Oinezkoei eman behar zaie lehentasuna, eta zentzuduna da bertan hobetze lanak egitea".

### Haritz Solupe, zinegotzi berria

Bestalde, astelehenean Haritz Solupek (EAJ) zinegotzi kargua hartu zuen, eta, hala, Mari Carmen Astigarragaren tokia betekoa du aurrerantzean.

### Atxilotuen aldeko testua

Horrez gainera, Herrirako atxilotuen aldeko testua irakurri zuten osoko bilkuran. "Egoera zailak bizi arren eta askotan gertatzen direnak ez ulertu arren, herrigintzan eta borrokan jarraitu behar du herri honek", gaineratu du Bolinagak.

## Gaur epaituko dute Zuhaitz Errasti preso aretxabaletarra Parisen

Eguaztenean 50 lagun inguruk giza katea egin zuten elkartasuna adierazi eta egoera salatzeke

### Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Gaur epaituko dute Zuhaitz Errasti preso Parisen. Aretxabaletarraren bigarren epaiketa izango dela azaldu du Haritz Errastik, presoaren anaiak: "Nahiko urduri dago epaiketarengatik. Epailleak 8 urteko zigorra ezarri zion, baina fiskalak errekurtsioa ipini du, 12 urte gura dituelako. Orain erabakiko dute zenbat urte bete beharko dituen kartzelan".

Herritar talde batek Pariserako bidaiari egin du Errastiri elkartasuna adierazteko. "Aspaldi ikusi ez dituen pertsonak bertan egoteak indarra ematen dio". Herritarren babesa eskertu dute bai Errastiren senideek eta baita lagunek ere.

2009an atxilotu zuten Zuhaitz Errasti Frantziar eta orduetik Bordeleko kartzelan dago. "Azpimarratu gura dugu Frantziako kartzeletako egoerak txarrera egin duela urtez urte. Preso sozialen egoera ez da ona, baina politikoa are okerragoa da".

### 50 lagun giza katean

Eguaztenean, osteran, giza katea egin zuten *Zuhaitz herrira* lelopean, Aretxabaletako presoari elkartasuna adierazi eta bide batez euskal presoaren egoera salatzeke. "Milaka kilometrotara daude batzuk, oso gaixorik besteak...". Era berean, astean eginiko Herrira mugimenduari aurkako atxilotetak salatu gura izan zituzten.



Errastiri elkartasuna adierazteko giza katea egin zuten eguaztenean. | Z.V.D.M.

### "Bere nortasunarekin bat" datozen marka irudia eta webgune berria estreinatu ditu Pausokak

Pausokak 25 urte beteko ditu datorren ikasturtean eta bi berritasun aurkeztu ditu. Irudi berria izango du aurrerantzean, "bere nortasunarekin bat" datorrena. Guraso-familia-eskola harremana sendotzeko asmoz, [www.pausoka.eu](http://www.pausoka.eu) webgune berria ere ipini du martxan: "Dinamikoa, funtzionala, azkarra eta garbia da". Arteman komunikazio enpresak diseinatu eta garatu ditu biak.

### Datorren astean egingo dituzte 'Jar gaitzen' ekimenaren barruko lehenengo bi bilerak

Urrian egingo dituzte *Jar gaitzen* egitasmoko lehenengo bilerak. Arloka banatuta egongo dira: hiri antolamendua (urriak 8 eta 29); sozioekonomia eta ongizatea (urriak 10 eta 31); kultura, herri bizitza eta kirola (urriak 15 eta azaroak 5); eta euskara, hezkuntza eta gazteria (urriak 17 eta azaroak 7). Interesatuak gura duten taldean har dezakete parte. Derrigorrezkoa ez izan arren, baina antolaketa hobetzeko, [jargaitzen@bagara.net](mailto:jargaitzen@bagara.net) helbidera idatzi.

### Herbehereetako Cuijk herriko 38 ikasle iritsiko dira bihar Kurtzebarrikoen truke programaren harira

Urtero egiten dute Kurtzebarri BHIkoek elkartrukea Herbehereetako ikasleekin. Hala, bihar herbeheretarren txanda izango da eta hilaren 11ra arte Aretxabaletan egongo dira 38 neska-mutil eta hiru irakasle, lagunak egiten, bertako ohiturak ezagutzen... Astelehenean egingo diete harrera ofiziala, Arkupen. Horren ostean, Kurtzebarrikoek izango dute esperientzia bizi izateko aukera: martxoaren 15ean joango dira Herbehereetara.

## Martutenen espetxeratu dute etxeko jabeari ustez mailu batekin jotzea egotzita atxilotutako gizonetzkoa

### Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Martitzenean 44 urteko gizonetzkoa atxilotu zuten ertzainek, lesioak eta legez kanpoko atzemate delituak egotzita. Ertzaintzaren arabera, etxea alokatzen dion jabea mailu batekin jo zuen buruan ustezko erasotzaileak, eta ondoren, ez zion etxetik irteten utzi. Aretxabaletako osasun zentrotik Bergarako ertzain-etxera deitu zuten, bertaratutako adineko gizonak buruan zituen zauriak zirela eta. Ertzainak bertaratu eta ikerketa abiarazi zuten.

### Alokairuagatik eztabaida

Ertzaintzak prentsa ohar bidez azaldu zuen biktima etxean zego-

la maizterra azaldu zenean. "Alokairua ez ordaintzeagatik metatuta zeukan zor batengatik ikamikan hasi ondoren, maizterrak mailu bat erakutsi, buruan jo eta lesio odoltsu bat eragin zion". Ertzaintzak oharrean gaineratu zuenez, "gutxi gorabehera ordu-betez" eragotzi zion etxetik irtetea, eta "mehatxuak egin zizkion".

Ustezko erasotzailea aurkitu eta atxilotu zuen. "Odol arrastoak zituen jantzietan, eta alokairuan bizi den etxean mailua aurkitu zuten ertzainek; ustez, erasoan erabilitakoa". Polizia-eginbideak burututa, eguaztenean eraman zuten epaitegira eta ondoren Martuteneko espetxean sartu zuten.



**UP  
ENGLISH  
SCHOOL**

### Ingeleseko eskolak:

- Eskola-errefortzuak (maila guztiak)
- Azterketa ofizialak, ahozkoak, bestelakoak (adin eta maila guztiak)
- Egun osoan.

Loramendi 3 • ARETXABALETA  
679 96 34 47  
[up.englishschool.are@gmail.com](mailto:up.englishschool.are@gmail.com)

# Barrearen bidez barneak husten eta erlaxatzen ikasiko dute bihar

Jaiki elkarteak antolatuta barreterapia saioa egingo dute, 10:30ean hasita

## ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Barneko emozioak askatzeko balio du barre egiteak, eta, era berean, baita erlaxatzeko eta gozatzeko ere; oro har, ekintza osasungarria da barrez lehertzea. Barreterapia saioetan bakoitzak barne-barnean daukan barre hori bilatu gura izaten dute.

Bihar, zapatua, kuartel zaharrean elkartuko dira, 10:30ean, Auria Diharceren gidaritzapean, hiru orduan zehar barrea lantzeko. Jaiki elkarteak antolatu du saioa eta bertako kide Maier Etxebarriak barreterapiaren garrantzia azaldu du: "Barrenak husteko, gorputza lasaitzeko eta aire fresko apur bat sartzen uzteko aproposa da".

Terapiaren onura gehiagor ere egin du berba: "Bizimodu azkar honetan tarte txiki bat hartu behar da kontzientzia momentuan eta lekuan bertan jartzeko. Egon, mugitu, jolastu eta barre egin. Eta horrek guztiak sortzen duen plazerari lekua egin behar zaio gure bizitzan".

## Gorputz mugimendua

Bestalde, urriaren 8tik (martitzena) aurrera eta Gabonak bitar-



Barreterapia saioa egingo dute bihar, zapatua. | JAIKI ELKARTEA

tean, gorputz-mugimendu laborategi bilakatuko da kuartel zaharra, Carla Fernandezek eskutik. Martitzenetan izango da, 17:30etik 19:30era.

"Dantza, kontzientzia, sentikortasuna eta kontaktua oinarri hartuta, praktika sortzailerako gunea izan gura du laborategiak. Gure gorputzak entzuten eta

ulertzen ikasiko dugu eta espazioan mugitzeko eta espresatzeko gaitasuna garatu, mugimenduen arteen diziplina ezberdinak erabiliz".

Izen-ematea ireki dute [jai-kielkarte@yaho.es](mailto:jai-kielkarte@yaho.es) helbidean. 60 euro ordaindu beharko dituzte langileek eta 50 euro ikasle eta langabeek.

# 'Murren bidaia' antzezlanaren domekan Zaraia aretoan (17:00)

## Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Kulturaz blai dator urria Arkupea. Atzo, Zurriola antzerki eskolakoek bisitatu zuten Zaraia aretoa eta *7tik 3* emanaldiarekin estreinatu zuten hilabete honetako antzerki eskaintza.

Etzi, ostera, bidaia berezi batekin gozatu ahal izango dute etxeko txikienek. *Murren bidaia* ikuskizunak hartuko du Zaraia-ko oholtza, 17:00etatik aurrera. Bada, Behi Bis taldea arduratuko da neska-mutikoak entretenitzeaz.

"Afrikatik iritsiko da Mur, hemen bizi den Txema ezagutuko du eta lagun egingo dira". Hain zuzen, ezberdintasunaren eta aniztasunaren inguruko

kontakizuna taularatuko dute Behi Bis taldekoek.

## Mendiko istorioak

Urrian antzerki emanaldi gehiago egongo dira Aretxabaletan. Hala, Txalo taldeak *Hiru* lana eskainiko du hilaren 10ean, eguena, 19:30ean hasita.

Eta urriaren 13an, berriz, Hipo eta Tomax pailazoaren abenturen txanda izango da, *Mendizaleak* antzezlanean. Mendiko abentura gehiago, aldiz, hilaren 27an Patata Tropikala taldearen eskutik, *Mendiko altxorra* lana eskainiko baitute. Ipuin kontaketa bat ere egingo du Ines Bengoak, hilaren 19an, urria borobiltzeko.

# Ate irekiak antolatu ditu gaurko Kuku Miku elkarteak Duranako egoitzan

## Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Kuku Miku elkarteak ate irekien eguna antolatu du gaurko, egubakoitza. Gura duten guztiak elkarteak Durana kaleko 30. zenbakian duen egoitza bisitatu ahal izango dute, 17:30etik 19:30ak arte. Azaldu dutenez, bazkidetza kanpainaren barruan antolatu dute.

## Urriaren 7a da azken eguna

Irailaren 16an ipini zuten martxan aurtengo bazkidetza kanpaina Kuku Mikukoek. Oraindik ere zabalik dago izen-ematea eta urriaren 7a, astelehena, izango da horretarako azken eguna. Interesa duten guztiak [kukumikuelkarte@gmail.com](mailto:kukumikuelkarte@gmail.com) helbidera idatzi behar dute.



ORTUZAL PROMOCIONES S.L

943 76 11 18

943 79 40 00

619 71 82 78

**ARETXABALETA**

**AUKERA EZIN HOBEA**

ETXEBIZITZAK:

2 logela

2 bainugela

Sukalde hornitua

Ganbara bikaina

**Azken etxebizitzak!!**

**Etxe tasatuak  
baino merkeago!!!**

**ABENDUAREN 31 BAINO LEHENAGO**

**160.000€**

(BEZa ez dago barne)

# "Sustraiak indartze" aldera, mendeurrena ospatuko du EAJk

Askotariko ekintzak antolatu dituzte urriaren 8tik 19ra bitartean

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eskoriatzako EAJk ehun urte beteko ditu aurten, eta, horren bueltan, askotariko ekintzak gertatu ditu datozen egunotarako, *Eskoriatzan 100 urte sustraiak indartuz* lelopean. Horien berri emateko jeltzaleek agerraldia eskaini zuten joan den martitzenean, herriko batzokian.

Eskoriatzako EAJ alderdiko presidente eta zinegotzi Aitor Urrutiak esan zuen mendeurrena ez dutela bakarrik ospatuko "zenbaki borobila" delako, memoria historikoa "zehatz-mehatz ezagutu, ezagutarazi, kontuan hartu eta hartaz ikastea" garrantzitsua iruditzen zaielako baizik. Horren harira, honakoa aipatu zuen: "Oraina eta etorkizunaren erronka horren aurrean, atzokoa finkatuz, gaur, biharkoa bultzatu nahi genuke. Hori dela eta, gure herri eta aberriarekiko konpromisoa berrestu gura dugu".

## Gerrari buruzko hitzaldiak

Esan bezala, askotariko ekintzak gertatu dituzte. Urriaren 8an hasiko dira horiek, abertzaletasunaren gaineko erakusketarekin. Horrez gain, Espainiako gerrari buruzko berbaldiak izango dira: Iñaki Goioanek hasierako hila-beteetan gerrak gurean izandako eragina azalduko du urriaren 9an; eta hilaren 17an, Paco Etxebarria auzitegi-mediku ezagunak gerrako hilobiei buruz egingo du berba. Umeendako ospakizun, proiektio eta Atxorrotzeko mendi irteeraren egin ostean, urriaren 20an emango diete ospakizunei amaiera, alderdikideen omenaldiarekin.



Joseerra Zubizarreta, Puri Regidor eta Aitor Urrutia, martitzenean. | JON BEREZIBAR

## EKINTZAK, EGUNEZ EGUN

### URRIAREN 8TIK 19RA

**18:30** Abertzaletasunaren inguruko erakusketa zabalduko dute, kultura etxean. Hilaren 19ra arte egongo da erakusketa ikusgai.

### URRIAK 9

**19:00** Iñaki Goioanek *Gerra zibileko lehen hiru hilabeteak Leintz bailaran* hitzaldia eskainiko du Ibarraundin.

### URRIAK 11

**19:00** *Lehendakari Agirre: Desde Gernika a Nueva York pasando por Berlin* proiektioa Ibarraundin.

### URRIAK 12

**09:30** Atxorrotzera mendi irteera, plazatik.

### URRIAK 13

**12:30** Meza San Pedro elizan.

### URRIAK 17

**19:00** Paco Etxeberriaren *Fosas de la guerra civil en Gipuzkoa* izeneko berbaldia hasiko da kultura etxean.

### URRIAK 18

**19:00** Tor magoak umeendako ikuskizun erakargarria eskainiko du plazan.

### URRIAK 20

**12:00** Alderdikideei omenaldia egingo diete, plazan.

**13:30** Omenaldia amaitzean, luncha izango dute herriko batzokian.

## Gose greban dago Gorka Azpitarte presoa

M.B. | ESKORIATZA

Gorka Azpitartek eta Frantziako Fleury Merogis espetxean dauden gainerako presoek gose greba mugagabea hasi dute. Erabaki horrekin salatu gura dute espetxe horretako zuzendaritzak DSP (modu berezian seinatuak) moduan izendatu dituen "euskal presoek aurkako zigor gaineratua" diseinatu duela, eta bi hilean behin ziegaz aldatuko dituela iragarri.

Orain arte honako ekintzak egin dituzte presoek: patioa hainbat aldiz blokeatzea, ziegatako ateetako begi-zuloak estaltzea eta txandakako gose greba egitea. Zuzendaritzak, dena dela, "zigor gaineratua-rekin" jarraituko duela jakinarazi die, eta, ondorioz, martitzenean gose greba mugagabea hasi zuten Azpitartek eta gainontzeko presoek.

### Kanpaina Eskoriatzan

Egoera hori salatzeko, Fleury Merogis espetxeko zuzendaritari presoek eskubideak errespetatzeko eskatuz eskutitzak bidaltzeko kanpaina martxan jarri dute Eskoriatzan. Hain justu, zuzendaritzaren erabakiarekin desadostasuna azaltzen da horretan. Inkernu tabernan daude esandako eskutitzak.

Azpitarte 2009ko apirilaren atxilotu zuen Frantziako Poliziak, ETAren hartu-emanen zuelakoan. Irailean Frantziako Auzitegiak bost urteko espetxe zigorra ezarri zion, ETAren aparatatu militarren ardurak izatea egotzita.



Ibone Arexolaleibar. | M.B.

## Ibone Arexolaleibar Gaztelekuko hezitzailea "Gazteen konfiantza bereganatzea lortu dugu gaztelekuan"

M.B. | ESKORIATZA

Udako oporren ostean, martxan da osteria Eskoriatzako gaztelekua. Ibone Arexolaleibar hezitzaile moduan dabil han lanean, Nere Uribetxebarriarekin eta Xabier Arenatzarekin batera. Ikasturte berriari buruzko xehetasunak eman dizkigu.

### Ikasturte berriari martxa hartu diozue?

Horretan gabilta. Orain dela bi asteburu zabaldu genuen, eta apurka goaz erabiltzaile berriekin; eta urriko egitaraua gertu dugu.

### Nola dator urria?

Ekintzak beteta. Bihar, zapatua, zinema-foruma dago; eta etzi, mahai-jolas maratonia. Hilaren 11tik 13ra alanbre eta fimo tailerra egingo dugu eta urriko hirugarren aste bukaeraren hitzordu hirukoitza dugu: egubakoitzean, *Bost baitz*; zapatuan, kartingera irteera; eta domekan, mendi irteera. Urriaren 26an sukaldean sartuko gara eta 27rako ping-pong txapelketa antolatu dugu.

### Zeini bururatzen zaizkio ekintza berezi horiek?

Gazteen beharren eta proposamenen arabera antolatzen dugu hezitzaileok hilabetea. Denetarik eskatzen dute, hala nola irteerak, tailerrak eta txapelketak.

### Norendako da gaztelekua?

12 eta 17 urte bitarteko neska-mutilendako dago zabalik. Ludotekatik irteten direnean, gaztelekua dute asteburuetan. 12 urtekoei txiki geratzen zaie ludoteka; gaztelekuan gazte-txoendako giroa dago. Batez beste, 30-35 lagun izaten ditugu. Talde polita daukagu; gainera, gazteen konfiantza bereganatzea lortu dugu, hezitzaileendako oso inportantea dena. Bada, Eskoriatzako gazte guztiak gonbidatu gura ditut gaztelekura etortzeko, esku zabalik hartuko ditugu; bereziki, neskak. Ekintzak egiteaz gainera, jendea eza-gutuko dute.



IBARRAUNDI MUSEOA

## Argazki lehiaketako irabazleak

Udako Argazkien II. Lehiaketak baditu irabazleak: 15 urtetik beherako sailean, Naroa Petralandaren irudiak irabazi du; 16 eta 49 urte bitartekoetan, Leire Oiangurenena; eta 50 urtetik gorakoetan, Maite Altunarena. Irabazleek 50 euro lortu dituzte herriko merkatarien elkarte dendetan gastatzeko. Goiko irudian irabazleak azaltzen dira, martitzenean, Ibarraundin egindako sari banaketan.

## Mugikortasunaz egin dute berba asteen

M.B. | ESKORIATZA

Udalak herriko mugikortasuna hobetzeko proiektua aurkeztu zuen eguaztenean egindako batzar irekietan. Beñat Herce alkateak azaldu zuen azken hilabeteotan diagnostikoa egin dutela, eta irtenbideak bilatu. Besteak beste, herrian dagoen aparkaleku falta konpontzea aztertu dute, eta baita erdialdea oinezkoendako berreskuratzea ere.

Azken horren bueltan, aipatu zuen egokitzea partziala izango dela eta asmoa dela arratsaldeetan eta asteburuetan mugatzea; eta erdialdea itxita dagoenean, Olazar eta Arbiñostetik desbideratuko dela zirkulazioa. Alkateak, dena dela, gogorazi zuen proposamena dela eta ekarpenak jasotzeko gertu daudela.

## Capoeira ikastaroan izena eman daiteke

M.B. | ESKORIATZA

Capoeira ikastaroa dago aurten ere herrian. Eskolak datoren asteen hasiko badira ere, oraindik zabalik dago izen-ematea. Interesatuak *senzalaeskadi@hotmail.com* posta elektronikora idatzi behar dute, edo 625 77 22 95 telefono zenbakira deitu.

Hasi berri diren helduen eskolak eguaztenean izango dira 19:00etatik 20:00etara; eta umeenak, astelehenean: 5 eta 7 urte artekoenak 16:30etik 17:15era eta hortik gorakoak, 17:15etik 18:00etara. Saio guztiak Udala Pilotalekuko gimnasioan izango dira. Umeen eskolak astelehenean, hilak 7, hasiko dira; eta helduenak, eguaztenean. Lehenengo bi saioak debalde direla jakinarazi dute antolatzaileek.



# Dantzari Egunean haurrak etxean hartzeko deialdia zabalik

Urriaren 13an izango da Dantzari Eguna eta 150 bat haur etorriko dira

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Bi urtean behin egiten da haurren Dantzari Eguna Antzuolan eta urriaren 13rako, domeka, antolatatu du aurten Oinarin dantza taldeak.

Herriko dantzarietz gain, inguruko herrietako dantzariak etorriko dira Antzuolara; 150 haur inguru etorriko direla aurreikusitako da. Horiek guztiak bazkaltzeko etxean hartzeko deialdia egin du Oinarinek eta urriaren 10a, eguna, baino lehen eman beharko da izena Martin okindegian, Itzar liburu-dendan edo Nerea mertzerian.

## Sei talde

Antzuolako Oinarin dantza taldeko txikienekin batera, beste bost dantzari-talde izango dira herrian: Arrasateko Txikitxu eta Lore Gazteak, Legazpiko Korosti, Oñatiko Oñatz eta Soralezeko Urrats. Guztira, herrikoak eta kanpokoak zenbatuta, 210 bat dantzari izango dira herriko kaleetan dantzan. Horiekin batera, 50 bat arduradun ere etorriko dira, Antzuola egun batez euskal dantzen hiriburu bihurtuz.

Urriaren 13an goizeko hamarretan hasiko da jaia herriko



Antzuolako dantzariak, orain bi urteko Dantzari Egunean. | USOA AGIRRE

txistularien kalejirarekin. 10:30ean iritsiko dira dantzariak herrira eta, harrera egin ostean, 11:15ean hasiko dute kalejira herrian zehar. Goizeko dantza-saioa 12:45ean egingo dute plazan. 13:30ean etxetara bazkaltzera joango dira hau-

rrak eta, bazkalostean, 17:30ean egingo dute arratsaldeko dantza-saioa plazan.

Denetarik dantzak egingo dituzte: esku-dantza, arku-dantza, makil-dantza, banakoa, brokel-dantza, txankarrankoa...

## Autoentzako bi sarrera itxita egongo dira obrek iraun artean

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Azkenaldian iragarri diren bi obra datorren astelehenean hasiko dira eta horrek aldaketak eragingo ditu herri barruko zirkulazioan eta herritarrentzako zenbait zerbitzutan.

Batetik, Sanjosepe kalean iaz harriak erori ziren errepi-dearen ondoko hormatik, eta hori behin betiko egonkortzeko lanak egingo dituzte datozen hiru edo lau asteotan. Sarrera bideetako bat irekita izatea aurreikusi zuten hasieran, baina, azkenean, itxi egingo dute.

Bestetik, Sagasti kalearen amaieran lurra berdintzeko obrak egingo dituzte datozen bi hilabeteotan. Bitarte horre-

tan, kale horretarako sarrera ere itxita egongo da.

Udaletik jakinarazi dutenez, autoek eta kamioiek Lapatzatik, Kalebarrenetik, sartu beharko dute eta Antiguako biribilgurutik irten. Lanek iraun bitartean Kalebarrengo pibota ez da martxan egongo, eta, normalean baino kamioi gehiago ibiliko denez herrian, arreta eskatu die Udalak herritarrei.

## Eragina zerbitzuetan

Aldaketok garraio zerbitzuetan eta bestelakoetan ere eragingo dute: autobusa Antiguako garelkuan bakarrik geldituko da eta ostiraletako azoka, berriz, frontoian izango da.

## Lomce hezkuntza erreformaren aurkako manifestaziorako deia

U.A. | ANTZUOLA

Antzuolako eskolako kideak Wert hezkuntza ministroak "inposatu" nahi duen Lomce hezkuntza erreformaren aurka agertu dira, "Euskal Herriko hezkuntza eragile, ikasle, guraso, langile eta beste hainbat elkarte eta erakunderekin batera".

Legearen aurka urriaren 12an Bilbon egingo den manifestaziorako dei egin dute; autobusa antolatu dute.

## Herriraren alde

Bestalde, Herriraren aurkako operazioa salatzen elkarretaratzea egingo dute gaur, 19:00etan, Zurrategin.

## Elkarbizitza prozesuko bilerekin jarraituko dute datorren martitzenean, urriaren 8an

Udaberrian hasi zen elkarbizitzarako prozesuari segida emango diote datorren martitzenean, urriak 8, 18:00etan Oларanen egingo den bilerarekin. Bertan, prozesuan emaniko pausuak eta ondorio nagusiak gogoratuko dituzte eta horiei jarraipena emateko talde berria sortuko dute. Behar izanez gero umeendako zaintza zerbitzua egongo da.

## Memoria lantzeko tailerrean izena emateko azken eguna izango da datorren egubakoitza, urriaren 11

Memoria lantzeko tailerra antolatu du Udalak eta datorren egubakoitza, urriaren 11, izango da izena emateko azken eguna. Urriaren 15ean hasi eta abenduaren 17ra bitartean egingo da, martitzenetan, 16:30etik 18:30era bitartean. 24 euroko bi kuota ordaindu beharko dira. Bestalde, pertsona ezinduen zaintzaile diren familiartekontzako tailerra ere izango da azaroan, emozioen kudeaketari buruz.

## Gazte txokoa hezitzaileak hartzeko deialdia zabaldu dute eta urriaren 12a da izena emateko azken eguna

Gazte txokoa ikasturte berrirako prestatzen ari da eta hezitzaileak hartzeko deialdia egin dute. Euskaraz jakitea, 18 urtetik gora izatea eta antzuolarra izatea edo herrian bizi izana dira bete beharreko baldintzak. Begirale titulua izatea eta lan-esperientzia ere baloratuko dira. Urriaren 12a da izena emateko azken eguna eta gazteantzuola@hotmail.com helbide elektronikora idatzi beharko da.

## Gaztetxoendako bertso eskolarako talderik ez da sortu eta bertan behera gelditu da, oraingoz

Herriko gaztetxoendako bertso eskola sortzeko deialdia egin zuten herriko zenbait bertsozalek eta aste honetan hastekoak ziren eskolak. Dena dela, ez du inork izenik eman eta, oraingoz, bertso eskola bertan behera lagatzea pentsatu dute. Aurrerago beste ekintzaren bat egiteko asmoa azaldu dute herriko gaztetxoaren artean bertsozaletasuna zabaltzeko.



## Baserrietarako bide berria

Autobideko lanak direla-eta itxi egin dute Ariztiberritik gorako bidea, eta Benitua, Bidaurre eta Zabale baserrietara joateko Uzarragako bidea hartu beharko da. Azken asteotan aritu dira Arimendi ondotik doan bidea egokitzen autoak igarotzeko, eta handik joan beharko da baserri horietara joateko. Foru Aldundiak egin ditu egokitzapen lanak.

## OHARRAK

### ODOLA EMATEA

Odol emaleen taldeak esker-erak eman nahi dizkie joan den irailaren 26an Oларan etxera odola ematera joan ziren herritarrei. Guztira, 80 pertsona izan ziren. Hurrengo odol ateratzea urtarrilean izango da, baina oraindik zehaztu gabe dago eguna.

### BILBORAKO AUTOBUSA

Urteurreneko ospakizuna dute bihar Gaztetxean, baina, aste honetako atxiloketen harira, autobusa antolatu dute arratsaldeko lauretarako eta bat egingo dute Bilboko Herriraren aldeko manifestazioarekin. Gaztetxean bertan dago izena emateko zerrenda.

*Mujika*  
gozotegia



Bizkotxoak  
Erreilenoak  
Tostoiak


Artakalea 3 **BERGARA**  
943 76 10 34

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**GAILUR**  
taberna eta  
gozotegia



Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
Tel.: 943 78 70 32

Idoia Beitia | Ingurumen eta Nekazaritza zinegotzia

## "Konposta egiteko dagoen konpromisoa neurtu gura dugu"

Konposta egiteko tailerra egin zuten atzo; ezer martxan jarri aurretik interesa neurtu gura dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaio Udaleko Ingurumen eta Nekazaritza batzordeko arduradun politikoa da Idoia Beitia (Aramaio, 1986). Ibarreko gainerrako herriekin alderatuz, indar berezia duen saila da; Beitiarekin egin dugu berba sail horretan Udalak dituen lehentasunez.

**Zeintzuk dira lehentasuneko gaiak Ingurumen eta Nekazaritza batzordean?**

Gure proiektu garrantzitsuenetarikoa Mendiolako Ikerketa eta Berrikuntza zentroa da. Horrez aparte, kontzientziatorako zenbait proiektu ere baditugu esku artean, eta baita Aramaio Basarri Barri egitasmoaren kudeaketa plana eguneratzea ere.

**Zein puntutan dago Mendiolako zentroa orain bertan?**

Behoko solairua amaituta dago eta goikoa, berriz, beste fase baten amaitzea espero da. Behen, ikasturte berrirako Aramaio Sagardogileen Elkartea hasi zen lanean irailaren 28an; iaz ere aritu ziren lanean. Kontserbak egiteko Irikiñ taldea ere sartzeko zain dago. Udalarena da erakina eta makinaria taldeek eurek jartzen dute; gainera, jarduera proiektuari deritzon tramite guztiak egiteke daude.

**Konposta egiten ikasteko tailerra egin zen atzo. Zergatik?**

Konpostaren gaiarekin interesa dagoela adierazten duten hainbat eskaera jaso ditugu udaletxean. Arrasaten eta inguruetan halako proiektuak martxan daudenez, jendearen interesa piztu du gaiak. Egia da, aldi berean, aurreko legealdian proiektu pilotu bat abiarazi zela eta ikastaro bat eman zela. Horren ondorioz, auzo konposta egiteko gune bat jarri zen eliza ondoko parkean, baina ez zuen ondo funtzionatu.

Orain erabaki dugu hitzaldi eta tailerrak antolatzea ikusteko benetan jendeak nolako interesa duen eta zeintzuk diren kezka nagusiak. Hau da, Udaletik ezer martxan jarri aurretik konposta egiteko dagoen konpromisoa neurtu gura dugu. Aramaio ez da Arrasate, hemen ortu asko daude eta egoera oso ezberdina da. Uztailean egin genuen lehen



Idoia Beitia, Bizente Goikoetxea plazan, udaletxea atzean duela. | JOKIN BEREZIARTUA

ikastaroa, eta, jende gutxi agertu arren, bertaratu zirenek, konposta egiten dutenak gehienak, esan ziguten oso interesgarria izan zela. Era berean, aprobetxatu gura dugu Ikerketarako eta Berrikuntzarako zentroan sagar-zukua egiten ari direla zer egin daitekeen aztertzeko.

**Bailaran hiri hondakinak eztabaida iturri dira. Aramaion aurreikusten duzue aldaketarik?**

Oraingo, ez dugu gai hori landu. Gai konplexua da eta oraindik ez dugu hiri hondakinak biltzeko sistema aldatzeko planik egin.

**Gazteria batzordean ere bazaude. Neurri aipagarririk ba al dago?**

Osokoan onartu behar dira gazte lokalaren ordenantza berriak. Orain arte, gazte lokalaren kudeaketak Udalaren eta gazteen arteko hitzarmen baten bidez funtzionatu izan du. Gertatu izan da gazteekin arauak adostea baina jende berria sartzen zenean arau horiek ez betetzea. Hala, arazoan aurrean hitzarmenak ez zuen larregi laguntzen eta horregatik erabaki dugu lokala beste era batera kudeatzea. Adunako Udalak gazte lokala kudeatzeko duen ordenantzaren berri izan genuen eta hori erabiliko dugu oinarri moduan. Legeak ezartzen duena da, barne araudi batekin lagunduta. Esaterako, lokala ondo zaindu behar dela dio; erabilera desagokiaren ondorioz izaten diren apurketak gazteek ordaindu beharko dituzte, adibidez.

**"Hiri hondakinak biltzeko sistema aldatzeko planik ez dugu egin oraindik"**

**"Gure proiektu garrantzitsuenen artean Mendiolako zentroa dago"**

## Udalaren eraikinak garbitzen dituzten langileak, martxoa ezkerro kobratu barik

Bilboko Gurbisa enpresarekin daude haserre: "Egoera jasanezina da guretzat"

J.B. | ARAMAIO

Udaletxea, osasun zentroa, San Martin eskola, kultura etxea, erretiratuaren egoitza eta gazte lokala garbitzen duen lantaldea haserre dago Bilbon egoitza duen Gurbisa enpresarekin: "2012ko azarotik 2013ko martxoa bitartean gorabeherak izan ditugu eta ia beti berandu kobratu dugu hileroko nomina. Baina 2013ko martxotik gaur egunera ez dugu ezer kobratu. Lau langileon egoera eta gure familiena gero eta okerragoa da, jasanezina. Argiaren fakturak, hipotekak ... ordaintzen jarraitu beharra dugu, baina hileroko nomina jaso gabe", diote.

**"Ez dugu erantzunik jaso"**

Araozari konpontzeko asmoz "behin baino gehiagotan" hitz egin dute Ramon Ajuria alkatearekin, Udalak kontratatu zuelako enpresa hori garbitasun zerbitzua



Sonia Jimenez eta Maite Lopez de Bergara garbitzaileak, asteon. | JOKIN BEREZIARTUA

emateko: "Udalak dagokion faktura ordaintzen dio hileroko Gurbisa enpresari. Ondorioz, enpresak du guri ordaintzeko ardura, eta ez Udalak", gaineratu dute. Beraz, Bilboko enpresako arduradunengana ere jo dute: "Ez

dugu euren aldetik inolako erantzunik jaso", diote. Maite Lopez de Bergara langileak adierazi duenez, egoerak horrela jarraituz gero, Bilboko egoitzan idatzi bat jartzeaz gain protesta ekintzak antolatuko dituzte.

## Euskal Ligan lehen partidua bihar Aramaio taldearendako

J.B. | ARAMAIO

Bihar hasiko du 2013-2014 denboraldia areto futboleko Aramaio taldeak -kiroldegian, Cafeteria Manai taldearen aurka, 19:00etan-. Iaz baino bi maila gorago jokatuko dute aramaioarrek, Euskal Ligan bete barik geratu den leku bat aprobetxatuta. Euskal Liga da, baina Gasteizko taldeen kontra jokatuko dituzte partidua guztiak; arrazoia da egun federazio ezberdinak daudela. Andoni Elejalde koordinatzailearen arabera, taldea "gogotsu" dago erronka berriari ekiteko. Jokalari berriak egongo dira; adibidez, Mikel Balantzategi, Mikel Mendikute eta Jokin Balantzategi. Entrenamenduak martitzen eta eguenetan egingo dituzte.

## Gaur hasi eta domekara arte jaiak izango dira Untzillan

J.B. | ARAMAIO

Urriko lehen asteburua izanik, jaiak ospatuko dituzte Untzillan auzoan. 19:00etan hasiko dira jaiak kanpai jotze eta suziri jaurtiketarekin. Gero, auzo afaria (21:00) egingo dute eta ondoren, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsoariak girotuko dute afalostea.

Zapato goizean, auzoko hildakoek omenezko meza (12:00) eta trikitilariak eta umeendako puzgarriak izango dira (12:30). Arratsaldean ere, hainbat ekintza: mus txapelketa (16:00), Patxin eta Potxin pailazoan antzerkia (17:00) eta umeendako buruhandiak, txokolate-jana, puzgarriak eta jolasak (18:00). Gauean, Javisound taldearen musika eta ikuskizuna (22:30) izango dira eta eguna amaitzeko, Murumendi Elkarteko 32. Bolo Txapelketa (23:00). Lau onenendako sariak egongo dira. Domekan, azkenik, mendi irteera egingo dute (10:00) eta gero meza nagusia egongo da (12:00). Jaiak, baina, Manu Istueta eta Joxe Mari Pelaezen bermut dantzarekin (13:00) agurtuko dituzte.

## Kiroldegia alokatzeko eskaera egin daiteke udaletxean

Denboraldi berrirako kiroldegiko kantzaren egutegia osatu du Udalak kirol talde eta eskolaz kanpoko ekintzekin. Bada, jakinarazi dutenez, hainbat ordu libre geratu dira eta gura duenak erabiltzeko aukera izango du astelehen, martitzen, eguazten eta eguenetan, 20:00etatik 21:00etara. Egubakoitzetan ere erabili ahal izango da, 17:00etatik 18:00etara. Ordu horietan kiroldegia erabili gura duenak eskaera egin beharko du udaletxean, urriaren 9a baino lehen.

## Barrea terapia moduan, Itur-Zuri elkartearen eskutik

Itur-Zuri emakume elkarteak barrea terapia moduan lantzeko tailerrak antolatu ditu urrirako. Umorea eta emozioak izango ditu ardatz tailerrak, Virginia Imazen eskutik. Bost saio egingo dituzte, Sastiñan: hilaren 10ean, 15ean, 17an, 29an eta 31n, 18:30etik 20:30era. Izena emateko azken eguna urriaren 8a da, eta, plazak mugatuak direnez, izen-emate ordenaren arabera beteko dira. Izena emateko telefono hau eman dute antolatzaileek: 665 72 86 73 (Ane Lasaga).

## ELGETA

# Condor Legioaren museoan ez da egindako sarraskirik aipatzen

Eguaztenean zabaldu zuten Espaloian 17 panelez osatutako erakusketa

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Hannover ondoan, Wunstorf herrian dago Condor Legioaren egoitza militarra izan zena. "Hegazkin basea izaten jarraitzen du", azaldu zuen eguaztenean Baskale elkarteak Andrea Heuschmid-ek. Legion Condor-ek eragindako Gernikaren suntsipena erakusketaren inaugurazioan esan zituen hitzok. "Nazioarteko aireportu militar handia bihurtu nahi dute orain".

Memoria historikoa berreskuratzeko lanean dihardute Baskale elkarteak, eta Condor Legioak Espainiako gerran izan zuen parte-hartzea azaltzen duen erakusketa ekarri dute Elgetara. Bisitariak 17 panel aurkituko ditu kafe antzokiko hormetan. 80ko hamarkadan Alemaniako Arbeitskreis Regionalgeschichte ikerlari taldeak abiatutako lanaren emaitza da. "Alemanian ere historia ezabatu saiatu dira", azaldu du Heuschmid-ek. "Wunstorfen museo dago, baina bertan ez da Condor Legioak eragindako krudelkeriei buruz ezer aipatzen. Beteranoak beso zabalik hartu izan dituzte beti, eta bertan egin dituzte euren ospakizunak".



Baskale elkarteak Heuschmid eta Armsbrüster, Elgetako aurkezpenean. | L.Z.

## Historiaren itzal luzea

Aurkitutako argazki eta dokumentuek erakusten dute mundu gerren ostean Alemaniak ez zuela berrarmatzeko agindua bete, eta oso aspaldikoa dela frankistekin hasitako harremana. "Gaia- inguruan hemen hain ezagunak ez diren ikuspuntuak agertzen dira erakusketan", esan du Heuschmid-ek. "Espainiar faxisten eta nazien arteko harremana Marokoko gerra garaikoa da, eta Alemanian ere gertatutakoa ezabatzen saiatu dira".

## ESANAK

"Alemanian ezkutatu egiten dute Condor Legioaren historia"



ANDREA HEUSCHMID  
BASKALE ELKARTEA

## Faxista guztiak batera

Eguazteneko aurkezpenean Intxorta 1937 elkarteko Juan Ramon Garaik Elgetaren bonbardaketaren inguruko xehetasunak eman zituen. "Franco Bergarara etorri zen 1937ko apirilaren 20an ziur zegoelako italiar eta alemaniar faxisten laguntzarekin Elgeta behingoz jausiko zela. Besteak beste, Alemaniako Junker hegazkinak eta Italiako Savoie hegazkinak bonbardatu zuten Elgeta". Garairan esanetan, ez dago zalantzarik: "Francok munduko faxista guztien laguntza izan zuen Euskal Herria—eta Elgeta— bonbardatzeko: alemaniarren 50 kiloko bomba aurkitu genuen Intxorta Txikin, txosten militarrek ditugu non agertzen den zein ordu eta egunetan eta zein hegazkinak bonbardatu behar zuten Elgeta, eta Gerediaga elkarteak bonbardaketaren argazkiak aurkitu zituen Italiako artxibo militarrean, iaz".

## Testigantza berria

Aurkezpen ekitaldia ez zen jendetsua izan. Baskale elkartetik Andrea Heuschmid eta Klaus Armsbrüster etorri ziren, Intxorta 1937 kultur elkartetik Juan Ramon Garaik eta Julia Monje eta Elgetako Udaletik Oxel Erostarbe, Patxi Basauri eta Iratitz Lazkano. Publikoan, ordea, testigantza interesgarria egin zuen 88 urteko emakume soraluzetar batek: 1937ko apirillean hegazkin faxistak Durango aldera pasatzen nola ikusi zituen kontatu zuen.

## NIRE USTEZ

SEBAS  
ARANTZABAL



## Garai berrien esperantzan

Urteak pasa ditugu entzuten indarkeriarik gabe dena izango zela posible. Beti esan digute abertzaleon elkarlanean oztopo nagusia indarkeria zela edo egoera ekonomikoa indartzeko traba gaindiezina. Aitzakia ederra inoiz mugitzeko asmorik izan ez duenarendako!

Badaramatzagu urte pare bat alde bateko indarkeriarik gabe: ez ekintza armaturik ez eta kale borrokarik ere.

Garai berri batean omen gaude, baina hileko azken ostiraletan betikoak bizten gara herriko plazan. Batzuek oraindik ez da garaia.

Herri honetan bakea eta konponbidea nahi baditugu presoen arazoari irtenbide bat eman behar zaio.

Horretarako herritarren bultzada ezinbestekoa izango da, tantaz tanta kartzelako hormak botako dituen uholde geldiezina bihurtzeraino.

Herrira mugimenduaren lana hori izan da; era bakesuan presoen egoeraren berri zabaltzea. Gaixo dauden presoena, urrunduta dituzten presoena... Horrela, sentsibilizazio lana burutu herritarren inplikazioa bilatzeko asmoarekin.

Azken eraso honekin Madrilek bide hori moztu nahi izan du baita konponbiderako eman daitekeen edozein pauso ere.

Badakite edozer gauza egiteko inpunitate osoa dute. Eta lasai daude badakitelako hemen batzuek oraindik ez dela garaia.

## Elkarretaratzea deitu dute 19:30erako eta biharko autobusa antolatu dute Bilbora

L.Z. | ELGETA

Herrira mugimenduaren aurkako polizia operazioa dela eta, eguaztenean bilera irekia egin zuen herritar talde batek udaltxean. Bertan, hainbat mobilizazioarako dei egitea adostu zuten; besteak beste, gaur eguerdian herriko plazan eragile sindikalek egindako elkarretaratzea.

## Bihar autobusa Bilbora

Gaurko, barikua, beste elkarretaratze bat deitu dute: 19:30ean egingo dute, *Konponbideari erasorik ez, utzi bakean Euskal Herria* lelopean. Bihar Bilbon egingo den manifestaziora joateko, berriz, autobusa antolatu dute Elgetatik. 16:00etan abiatuko da herriko plazatik.

## Herrixa Dantzan izango da domekan Aiko taldearekin

Udako etenaldiaren ostean, domekan, urriak 6, abiatuko da berriz Herrixa Dantzan dantzaldia. Patxi Monterok Aiko taldeko Sabin Bikandiren eta Patxi Labordaren zuzeneko musikarekin egingo du saioa Espaloia kafe antzokian, 19:00etatik 20:30era. Ohi bezala, sarrera doan da.

## Erretiratuak Urkulura doaz hilaren 9an; izena eman beharra dago

Xalbador elkarteak proposatzen du Elgetatik 14:00etan irtetea. Jakinarazi dute Urkulun ibilalditxoa egin ostean araztegia ikusteko aukera egongo dela. Itzuleran merienda egingo dute. Interesatuak bihar, hilak 5, eman behar dute izena, 11:00etatik 12:00etara, Ozkarbi elkarteak.

## LEINTZ GATZAGA

# Gaur, egubakoitza, egingo dute bigarren enkantea

33 ehiza postu eta oilagorra ehizatzeke zortzi txartel daude jokoan, %10eko beherapenarekin

A.L./U.M. | LEINTZ GATZAGA

60 eskaintza jaso ditu Leintz Gatzagako Udalak ehiza berrutiaren enkanterako. Hori horrela da. Baina martitzenean eskaintzen gutun-azalak zabaldu ostean ikusi dutena da eskaintzok ez direla izan postu edo ehiza jardun guztietarako. Bestela esanda, uso paserako 33 ehiza postu eta oilagorra ehizatzeke zortzi txartel eskaera barik geratu dira. Eta horren ondorioz, orain bigarren enkante bat egingo dute libre

geratu diren postu eta txartelak adjudikatzeko. Gainera, hasierako prezioa %10ean jaitsi dute bigarren enkanteari begira.

## Gaur, 16:30ean plika irekiera

Hain zuzen, gaur, egubakoitza, da bigarren enkanterako hitzordua. Libre geratu diren postu eta txarteletarako eskaintzak 14:00ak baino lehen aurkeztu behar dira, Leintz Gatzagako Udaletxean. Eta gero, gaur bertan zabalduko dituzte eskaintza guztiak, mar-



Martitzeneko plika irekieran herritarrak eta udal ordezkariak. | ANDER LARRAÑAGA

titzenean egin zuten modura; hau da, irekiera ikusteko interesa duen edozeinen aurrean. Publikoki, beraz, 16:30ean izango da hori. Eta gaur bertan erabakiko dute zeintzuk diren behin-behinerako adjudikatarioak.

Horiei martitzenekoak batu, eta adjudikatario guztiek tasak ordaindu eta lizentziak lortutakoan hasi ahal izango dira ehizatzen. Hori bai, osoko bilkuran jaso beharko dute behin betiko onespena.

## Etxeko lanak egiten laguntzeko zerbitzua

U.M. | LEINTZ GATZAGA

Joan den domekako Gurelan batzarrean onartu zuten ludo- tekano etxeko lanen errefortzu zerbitzua jartzea, "Gurelek bere gain hartuta", Inaxio Gabilondo elkarteak kideak esandako moduan. Bestela esanda, aurtengo ikasturtean Gatzagako neska-mutikoei (bereziki, euskararekin zailtasunak dituztenek) aukera izango dute etxeko lanak ludotekan egokitu duten espazio berrian egiteko. Gainera, astelehen eta eguaztentean 17:30etik 18:30era begirale baten laguntza izango dute. Doako zerbitzua da.

**ATLETISMOA****Xabin Arriola: "Tafyd gaueko krosak bost urte beteko ditu; nork esango zigun hasi ginenean..."**

XABIER URZELAI | ARRASATE

Urriaren 18an egingo dute bai-laran asfalto gainean gauez egiten den kros bakarra, Tafyd gaueko krosa, eta dagoeneko bost urte beteko ditu. Aparteko handinahi barik sortu zuten Tafydeko lagunek lasterketa, kirol jarduera berezi bat antolatzeke asmoz, eta, behin indarra hartu duenean, ezin antolatzeke utzi: "Halaxe hasi ginen, mendi bizikleta martxa bat edo kros bat antolatzeke asmoz. Krosaren alde egitea erabaki genuen, eta gaur arte", adierazi dio GOIENARI lasterketako antolatzaile Xabi Arriolak.

Lasterketak jatorriari eutsiko dio; hau da, gauez izango da (20:00etan hasiko da) eta ibilbidea ere azken urteotakoa izango da: Arrasateko erdialdeko kaleetan zehar 5.700 metroko lasterketa.

**Denondako modukoa**

Ibilbide motza izaterakoan egia da atleten aparteko abiadura ematen diotela probari. Hori, baina, aurrean ibili nahi dutenek, parte-hartzeke asmoz doazenendako proba aproposa da-eta.

Probaren egunean bertan eman ahal izango da izena.



Lasterketaren antolatzaileak, bosgarren ediziorako gertu. | ARIZMENDI



Fernando Cobos argazkiaren erdian (9), Euskanikros taldeko hainbat taldekideekin batera. | MARIBI BERRAONDO

**TXAKUR LASTERKETA****'Canicross' proba azaroan Gorlan**

Azaroaren 9ko eta 10eko asteburuan 150 txakur inguru lehiatuko dira Gorlan egongo den zirkuituan

X.U. | BERGARA

Debagoienean lehenengoz egingo dute *canicross* lasterketa. Azaroaren 9ko eta 10eko asteburuan izango da, eta Gorlako kantina eta Hirubide artean prestatuko duten zirkuituan (8,2 km) egingo

dituzte proba horiek. Hala, asmoa da zapatuan leren lasterketak, bizikleta lasterketak eta patin lasterketak egitea; noski, modalitate guztietan txakurrek tira eginda. Eta domekan egingo dute txakur krosa: "Federatuta dauden

atletek Euskadiko Kopan eta bes-telako probetan har dezakete esku, baina Bergarako lasterketan asmoa da edonok parte hartu ahal izatea. Nahikoa izango da txakurrekin korrika egin nahi izatea", adierazi digu antolatzaile lanetan dabilen Maribi Berraondok.

**Fernando Cobos, ordezkari**

Bergarako hitzordua hainbat talderen artean antolatuko dute, eta tartean egongo da Fernando Cobos, Euskanikros taldearen izenean korritzen duen atleta bergararra. Asteburu horretan 100 parte-hartzaile espero dituzte, eta 150 txakur inguru.

- ➔ Obra berria
- ➔ Zaharberritzeak
- ➔ Erreformak
- ➔ Ilogailuen proiektuak
- ➔ Eraikinen Ikuskapen Teknikoa
- ➔ Eraikinen Energia Ziurtagiria
- ➔ Txosten teknikoak
- ➔ Legeztatzeak
- ➔ Hirigintza



**ZIURTAGIRI ENERGETIKOA**  
(Etxea alokatu edo saltzeko beharrezkoa)

**EIT-ITE**  
(Eraikinen Ikuskapen Teknikoa)

Aholkularitza eta laguntza tramitazioan: aukera teknikoen azterketa, proiektua, lizentzia, dirulaguntzak, obrarako aurrekontuen analisia, obra zuzendaritza...

*Eska ezazu aurrekontua konpromisorik gabe.*

*Informa zaitez urte bukaera arte ditugun eskaintza bereziaz!*



**BIARK STUDIO** arkitektoak



**FUTBOLA**

## Inork ez du aparteko denboraldi hasierarik egin

X.U. | ARRASATE

Ohorezko erregional mailako denboraldi hasiera kontrako eztarrira joan zaie bailarako ordezkariari. Hiru jardunaldi baino ez dituzte jokatu, ezin da aparteko baloraziorik egin, baina gauza bat dago garbi, inork ez du aparteko hasierarik egin.

Sailkapenari begirada botata, Aloña Mendi da orain arteko ordezkari onena, eta 10. postuan dago sailkapenean, lau puntu batuta. Eta deigarria da, baita ere, Aretxabaleta hiru punturekin ikustea, hiru partiduak berdinduta. Egoera horri buelta emateko nahikoa da bi emaitza on jarraian batzea, eta horretan saiatuko dira denak asteburuan.

### Antzuola eta UDA etxean

Domekan Antzuolak bigarren dagoen Ostadar hartuko du Estalan (16:30) eta egun berean Aretxabaletak Hondarribiaren kontra jokatu du (16:30). Bergara Real Unionen zelaira joango da bihar (15:30) eta Touringen zelaian jokatu du Aloña Mendik (16:30).

Erregional preferentean, ostera, Mondrak Lazkaoren bisita izango du etzi (16:30) Mojategin



lazko Arrasateko martxako erretratu bat, Monterron inguruan. | X.U.

**MENDIKO BIZIKLETA**

## Hiru proba urrirako, bailarako bidezidorretan

X.U. | ARRASATE

Debagoiengan mendiko bizikleta martxak antolatzen dituztenek nahiko lan izan dute egutegiarekin; izan ere, gaur egun eskaintza zabala dago -eta baita jaiak hainbat herritan ere- eta, gainera, ez da komeni elkarri zapaltzen ibiltzea. Hala, hainbat aldaketa egin ondoren, zehaztuta geratu da hilabete honetan Oñatin, Arrasaten eta Eskoriatzan izango diren mendiko bizikleta martxen egutegia.

### Lehenengoa, Oñatin

Joan den astean Aretxabaletan izerdia bota ondoren, oraingo

asteburuan atsedean hartuko dute mendiko bizikleta-zaleek. Eta urriaren 13an egingo dute Oñatiko mendiko bizikleta martxa, Iban Altuberen oroimenezkoa. Antolatzaileek 40 kilometroko ibilbidea antolatu dute (09:00).

### Birritan, ostera

Eta urriaren 19ko eta 20ko asteburuan birritan ibili ahal izango da: zapatuan Arrasateko martxa egingo dute (09:00, Musakola) eta domekan, Eskoriatzakoa (09:00, herriko plaza). Arrasateko probarako aurrez eman daiteke izena, [kirolprobak.com](http://kirolprobak.com) webgunearan bitartez.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**EUSKAL LIGA, EMAKUME.**  
Osasuna-Mondra  
Zehaztu gabe.

**EUSKAL LIGA, GAZTEAK**  
Basconia-Aretxabaleta  
Zapatua. 17:00. Basauri.

**OHOREZKO ERREGIONALA**  
Antzuola-Ostadar  
Domeka. 16:30. Estala.  
Real Union-Bergara  
Zapatua. 15:30. Irun.  
Aretxabaleta-Hondarribia  
Domeka. 16:30. Ibarra.  
Touring-Aloña Mendi  
Zapatua. 16:30. Fanderia.

**ERREG. PREFERENTEA**  
Mondra-Lazkao  
Domeka. 16:30. Mojategi

**LEHEN ERREGIONALA**  
Arizmendi-Aretx.UDA  
Domeka. 19:00. Ibarra.  
Bergara  
Atsedena.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**  
Eskoriatza-Kukuiaaga Etxeb.  
Domeka. 11:00. Eskoriatza.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**  
Baobab-Aretxabaleta  
Egubako. 20:30. Oiatzun.

**SASKIBALOIA**

**LEHEN NAZIONALA**  
MU-Egues  
Domeka. 18:00. Iturripe.

**SENIOR BIGARREN MAILA**  
MU A- Soraluze BKE  
Domeka. 11:45. Musakola.

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**

Eskoriatza  
Atsedena.

**GAZTEAK, ERRENDIMEND.**  
MU-Easo 97  
Domeka. 11:45. Musakola.

**ESKUBALOIA**

**LEHEN NAZIONALA**  
Ford Mugarri-Zaragoza  
Domeka. 12:30. Iturripe.

**EUSKADIKO TXAP. GIZO**  
Corazonistas-Soraluce BKE  
Domeka. 10:30. Gasteiz.

**EUSKADIKO TXA. EMAK.**  
Aloña Mendi  
Atsedena.



GOIENA

**FORD MUGARRIK ZARAGOZA HARTUKO DU** Joan den asteko porrotari buelta eman asmoz kantxaratu dira Gartziazen mutilak domekan. Ea Maritxuk ez duen kalterik eragiten.



# ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.

Etxetresnetan sekulako eskaintzak!

**Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.**



1200 b/min  
6 Kg

GARBIGAILUA FCB-162  
290 €



1000 b/min  
7 Kg

GARBIGAILUA BASIC L-1017  
299 € edesa



1000 b/min  
8 Kg

GARBIGAILUA 1F-1810  
345 €



1200 b/min  
8 Kg

GARBIGAILUA F-8212  
399 €



1200 b/min  
8 Kg

GARBIGAILUA WM-12Q488E  
435 € SIEMENS



170  
x  
60  
x  
60

HOZKAILUA 3KF-6400B  
399 € Balay



185  
x  
60  
x  
60

HOZKAILUA FTC-682  
499 €



2 URTE

ONTZI-GARBIGAILUA LVF-13  
399 €



7 URTE

KONDENTSAZIOZKO LEHORGAILUA SF-820CE  
445 €



2 URTE

INDUKZIO PLAKA IF-33BS  
395 €



LABE PIROLITIKOIA 6H-760BX  
440 €

Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren arabeko energia aurreztea.

A+ >>> 70%  
A >>> 45%  
B >>> 25%

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.

Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate

Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13 • [arrasate@almacenesarrasate.com](mailto:arrasate@almacenesarrasate.com)

Orduetgia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

# KULTURA

## Hamalau garrenez, organo erromantikoa protagonista

- ▶ Santa Marina parrokia izango da, aurten ere, Bergarako musika aretoa
- ▶ Organoa bakarrik, abesbatzekin eta beste musika tresna batzuekin

A. ARANBURUZABALA | BERGARA

Bihar, zapatua, hasiko da organo erromantikoaren nazioarteko XIV. zikloa. Datozen hiru aste bukaeretan, Bergaran, Azkoitia eta Azpeitiko Loiolan, organoa oinarri duten askotariko emanaldiak izango dira.

Esteban Elizondo zikloko koordinatzaileak astean Bergaran egindako aurkezpenean azaldu zuenez, krisi ekonomikoaren eraginez murrizketak izan dira aurtengo aurrekontuan; horrela, musikarien kalitatea bermatze aldera, hiru kontzertu antolatu dituzte herri bakoitzean, aurrekoetan lau izan badira ere.

### Hiru herriren arteko elkarlana

Orain dela 14 urte sortu zen zikloa, organo erromantikoa duten hiru herriren arteko lankidetzan. Hasiarik izan du Esteban Elizondok egitaraua osatzeko ardura. Hiru-eretan egitura berbera jarraituko dute: kontzertuetako bat organoa abesbatzarekin izango da, bigarrena organo bakarlararena eta hirugarrena, nazioarteko organo jolearena, Elizondoren esanetan, zikloari nazioarteko izaera emanez horrela.

Urteetan San Pedro parrokia izan du zikloak Bergarako aretoa, baina orain hiru urte Santa Marina lekualdatu zuten, San Pedro elizaren eta hango organo erromantikoaren zaharberritze lanak zirela-eta. Ekainaren 29an zabaldu zituzten berriz ere eraberritutako elizaren ateak; hala ere, ez dute aurtengo organo zikloa



Arrizabalaga, Iruin, Korta eta Elizondo Bergarako aurkezpenean. | IURE IZAGIRRE

han egingo; izan ere, San Pedro elizako teknikariaren esanetan, kontzerturen batean organoa soinurik gabe geratzeko arriskua dago; horregatik, bada, aurten ere Santa Marina parrokian egitea erabaki dute, hango organo erromantikoa ez bada ere.

Etxeko izaera duelako, azkenekoa izango da gurean, bereziena. Horrez gainera, Errumaniako Felician Rosco organo jolearen eta ikerlariaren, eta Gerardo Rifón, Donostiako San Ignazio elizako organistaren abileziarekin ere gozatzeko aukera izango da.

AITOR OLEA | ORGANO JOLEA ETA ORGANO IRAKASLEA

### "Askotariko musikazaleei proposatuko nieke hurbiltzeko, probatzeko bada ere"

Durangarra da Olea, baina ezaguna Bergaran; San Pedro elizako organo jolea da eta baita musika eskolako organo irakaslea ere.

#### Zer prestatu duzue oraingoan?

Ahots zuriendako piezak aukeratu ditugu: Marije Ugaldere zuzendaritzapean, zortzi emakumek, batetik, errepertorio frantziarra (Faure-ren meza bat) eta Mendelsshon-en eta Brahms-en moteteak abestuko dituzte. Horien artean, hiru organo pieza frantses tartekatu ditugu.

#### Ze ezaugarri ditu organo erromantikoak?

Labur esanda, orkestra sinfonikoaren doinuak antzematen ditu; hau da, ez da orkestra bat, baina bai orkes-



ANDONI GOITI

tra batan aurki ditzakegun musika tresnen bilakaeraren adierazlea.

#### Ze garrantzi ematen diozu hastear dagoen zikloari?

Sarritan entzuteko aukera ez dugun musika tresna eskura jartzen du zikloak; beraz, askotariko musikazaleei proposatuko nieke hurbiltzeko, probatzeko bada ere. Bergarako emanaldiez gainera, Azkoitikoak eta Azpeitikoak ere gomendatuko nituzke, beste organo batzuk beste era batera jota eta beste areto batzuetako ezaugarriekin entzuteko aukera paregabea da. Bide batez, doan dira kontzertu guztiak.

#### Zelan da Bergarako harrobia?

2009. urtean ekin genion organo eskolak emateari, San Pedro elizarekin eta musika eskolarekin elkarlanean. Aurten, zazpi ikasle dituzte; horien artean, Azpeitiko Loiolan entzungo ditugun Elena Laka eta Leo Juaristi. Oso gustura nabil ni ere.

### ZIKLOAREN EGITARAUA

#### BERGARA

Santa Marina parrokian izango dira emanaldi guztiak, 20:00etan.

URRIAK 5, ZAPATUA

**Organoa:** Felician Rosca.

URRIAK 12, ZAPATUA

**Organoa:** Gerardo Rifón.

**Abesbatzak:** Landarbaso eta Loinatz.

URRIAK 19, ZAPATUA

**Organoa:** Aitor Olea.

**Abesbatza:** Airean Ahots taldea.

#### AZKOITIA

Amabirjina Jasokundearen parrokian izango dira, 20:00etan.

URRIAK 5, ZAPATUA

**Organoa:** Gerardo Rifón.

**Abesbatza:** Landarbaso eta Loinatz.

URRIAK 12, ZAPATUA

**Organoa:** Loreto Aramendi.

**Tronpeta:** Javier Simo.

URRIAK 19, ZAPATUA

**Organoa:** Frantisek Vanicek.

#### LOIOLA (AZPEITIA)

Loiolako Basilikan 20:00etan izango dira emanaldiak eta urriaren 19koa, 11:30ean.

URRIAK 6, DOMEKA

**Organoa:** Gerardo Rifón.

**Abesbatza:** Donostiako Orfeo Gaztea.

URRIAK 13, DOMEKA

**Organoa:** Bernhard Marx.

URRIAK 19, ZAPATUA

**Organoa:** Organo ikasleak (horien artean, Bergarako Elena Laka eta Leo Juaristi).

URRIAK 20, DOMEKA

**Organoa:** Jose Luis Franzesena.

**Sopranoa:** Mariatzen Urkia.

**Tronpeta:** Jon Aramendi.

**MARITXU KAJOI 2013**  
Maritxutan, elegante pasau!

ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

# Ongi etorri Gorbeiaiko udazkenera!



Urriaren 4tik aurrera

**2.000** landare  
oparitu **ko** ditugu

*lehen 2.000 bezeroen artean*

Promozioa 2013ko urriaren 4tik izakinak agortu arte izango da baliagarria. Oinarriak [centrocomercialgorbeia.com](http://centrocomercialgorbeia.com) webgunean.

*Egizu erosketa bat Gorbeia merkataritza-guneko edozein saltokitan eta tiketa aurkeztuz, landarea Gorbeia Lorezaintza Gunean jaso dezakezu.*



Gainera

**ARABAKO  
BEGIRADAK 2013**

*argazki lehiaketan parte har dezakezu*

Saritan

**3.000€** baino  
gehiago  
banatuko  
ditugu

Oinarriak:

[centrocomercialgorbeia.com](http://centrocomercialgorbeia.com)

Urriaren 31 arte.

Gure bezeroei gogorarazten diegu Gorbeia Lorezaintza Gunea **IREKITA** dagoela **IGANDERO** 09:30etik 13:00etara



**GORBEIA**  
[www.centrocomercialgorbeia.com](http://www.centrocomercialgorbeia.com)

# Gabilondoren 'Amaren eskuak' filma asteburuan helduko da Arrasatera

Oñatiko zineman datorren astean emango dute, urriaren 11tik 14ra

IURE EIZAGIRRE | ARRASATE

Zinemaldiko ibilbidearen ostean, joan den asteburuan estreinatu zen Euskal Herriko hainbat zinema aretotan Mireia Gabilondo zuzendari bergararraren *Amaren eskuak* filma.

Asteburu honetan Arrasaten ikusteko aukera izango da, zapatuan 19:30ean eta astelehenean, berriz, 20:30ean. Bi emanaldiak Amaia antzokian izango dira. Oñatiarrek, aldiz, datorren astean ikusi ahal izango dute, lau egunean emango dute-eta zineman, urriaren 11tik 14ra.

Gabilondok adierazi duenez, zinema aretoetara jende asko hurbiltzea gustatuko litzaioke, baina irudipena du Zinemaldia bezalako jaialdietara jende ugari hurbildu arren, jada ez dagoe la zinemara joateko ohiturarik. Euskal zinemaren kasua azpimarratu du, gainera: "Hemen, batez ere, izugarriko pena da hori, bertan egiten diren filmek ibilbide txikia dutelako eta jendea ez badoa lehenbailehen nahi duen hori ikustera, agian, horretarako aukera galtzen duelako".



Mireia Gabilondo, Goienari Zinemaldiaren berri eman dion Imanol Gallego kazetariarekin. | HARITZ DENDATEGI

Ikus-entzuleak zinemara erakartzeko berak zuzendutako filmaz hitz egin du: "Ez da negar zotinka egoteko lan bat, baina emozioa ukitzen du, sentimenduak hor daude eta oso gertuko istorioa

da. Asko nolabait identifikatuta sentituko dira".

*Amaren eskuak* filmak Nerea eta bere ama Luisaren istorioa kontatzen du. Luisak alzheimerra du eta ospitaleratu egin dute

memoria galdu duelako. Nerea errudun sentitzen da gaixotasunaren hasieran ez erreakzionatzeagatik. Luisak ez du Nerea ezagutzen eta alabak ez du ulertzen amak zergatik egiten dizkion

zenbait eskari; itsasargira eramatea, adibidez.

Gabilondok adierazi duenez, alzheimerrez hitz egiten du lanak, baina, horren gainera, pertsonen arteko harremanak dira garrantzitsuak: "Amaren eta alabaren arteko harremana, esan ez diren hainbeste gauza, esaten direnak... Askotan, ematen du mota honetako filmak penagarria izan behar duela, baina esango nuke hau positiboa dela".

## Saririk ez, baina gustura

Zinemaldian harrera beroa izan du *Amaren eskuak* filmak, nahiz eta ez duen saririk irabazi. Horregatik, gustura dago Gabilondo, nahiz eta aitortzen duen saria ez jasotzeak beti ematen duela pena apur bat.

Eta Donostiako Zinemaldia bukatu aurretik, filmaren promozio lanak egiten aritu da Gabilondo: joan den egubakoitzean zapatuan amaitzen zen zinema jaialdia- Bartzelonara bidaiatu zuen, Euskal Herriko zinema aretoetan estreinatzearekin batera ematen zutelako lehen aldiz lana bai Bartzelonan bai Madrilan. Katalunian jasotako erantzunarekin ere oso gustura dago filmeko zuzendaria, bereziki deigarri egiten zaio-eta aurkezpena hurbildutako jende kopurua kontuan izanda oraindik ere filma jatorrizko bertsioan bakarrik dagoela. Hau da, filmaren zatirik handiena euskaraz bakarrik ikus daiteke eta zati batzuk bakarrik ditu gaztelaniaz.

## Bertsolari Txapelketako finalerako sarrerak salgai daude bailaran ere

I.E. | ARRASATE

Aurten Bertsolari Txapelketa Nagusiko saiorik ez da egingo bailaran, baina finalerako sarrerak salgai daude. Abenduaren 15ean, 11:00etan, BECen jokatuko da final handia eta sarrerak bailarako hiru herritan erosi ahal izango dira: Arrasaten, Bergaran eta Oñatin.

Ohi moduan, Arrasaten Monte tabernan erosi daitezke, Bergaran Jardun Euskara Elkartean eta Oñatin kultur etxean. Sarrera arruntek 30 euro balio dute, Bertsolari Elkarteko bazkideek 21 euroren truke eskuara ditzakete eta gazteek (16 urtera artekoak), berriz, sei eurogatik. Finaleko egunean bertso giroaz gozatuz bertan bazkaldu nahi dutenek 18 euro ordaindu beharko dituzte eta

finaleko autobusa, berriz, 13 euro kostatzen da.

Kanporaketarako eta finalurrekoetarako sarrerak, aldiz, saioaren egunean leihatilan erosi behar dira. Kanporaketarako sarrerak lehenago eskuratu nahi izanez gero, *bertso-sarrerak.eu* webgunean erosi daitezke. Saio bakoitzerako sarrerak 10 euro balio du (7 bazkideek eta lau gazteek). Bonuak amaitu egin dira.

### Bailarakoak bi aste barru

Bailarako lehen ordezkaria, Ainhoa Agirreazaldegia, urriaren 19an sartuko da txapelketan, Legazpin. Manex Agirre aramaiorak eta Aretxabaletan bizi diren Maddi Sarasuak eta Miren Amuritzak urriaren 26an Oionen abestuko dute.

## Euskal taldeen zenbait bertsoz osatutako Ruper Ordorikaren azken diskoa gaur egongo da kalean

Ruper Ordorika bakarlarri oñatiarrak kalean du dagoeneko disko berria. Oraingoan, beste euskal talde batzuk hartu ditu oinarri eta haien abestien bertsoak egin ditu: Hertzainak, Itoiz, Kortatu, Koska, Txomin Artola, Errobi, Oskorri, Xabier Lete, Delirium Tremens, Jean Mixel Bedaxagar, Balerdi Balerdi eta Mikel Laboarenak. *Azukre koxkorrak* jarri dio izena hamabi abestiz osatutako diskoari eta jada entzungai dago Interneten.

## 'Hitz ibiltariak' errezitaldiak kalera aterako du literatura egunean

Eguaztenean Harkaitz Cano izango da Literatur Jauziak ekimenaren barruan

I.E. | ARRASATE

Literatur Jauziak egitasmoaren barruan antolatutako *Hitz ibiltariak* ekitaldia astebete atzeratu da, eta, ondorioz, datorren egunean egingo dute herriko alde zaharrean.

AEDko Itxaro Artolak azaldukoaren arabera, "herritarren parte-hartzea bilatzen zuen ekitaldi horrek eta literatura eta antzerki munduan dabilzan Arrasateko lau pertsonak eskainiko dute". Eurak izango dira literatura testu ezberdinak herritarren aurrean interpretatzeaz arduratu direnak. Ekintzak Eduardo Galianoren liburu baten izena badarama ere, testuak ez dira bereak eta errezitaldia eskainiko duen herritar bakoitzak aukeratu du bere testua.

Ekitaldia 19:00etan hasiko da Arbolapetan, eta alde zaharrean gora joango dira. Lauzprobost geldialdi egingo dituzte, gehienak tabernen aurrean, eguna herrian pintxo-poteo eguna dela aprobetxatuz. Tabernaren batean barrura sartuko direla ere iragarri dute. Ordubete iraungo du ekintzak eta Seber Altube plazan amaituko da.



Harkaitz Cano *Twist* bere azken liburuaren aurkezpenaren. | HITZEN UBERAN

Duela bi urte ere egin zuen AEDk literatura kalera ateratzeko ahalegina. Ikasturte hartan antzerki tailerra eman zuen eta han parte hartutako hainbat ikasleek eskaini zuten errezitaldia. Iazko Literatur Jauziak egitasmo emankizunak, berriz, aretoetan izan ziren. Aurten, duela bi urtekoa berreskuratu eta berriro kalera aterako dira.

### Harkaitz Cano, bezperan

Literaturzaleek Harkaitz Cano idazle lasartearrekin izango

dute hitzordua bezperan; izan ere, *Kontakizuna eta katarsia* hitzaldia eskainiko du 18:30ean Kulturateko areto nagusian.

Literaturaren eta memoriaren arteko loturaz hitz egingo du *Twist* liburuaren egileak. Hain zuzen ere, liburu horretan oso presente dago memoriaren gaia eta horretaz ere hitz egingo du. Memoriak euskal literaturan duen lekuaz gain, literatura unibertsalean eta, oro har, artean duena ere aztertuko du Canok arrasatearren aurrean.



## Ganbara Txikik disko berria kaleratuko du abenduan

I.E. | OÑATI

Oñatiko Ganbara Txikik 10 urte beteko ditu aurten, eta, horren harira, ekintza ugari ditu aurreikusita. Horietakoren batzuk martxan ditu jada; diskoaren grabazioa, esaterako. Joan den hilean grabatu zuten, irailaren 20tik 22rako asteburuan, Madalena ermitan. Aitor Biain abesbatzako zuzendariak adierazi zuenez, 15 bat ordu pasa zuten diskoa grabatzen, "eta, lan gogorra izan bazen ere, esperientzia polita izan zen".

Biainen zuzendaritzapean, eta Eli Mendiarez pianoan eta Iñaki Letamendia baterian zituztela, 40 ume eta gaztetxok grabatu zuten abenduan kaleratuko duten diskoa. Gainera, diskoarekin batera, eta haiek ere 10. urteurrenarekin lotuta, bideoklipa eta DVDa grabatuko dituzte.

Beste lau erronka ere badituzte urte berezi honetarako: Gabon inguruan erakusketa bat egitea, aldizkari bat argitaratzea, urteurren jaialdia eta *Kantua kalean* egitasmoa. Aurten, gainera, musikal bat egingo dute kalean.

## Amatasunari eta familia osatzeari buruzko gogoeta 'Hiru' lanarekin

Urriaren 10ean eskainiko dute antzezlanaren Aretxabaletako Zaraia aretoan

IURE EIZAGIRRE | ARETXABALETA

Abuztuan estreinatu zuten Donostian eta datorren astean helduko da bailarara *Hiru* antzezlanaren Miren Gojenola, Loli Astoreka, Ana Elordui eta Zuhaitz Gurrutxaga protagonista dituen obra Aretxabaletako Zaraia aretoan izango da ikusgai egunean, 19:30ean hasita. Sarrera lau euro kostako da.

Ama izateko ametsa betetzeko duten Txaroren, Mertxeren eta Angelaren istorioa kontatzen du antzezlanak. Hirurek batera ikasi zuten ursulinetan eta garai hartan beti batera ibiltzen ziren. Urteak igaro dira, ordea, eta azken hiru hamarkadetan bakoitzak bere bizimodua egin du, elkar ikusi gabe. 50 urte betetzear dardela, berriro batu dira, eta, zituzten ametsetako asko bete badituzte ere, handienetako bat betetzeko dute oraindik: ama izatea. Horretarako dituzten aukerak elkarrekin aztertu eta lagun diezaiekeen gizona topatuko dute: Joxerramon mutil gaztea.

Hainbat egoera komiko sortuko dira lau pertsonaien artean, baina barreak eragingo dituzten bizipen horien atzean egongo da



Astoreka, Gojenola, Elordi eta Gurrutxaga, antzezlaneko protagonistak. | TXALO

**Sortuko dira zenbait egoera komiko, baina gogoetarako lekua ere bada**

gogoetarako lekurik ere: amatasunaz eta laguntasunaz hitz egiteaz gain, familia benetan zer den aztertzen eta zalantzan jartzen du obrak. Izan ere, ohiko egiturako familia estereotipatuek ez ezik, proiektu komunak banatzen dituzten pertsonen ere familia bat osa dezaketela defendatzen du *Hiru* antzezlanak.

### Ibilbide luzeko aktoreak

Telebistan nahiz antzerkian esperientzia handia eta ibilbide luzea duten aktoreak aukeratu dituzte Txaroren, Mertxeren eta Angelaren paperak interpretatzeko.

Loli Astoreka aktore zornotzarrak egiten du Txaroren papera eta bere pertsonaia indar handiko emakumea, ausarta, delad dio berak. Profesionalki ondo doakio, baina bakarrik sentitzen da, eta, txikitako lagunena deia jasotzean, topaketa bere etxean egitea eskatzen du.

Miren Gojenola gernikarra Mertxe da, abokatua. 50 urte betetzera doa eta bizitza orekatua du, baina lagunekin elkartzearekin batera amaitzen da oreka hori eta lagunena desioarekin bat egiten du.

Angelaren papera Ana Elordi ondarrutarrak egiten du eta aitoritzen du bere pertsonaiari bizitzeko ilusia pizten zaiola lagunekin batzean.

Zuhaitz Gurrutxaga elgoibartarra da antzezlan horretarako aurpegi ezezagunena, hura du eta lehen antzezlanaren. Urteetan futbolekin ibili ostean, musikan hasi zen eta orain aktore lanetan estreinatu da Txaloren eskutik.

*Hiru* beste herrialde batzuetan arrakastaz estreinatu da, hala nola Espainian, Txilen, Puerto Rican, Costa Rican eta Estatu Batuetan. Gurera Begoña Bilbaoren zuzendaritzapean heldu da. Jatorrian Juan Carlos Rubiok idatzitako lana da eta Martin Agirrek euskaratu du.



ARGAZKIA: M. DIAZ DE RADA

ANTZEZLANA (Gaztelaniaz)

# TERAPIAS

**Non:** Amaia Udal Antzokia  
**Noiz:** Urriak 6, domeka, 19:30ean  
**Sarrera:** 12€

vaivén  
producciones



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Joseba Bartol, Eskoriatzako zaharren egoitza ondoko baratzean elikagaiak jasotzen.

Joseba Bartol | Sukaldaria

## "Baratzeko lanetan asko ikasi dut eta gauza berriak landatuz ikasten segitzea da nire helburua"

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Joseba Bartol (Eskoriatza, 1986) sukaldaria da Arrasateko ospitalean. Oso gustura ari da, ospitalizatuta daudenei janaria prestatzen. Hainbat zaletasun ditu: ehiza, areto futbola... Areto futbolearen atezain bezala aritu da urte askoan Eskoriatzako Kirol Elkartearen. Gaur egun, aldiz, entrenatzaile lanetan ari da. Kirola oso gustuko izan arren, sukaldean jaki goxoak prestatzea da haren pasioa. Gasteizko Sukaldaritzaren Eskolan ikasi zuen eta gaur egun prestatzen diren platerak asko ikasi duen arren, plater tradizionalak gehiago ikasteko gogoia dauka. Hori dela eta, beti izan du gustuko nekazaritza eta gaur egun baratzean asko ibiltzen da, produktu propioak

ekoizti eta haiek prestatzen. Eskoriatzako hainbat gazterekin baratzeko produktuak landatzen, zaintzen eta jasotzen dabil, Eskoriatzako Udalak utzitako lur eremu batean. "Baratzeko lanetan asko ikasi dut eta gauza berriak landatuz ikasten joatea da nire helburua".

**Nolatan hasi zineten baratzean lan egiten?**

Duela bi urte hasi zen proiektu hau. Eskoriatzako gazte batzuek euren baratze propioa izan nahi zuten eta Udalari eskaera egin zioten *Eingeinke* ekimenaren bitartez. Eskoriatzako Udalak lur eremu bat eman zien zaharren egoitza ondokoan, bertako belar txarrak kendu eta ingurua pixka bat zaintzearen. Nik geroago izan nuen proiektu honen

berri, eta bertara hurbildu nintzen. Gaur egun, hainbat kuadrillatoko lau lagun gabiltza bertan lanean. Bakoitzak dakiena egiten du eta, gainera, gure lur eremu ondoan beste bi baratze daude, eta bertakoekin laguntzaz eta haiei kopiatuz egin dugu gurea ere. Baratzea zaharren egoitza alboan izatea abantaila handia da, bertakoekin truku asko erakutsi dizkigute eta gustura egoten dira haiek ere, baratzean lanean ikusten gaituztenean. Gauzak nola egin behar diren erakustea atsegin dute eta akats batzuk ere ateratzen dizkigute. **Zein produktu landatzen dituzue bertan?**

Lau tomate mota ezberdin izan ditugu aurten; bitxienak, *cherry* tomate horiak. Horiez gain, letxu-

gak, kalabazak, kalabazinak, patatak eta piperrak. Oraingoan, honekin nahikoa dugu. Gainera, guk erein eta zaindutako produktuen eta dendetan erosten ditugun artean alde nabarmena dago. Elikagai batzuk ez zaizkigu behar bezala atera, baina eginez ikasten da eta gutxinaka -gutxinaka hobetuko dugu.

**Nondik lortzen duzue bertan lan egiteko materiala?**

Lanerako material gehiena utzi egin digute. Udalak aitzur batzuk utzi dizkigu eta zaharren egoitzakoek ere uzten dizkigute bertan dituzten lan-tresna batzuk. Bestalde, haziak, tomatei eusteko parrak... guk egin edo erosi ditugu.

**Zenbat ari zarete bertan lanean?**

Proiektu honekin lau lagun hasi ziren, ni geroago sartu nintzen, eta gaur egun hainbat kuadrillatoko lau lagun ari gara bertan. Hori bai, bi lagun egoten gara,

gehienbat, Xabier Arenatza eta biok. Izan ere, besteak kanpoan ikasten ari dira eta nagituta dabilta.

**Ezer egin duzue Eskoriatzako jendea bertaratzeko?**

Ba, egia esan, bai. Xabier Arenatza egoten da nirekin baratzean, eta, hura gaztelekuan ari denez, gaztelekukoak ekarri izan ditu noiz edo noiz, etxean jaten dutena nondik datorren ikusteko.

**Hainbat kuadrillatoko jendea ari zarete bertan lanean; zure kuadrillakoak ez al dira animatzen?**

Ez, nire kuadrillakoak beti daude afaltzeko prest, baina lanerako, ordea...

**Hemendik aurrera proiektuarekin jarraitzeko asmorik baduzue?**

Ba, ez dugu planik, baina gogotsu gaude baratzean produktu berriak erein eta probatzeko. Jende gehiago animatzen bada, hobe, baina, bestela, ere aurrera jarraituko dugu.

### PERTSONALA

**Zure herriko txoko maiteena:** Herriko plaza ingurua, bertako giroagatik.

**Janari gustukoena:** Eskaloepa patata frijituarekin.

**Musika talde gustukoena:** Zea Mays.

**Bidaia gustukoena:** Lanzarote.

**Denbora librean egiteko gustukoena:** Ehiza eta futbolearen jokatzeara.

**Nori prestatuko zenioke janaria gusturen?** Familiari.

**Nor gonbidatuko zenuke afaltzera?** Neskalaguna.

IMANOL BELOKI



## ASTEAGOIENAN



GOIENA

Festa giroko  
'Magazinea'

Oñatiko zapatuko Herri Egunean eta asteleheneko Errosario Bixamonean gertatutakoak jasoko ditugu asteleheneko *Magazinea*-n. Eta saioan ikusi ahal izango dituzue baita egubakoitzean Arrasateko Maritxu Kajoi egunean jasotakoak ere.

'Magazinea'  
Astelehena, 20:07



GOIENA

Makroepaiketak  
hizpide 'AsteOn'-en

Herriko tabernen eta Segiren makroepaiketari buruzko erreportajea eskainiko dizuegu, besteak beste, gaur, egubakoitza, eskainiko dizuegun saioan. Astelehena albiste izan diren gaiak ere errepasatuko ditugu Jon Berezibar aurkezlearen eskutik.

'AsteOn'  
Egubakoitza, 21:18

## GOIENA TELEBISTA

## EGUBAKOITZA, 4

12:00 Planik bai?  
12:20 Magazinea  
13:05 Kantari  
13:30 Bideo-irritzia  
13:55 AZK2012  
14:25 Planik bai?  
14:44 Berriak  
15:09 Eguraldia  
15:12 AZK2012  
15:42 Bideo-irritzia  
16:12 Zorion Agurrak  
16:18 Planik bai?  
16:42 Berriak  
17:07 Eguraldia  
17:10 AZK2012  
17:40 Bideo klipak  
18:00 Artearen ibilbidea  
18:30 Planik bai?  
18:50 Zorion Agurrak  
18:55 Berriak  
19:25 Eguraldia  
19:30 Kantari  
20:00 Planik bai?  
20:25 Zorion Agurrak  
20:30 Berriak  
20:55 Eguraldia  
20:58 Planik bai?  
21:18 AsteON  
21:48 Bertso Txapelketa Nagusia  
22:48 Planik bai?  
23:08 Berriak  
23:33 Eguraldia  
23:36 AsteON  
00:01 AZK2012  
00:16 AsteON

## ZAPATUA, 5

10:00 Bideo klipak  
10:30 Altxorren bila  
11:07 Magazinea  
12:07 Planik bai?  
12:27 Berriak  
12:42 Klaketa  
13:23 Onein 13:53 Bideo klipak  
14:23 AsteON  
14:53 Magazinea  
15:53 Zorion Agurrak  
15:58 Onein  
16:36 Planik bai?  
16:56 Bideo klipak  
17:26 Bertso Txapelketa Nagusia  
18:11 Jaiak: Aretxabaletako San Migel jaiak  
19:01 Zorion Agurrak  
19:06 Artearen ibilbidea  
19:16 AZK2012  
19:46 Berriak  
20:01 Magazinea  
21:01 Planik bai?  
21:21 AsteON  
21:51 Planik bai?  
22:11 Jaiak: Aretxabaletako San Migel jaiak  
23:01 Magazinea  
00:00 AZK2012

## DOMEKA, 6

10:00 Magazinea  
11:00 Zorion Agurrak  
11:05 Jaiak: Aretxabaletako San Migel jaiak  
11:55 Onein  
12:22 Berriak  
12:37 Planik bai?  
12:57 Magazinea  
13:57 Altxorren bila  
14:34 Magazinea  
15:34 AsteON  
16:04 Zorion Agurrak  
16:09 AZK2012  
16:39 Magazinea  
17:39 Bideo klipak  
17:59 AZK2012  
18:29 Klaketa  
19:10 Artearen ibilbidea  
19:20 Bideo klipak  
19:50 Magazinea  
20:50 Zorion Agurrak  
20:55 Jaiak: Aretxabaletako San Migel jaiak  
21:45 AsteON  
22:15 Magazinea  
23:15 Berriak  
23:30 Klaketa

## ASTELEHENA, 7

12:00 Magazinea  
12:45 Kantari  
13:15 AsteON  
13:45 Artearen ibilbidea  
13:55 Ikusten  
14:31 Artearen ibilbidea  
14:40 Zorion Agurrak  
14:45 Berriak  
15:15 Eguraldia  
15:18 Zorion Agurrak  
15:23 AZK2012  
15:53 Zorion Agurrak  
16:00 Onein  
16:30 Berriak  
17:00 Eguraldia  
17:03 Zorion Agurrak  
17:08 AsteON  
17:38 Altxorren bila  
18:15 Jaiak: Aretxabaletako San Migel jaiak  
19:05 Berriak  
19:30 Eguraldia  
19:33 Kantari  
20:03 Zorion Agurrak  
20:07 Magazinea  
20:52 Berriak  
21:17 Eguraldia  
21:22 Harmailatik  
22:07 Berriak  
22:32 Eguraldia  
22:35 Magazinea  
23:20 Gurean gaur

## MARTITZENA, 8

12:00 Magazinea  
12:45 Harmailatik  
13:25 Kantari  
13:50 Onein  
14:15 AsteON  
14:45 Berriak  
15:10 Eguraldia  
15:13 Harmailatik  
15:58 Onein  
16:28 AsteON  
16:58 Berriak  
17:23 Eguraldia  
17:26 Ikusten  
18:02 Harmailatik  
18:47 Artearen ibilbidea  
18:57 Zorion Agurrak  
19:02 Berriak  
19:27 Eguraldia  
19:30 Kantari  
20:00 Zorion Agurrak  
20:06 Magazinea  
20:51 Berriak  
21:16 Eguraldia  
21:19 AZK2012  
21:49 Berriak  
22:14 Eguraldia  
22:17 Magazinea  
23:02 Gurean gaur  
00:34 Gurean gaur

## EGUAZTENA, 9

12:00 Magazinea  
12:45 Onein  
13:10 Kantari  
13:40 AZK2012  
14:10 AsteON  
14:40 Zorion Agurrak  
14:45 Berriak  
15:10 Eguraldia  
15:13 Klaketa  
15:54 Harmailatik  
16:39 Zorion Agurrak  
16:44 Berriak  
17:09 Eguraldia  
17:12 Harmailatik  
17:52 Onein  
18:19 Klaketa  
18:49 Zorion Agurrak  
18:54 Berriak  
19:14 Eguraldia  
19:17 Bideo klipak  
19:37 Baietz asmatu!  
20:07 Magazinea  
20:52 Berriak  
21:17 Eguraldia  
21:19 Bertso Txapelketa Nagusia  
22:19 Berriak  
23:04 Eguraldia  
23:34 Magazinea

## EGUENA, 10

12:00 Magazinea  
12:50 Onein  
13:15 Kantari  
13:45 AZK2012  
14:15 Bideo klipak  
14:40 Zorion Agurrak  
14:45 Berriak  
15:10 Eguraldia  
15:13 AZK2012  
15:43 Zorion Agurrak  
15:48 Altxorren bila  
16:25 Ikusten  
17:01 Berriak  
17:26 Eguraldia  
17:29 Onein  
18:07 Planik bai?  
18:27 AZK2012  
18:57 Berriak  
19:17 Eguraldia  
19:20 Planik bai?  
19:40 Kantari  
20:07 Magazinea  
20:52 Berriak  
21:17 Eguraldia  
21:20 Planik bai?  
21:40 Berriak  
22:10 Eguraldia  
22:13 Magazinea  
22:58 Gurean gaur

## ARRASATE IRRATIA

'The Hot Wok'-en  
kontzerturako  
sarrerak zozketan

*Kooltur ostegunak* egitasmoaren barruan, Gasteizko *The Hot Wok* taldeak eskainiko du kontzertua egunean, 22:00etan, gaztetxean. Bertara joateko sarrerak lortzeko, deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidera. Hartu parte zozketan eta zorte on!

'Terapias'  
antzezlanari buruzko  
elkarriketa

Kepa Errastik eta Mikel Laskurainek *Terapias* antzezlanaren eskainiko dute domekan, 19:30ean, Amaia antzokian. Bada, horri buruz Kepa Errasti aktoreari egindako elkarriketa entzun ahal izango duzue zapatuan eta domekan 10:00etan egingo dugun asteko gainbegiratuan.



## Ana Mari eta Jose

Ana Mari Altuna eta Jose Inda 1965eko urriaren 5ean ezkondu ziren. "Benetan elegante eta zoriontsu zeuden. Zorionak eta musu asko, familia guztiaren partetik".



## Elisa eta Juan

Bergarako Elisa Asenjok eta Juan Aguilak urrezko ezteiak ospatuko dituzte bihar, zapatua. Familia guztiaren partetik, "zorionak, ondo pasatu eta musu handi bat!".



## Irene eta Javier

Bergarako Irene Abad eta Javier Irigoien bihar, zapatua, ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Iritsi da egun handia! Ondo ibili ezkontza egunean eta baita Mauriziorako bidaian ere. Lagunen eta familiakoien partetik, musuak".



## Mari Tere eta Inaxio

Mari Tere Ugartek eta Inaxio Azkaratek bihar, urriak 5, urrezko ezteiak ospatuko dituzte. Familia guztiaren partetik, "zorionak, ondo pasatu Orion eta urte askotarako".



## Marcos eta Monika

Marcos eta Monika bihar, urriak 5, ezkonduko dira. "Zorionak, egun polita pasatu eta zoriontsu izatea opa dizuegu, bi familien partetik. Musuak".



### Fermina eta Miguel

Bergarako Fermina Carrascosak eta Miguel Martinezek 50 urte bete zituzten ezkontuta irailaren 27an. Familiarekin ospatu zuten eguna irailaren 28an. "Zorionak, familia guztiaren eta, batez ere, Unairen eta Arianeren partetik".



### Jose Luis eta Milagros

Jose Luis Azkarate Zabarte eta Milagros Beitia Leon arrasatearrak orain dela 43 urte ezkondu ziren, urriaren 10ean. "Zorionak eta urte askotarako, aita eta amama! Oihan, Lide, Hegoi eta Garazi biloben partetik".



### Jon eta Olaia

Arrasateko Jon Ajuria eta Aretxabaletako Olaia Agirrezabalaga gaur, urriak 4, ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Azkenean heldu da denok espero genuen eguna! Ondo pasatu Nepal aldean eta musu handi bat familiako guztion partetik!".



### Hiart eta Iban

Hiart Bilbao eta Iban Lazkano bihar ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Ondo pasatu... Behintzat, saiatu eguna disfrutatzen. Ondo pasatuko dugunak beste guztiok izango gara, seguru!".



### Irene eta Javier

Bergarako Irene Vila eta Javier Centeno 1988ko urriaren 8an ezkondu ziren. Datorren martitzenean zilarrezko ezteiak beteko dituzte, beraz. Zorionak eta urte askotarako, bikote!

#### ESKER ONA

### Ovidia Bernardo Aranguiz



2013ko irailaren 29an hil zen, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Oñatin, 2013ko urriaren 4an.

#### ESKER ONA

### Martina Arbulu Gallastegi



Pedro Gabilondoren alarguna

2013ko urriaren 1ean hil zen, 83 urte zituela.

Martinaren familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak. Lerro hauen bidez, banaka egin ezin izanagatik, sendiarengana hitz lasaigarriekin hurbildu ziren guztiak eta hileta-elizkizunera agertu ziren denak eskertu nahi ditu.

Antzuolan, 2013ko urriaren 4an.

#### URTEURRENA

### Javier Letamendi Arrazola



Arrasaten hil zen 2011ko urriaren 4an, 83 urte zituela.

Bigarren urteurreneko meza, gaur, egubakoitza, izango da, 19:00etan, Arrasateko San Frantzisko elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2013ko urriaren 4an.

#### URTEURRENA

### Roman Albisua Arozena



2012ko urriaren 2an hil zen, 70 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 6an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiaren.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2013ko urriaren 4an.

#### HILDAKOAK

**M. Dolores Odriozola Igartua.** Oñatin, irailaren 23an. 90 urte.

**Maria Garai Etxaurre.** Arrasaten, irailaren 26an. 92 urte.

**Javier Ayastuy Ugarte.** Arrasaten, irailaren 26an. 78 urte.

**Quintina Tena Sopo.** Arrasaten, irailaren 26an. 40 urte.

**Lucas Diaz Granado.** Oñatin, irailaren 27an. 81 urte.

**Alberto Juan Romero Abaroa.** Arrasaten, irailaren 27an. 59 urte.

**Ovidia Bernardo Aranguiz.** Oñatin, irailaren 29an. 89 urte.

**Martina Arbulu Gallastegi.** Antzuolan, urriaren 1ean. 83 urte.

**Manuel Mendez Ramos.** Arrasaten, urriaren 1ean. 86 urte.

#### URTEURRENA

### Javier Ayastuy Ugarte



Arrasaten hil zen 2013ko irailaren 26an, 78 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Haren aldeko ondra meza domekan izango da, urriaren 6an, 11:00etan, Arrasateko Gesalibar auzoko Santa Ageda elizan.

Bertaratuko zaretenoi, alde zuretik, eskerrik asko. Gesalibarren, 2013ko urriaren 4an.

# OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek  
eskatzen duen errespetu,  
arreta eta ardura handienarekin,  
nire asmoa da familiari ahalik eta  
traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu:  
Ez onartu besterik gabe  
zure aseguru-konpainiak  
esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:*

**NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua  
AUKERA DEZAKEZULA BETI.**



maribi 617 44 21 55  
**BERGARA**

## MUSIKA

**ARRASATE** **Oria txaranga eta Kaixo**  
Oria txaranga beteranoaren doinuak herriko kaleetan, 19:00etan. Kaixo taldearekin dantzaldia, 22:30ean, Seber Altuben; eta Luhartz, Herriko Plazan, 00:00etan.  
Gaur, egubakoitza, Herriko plazan 19:00etan.

**BERGARA** **Jonny Gerriwelt eta Vibradores**  
Jonny Gerriwelt eta Vibradores taldeek kontzertua eskainiko dute. Sarrera: 3 euro.  
Gaur, egubakoitza, gaztetxean 23:00etan.

**ANTZUOLA** **Dhuna**  
Gaztetxe berriaren urteurren ospakizuneko emanaldia. Doan izango da.  
Gaur, egubakoitza, gaztetxean 22:30ean.

**OÑATI** **Laja, Narbaiza eta Lutxurdio**  
Trikitilariak Atzeko kalean eskainiko dute erromeria Herri Egunean.  
Bihar, zapatua, Atzeko kalean 18:30ean.

**BERGARA** **DJ jaialdia**  
Dantza egiteko musika herriko gaztetxoendako.  
Bihar, zapatua, Zabalotegi aretoan 18:30ean.

**BERGARA** **Organo erromantikoa**  
Organo erromantikoa nazioarteko zikloaren barruan Felician Rosca organo-jotzaileak kontzertua eskainiko du.  
Bihar, zapatua, Santa Marina parrokiaren 20:00etan.

**ARRASATE** 'Terapias'

Vaiven eta La Pavana antzerki taldeek *Terapias* antzezlana eskainiko dute (gazteleraz). Christopher Durang idazlearen testuan oinarritutako antzezlana da. Unibertsalitateak diren gaiak modu ozar eta sakonean lantzen ditu Durangek: sexua eta maitasuna, besteak beste. Sarrera 12 euro izango da.  
Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.



M. DIAZ DE RADA

## NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.  
Tel.: 943 25 05 05 | [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com) | Faxa: 943 25 05 00

URRIAK 4  
URRIAK 10**OÑATI** **Joselu Anaiak eta Trikidantz eta Ai Ene**

Joselu Anaiak eta Trikidantz txosnagunean eta Ai Ene foruen plazan, 22:30ean.  
Bihar, zapatua, Txosna gunean 22:00etan.

**ANTZUOLA** **Salda Badago**

Gaztetxe berriaren urteurrenaren harira, Salda Badago eta DJ Elvis

Caino musika-jartzaileak. Doako emanaldia izango da.  
Bihar, zapatua, Antzuolako gaztetxean, 22:00etan.

**OÑATI** **Gibelurdinek**

Euskal musika tresnak erabiltuta askotariko musika motak sortzen dituzte.  
Etzi, domeka, Atzeko kalen 19:00etan.

## ANTZERKIA

**BERGARA** 'Hiru'

Txalo antzerki taldeak *Hiru* antzezlana eskainiko du. Loli Astoreka, Miren Gojenola, Ana Elordi eta Zuhaitz Gurrutxaga dira aktoreak. Sarrera 8 euro.  
Gaur, egubakoitza, Zabalotegin 22:00etan.

**ARETXABAETA** 'Murren bidaia'  
Behi Bi's taldearen eskutik. Sarrera 3 euro.  
Etzi, domeka, Zاراia aretoan 17:00etan.

## IKUSKIZUNAK

**ARRASATE** 'Kanta ta dantza'  
Irrien Lagunekin *Kanta ta dantza* ikuskizuna. Eurria eginez gero Biterin izango da.  
Gaur, egubakoitza, Seber Altuben 18:00etan.

## DANTZA

**OÑATI** **Karibeko folklorea**  
Karibeko dantzak txosnagunean.  
Gaur, egubakoitza, Txosna gunean 20:30ean.

**BERGARA** **Dantza afrikarrak**  
Dantza afrikarren ikastaroko lehenengo saioa zapatuan; ondoren, hilabetero bi saio egingo dituzte (1. eta 3. zapatuetan).  
Bihar, zapatua, Bergarako gaztetxean 16:00etan.

## JAIK

**BERGARA** **Espaloiko jaiak**  
Espaloiko jaiak ospatuko dituzte zapatuan: 12:00etan, jolasak; 13:00etan, triki-poteoa; 14:30ean, auzo bazkaria; arratsaldian, helduen jolasak; 21:30ean, erromeria; eta, 00:00etan, DJ Julen.  
Bihar, zapatua, Espaloian 12:00etan.



**GOZATU MARITXUTAZ, GIRO DOTOREENEAN!**

**Bengoa • Ezkiña • Itzala • Nahi • Okoretegi • Rumba • Txoko II**





# goiena

2013-10-04

BUKATZEKO

## Filmak ikustea, lanbide bilakatuta

- ▶ Joan Sala arrasatearrak filmak deskargatzeko aukera ematen duen enpresa baten egiten du lan
- ▶ Europako zinemaldi garrantzitsuenetara joaten da urtero, eta bloga egitea bere lanaren zati bat da

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Film onenak, berrienak, sari-tuenak, irrika handiena pizten dutenak... ikustea eta hori egiteagatik ordaina jasotzea: askok sinatuko lukete lanpostu hori izatearren. Bada, arrasatear batek lan hori egiten du, gutxi gorabehera. Joan Sala da eta, bere izenak adierazten duen bezala, aitaren aldetik katalana da, baina beste erdia euskalduna du; Arrasaten jaio eta bertan bizi izan zen 23 urtean.

Gaur egun, Bartzelonan bizi da eta filmak deskargatzeko aukera ematen duen Filmin enpresan editore egiten du lan. Jakina, film asko ikustea lanarekin doa eta, gainera, bost zinemalditara joaten da urtero: Berlin, Cannes, Venezia, Donostia eta Sitgesekoetara. Lanpostu ideala? "Zinefilo amorratua naizenez, bai; baina bere alde neka-garria ere badu. Zinemaldiak maratoi hutsak dira: egunean bost film ere ikusi beharra izan dezakezu, gero horietaz idatzi behar duzu, zuzendariak elkarrizketatu, elkarrizketak idatzi... Gainera, egun horietan oso ordu gutxi egiten da lo, oso gaizki jaten da... baina, bai, horrek ordaina dauka: punta-puntako filmak ikustearren gozamena".



Joan Sala, lantokian. | JOAN SALA/FILMIN

### Sitgesen, jai giroan

Urriaren 11tik 20ra, oso bestelako film erakustaldi eta lehiaketa baten izango da Joan: Sitgeseko Zine Fantastiko eta Beldurrezkoaren zinemaldira. Aurten 42 titulu daude sail ofizialean. Donostiako generoko zine jaialdian gertatzen dena

han aplikatu egiten da: "Egun batzuetan zortzi film ere ikusi behar izaten da, baina bestalde, jai giroan egiten da dena".

### Ezinbesteko filma

Zine aditu gisa, gomendio pare bat eskatu diogu Joani, eta hona

hemen zer esan digun: "Oraintxe estreinatu da *The act of killing* dokumentala, eta ezinbesteko filma deritzot. Eta, egunotan zinema aretoetan dauden filmetatik, *Antes del anochecer* da azkenaldian gehien gustatu zaidan titulua".

### AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR



### Soraluzeko zubia

arunbatean elkartu ginen Soraluzen euskaltzale mordoak, TopaEguna ospatzen. Egun osoko egitarau mardula prestatzeko antolatzaile talde indartsua bildu zen: bertako Pilpilean elkarteak, Udala eta herri osoa; Debarreneko eta Debagoieneko elkarteak, Topagunea federazioa eta euskaltzale ugari.

Mezuetan, gogo berritua nabari zen. Euskararen aldeko mugimendua biziberritu egin behar da, biziberritzen ari da. Euskaltasuna zoru komun bihurtu eta gizartearen erdian jarri indarra biltzeko. Gero, indar horrekin pertsonak motibatatu eta egiturak akuilatu.

Gogoeta eragiteko, Jon Sarasuaren liburu berria aurkeztu zen TopaEgunean, zubi ondoko aretoan. *Hiztunpolisa* hitz eza-guna bihurtuko da aste gutxitan. Ekarpene mamitsuak dauzka, euskaltasunaren norabidean asmatzeko.

Azkenik, zubia bera. Soraluze herri estua izanik, zubia-zen zabalunea baliatu dute plaza bat sortzeko. Orain zubia igaro bakarrik ez, zubian egon egiten dira. Eta oso kontzeptu potentea iruditzen zait: zubian egon, zubi egin, zubi izan. Esango nuke euskarak horixe behar duela: zubigintza indartsua, ibar ezberdinak lotzeko. Eta euskaltzale asko zubian, Soraluzen bezala.



## ONDO PASAU SAN MIGELAK!



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1 - OÑATI

Tel.: 943 71 63 22 - Faxe: 943 78 15 51